



Euskal Herria Komunala

XABIER RENTERIA URIARTE

Abk gizartearen errealitateak,
borrokak eta mitoa



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Euskal Herria Komunala. Abk gizartearen errealitateak, borrokak eta mitoa

2025



Aitortu + EzKomertzial + PartekatuBerdin

Liburu honen ale fisikoa nahi baduzu, idatzi xabier.renteria@ehu.es

Egilea: Xabier Renteria-Uriarte

Argitaldaria: Booktegi Kultur Elkarte.

Kontseju Zarra, 11 4. B. 20170

Usurbil. G67668491

ISBN: 978-84-09-74307-0



Aitortu - EzKomertziala - PartekatuBerdin (Cc-by-nc-sa)

Honakoak egin ditzakezu:

Partekatu — partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan

Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarritu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedetarako ere.

Lizentzia-emaileak ezin ditu askatasun horiek atzera bota, lizentziako baldintzak betetzen dituzun bitartean.

Honako baldintzen arabera:

Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.

Partekatu berdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Ez dago murrizketa gehigarririk — Ezin duzu lege-baldintzarik edo neurri teknologikorik aplikatu, baldin eta lizentziak baimentzen duen zerbait legez murrizten badiete gainerakoei.

EzKomertziala – Gogoratu merkataritza etekinik ezin duzula hemendik atera.

Laburpen honek ez du lizentzia ordezkatzen.

BOOKTEGI AKADEMIA

Booktegik testu akademikoak argitaratzen ditu formatu elektronikoan **BOOKTEGI AKADEMIA** atalean. Argitalpen ofizialak dira, ISBNekin, eta booktegi.eus-en daude eskuragai. Izaera akademikoa bermatzeko –eta edukia ez denean doktorego tesia, edo gradu/master amaierako lana–, argitalpen bakoitza plazaratu aurretik bi ohargile independentek aztertu eta ontzat ematen dute.

info@booktegi.eus

Azala: Enara Gorriño



Xabier Renteria Uriarte

Euskal Herria Komunala

**Abk gizartearen errealitateak,
borrokak eta mitoa**

AURKIBIDEA (laburra)

Aitzin Solas	9
Sarrera	10
Euskal Herria komunala eta matxinoa	1
1. Auzolana.....	4
2. Batzarrea.....	7
3. Komunalak.....	10
1-3 <i>Abk</i> : Auzolana-Batzarrea-Komunalak, euskal ekonomia sistemaren motorra	15
4. Zuzenbide Piriniarra	17
5. Matri-Zaintza Komunala eta Militantzia politikoak, Milizia Herritarrak barne	24
6. Sena, Gizabidea eta Mundu-ikuskera	31
4-6. <i>Zms</i> : Zuzenbide Piriniarra-Milizia Herritarrak-Euskal Sena, euskal gizartearen bermeen babesa.....	37
7. Euskal ekonomia eta gizarte sistema: <i>Abk-Zms</i> komunala	38
8. Euskal Komunalismoa eztabaidan	52
Ondorioak	55
Aipu-Iturriak	56
Hiztegi Laburra	64
Zenbait artxibo grafiko.....	64

AURKIBIDEA

Aitzin Solas	9
Sarrera	10
Euskal Herria komunala eta matxinoa	1
<i>Weber, Ostrom, Graeber, Ott, Gehry... Zerqatik euskal baloreei arreta jartzen?</i>	1
<i>Euskal Herria matxinoa eta bertokoaren aldeko borroka</i>	2
<i>Lanaren egitura</i>	3
1. Auzolana.....	4
<i>Eguno 'auzolan' edo lan dohaintza kolektiboak</i>	4
<i>Auzolanak zertan diren</i>	4
<i>Auzolanak ulertzeko: Kapitalismo mozkin-bilatzailea versus Ekonomia Sozial eta Solidarioa</i>	5
2. Batzarrea.....	7
<i>Eguno Batzarreak eta Batzarre berrien sorkuntza</i>	7
<i>Batzarrea</i>	8
<i>Batzarreak ulertzeko: Zuzeneko Demokrazia, behetik-gorakoa</i>	9
3. Komunalak.....	10
<i>Eguno Komunalak eta beraien aztarnak</i>	10
<i>Komunalak</i>	10
<i>Komunalak ulertzeko: Banatze Ekonomiak eta Komunak</i>	12
1-3 Abk: Auzolana-Batzarrea-Komunalak, euskal ekonomia sistemaren motorra	15
<i>Abk ekoizpen sistema zehatz gisa</i>	15
<i>Abk gizarte mugimenduen alderdi eta funtza gisa</i>	16
<i>Abk borroka gisa</i>	17
4. Zuzenbide Piriniarra	17
<i>Eguno Zuzenbide Piriniarraren aztarnak, Batzarreen sareak eta Nazio egitura proposamenak</i>	17
<i>Zuzenbide Piriniarra</i>	21
<i>Zuzenbide Piriniarra ulertzeko</i>	22
5. Matri-Zaintza Komunala eta Militantzia politikoak, Milizia Herritarrak barne	24
<i>Eguno matri-zaintza komunistaren euskal aztarnak</i>	24
<i>Matri-zaintza komunalista</i>	24
<i>Zaintza sistemak ulertzeko: 'zaintzaren ekonomia'</i>	26
<i>Militantzia politikoak eta azken aldiatako Milizia Herritarrak</i>	27
<i>Militantzia politikoak eta aurreko Milizia Herritarrak</i>	28
<i>Milizia Herritarrak ulertzeko</i>	31
6. Sena, Gizabidea eta Mundu-ikuskera	31
<i>Eguno Euskal Sena, Gizabidea eta Mundu-ikuskera</i>	31
<i>Euskal Sena, Gizabidea eta Mundu-ikuskera</i>	32
<i>Euskal Sena eta Gizabidea ulertzen: mundu-ikuskera komunistaren adigai</i>	36
4-6. Zms: Zuzenbide Piriniarra-Milizia Herritarrak-Euskal Sena, euskal gizartearen bermeen babesa.....	37
<i>Zms berme sistema zehatz gisa</i>	37
<i>Zms gizarte mugimenduen alderdi gisa</i>	38
<i>Zms borroka gisa</i>	38
7. Euskal ekonomia eta gizarte sistema: Abk-Zms komunala	38
<i>Abk-Zms hiru hitzetan</i>	39
<i>Abk-Zms ulertzen: Idealtipus, Sharing society, ekonomia natural eta mito sozial gisa</i>	40
<i>Eguno euskal komunalismoa ezker mugimenduen historian: klasikoak, erresistenteak eta aurre-figuratiboak</i>	46
<i>Euskal komunalismoa kapitalismoarekiko kritiken artean: komunistak, anarkistak eta sozialdemokratak</i>	49
8. Euskal Komunalismoa eztabaidan	52
<i>Kritika sarriak: pasatua, inozoa, irrealia, ximpleegia, anabasa...</i>	52
<i>Tipo ideala eta mito soziala ekintzan</i>	54
Ondorioak	55
Aipu-Iturriak	56
Hiztegi Laburra.....	64
Zenbait artxibo grafiko.....	64

Euskaldunek badute jendarte, ekonomia eta politika sistema propioa, beraiek garatua. Ez da kapitalismoa. Ez da sozialismoa (hierarkikoa).

Entzun zenezake herriek ez dutela antolaketa modu berezirik. Baina hori esaten dizun berberak onartuko du kapitalismoa Mendebaldean sorturikoa eta sozialismo erreala Sobietar Batasunean gorpuztua direla.

Euskal jendeartearen sistema gizaterian eta planetako leku desberdinetan ohikoa da. Ez da ezer berezirik, baina gure era berezian egin dugu, nork bere etxean bezala.

Eta horri buruz dugun jakinduria eza ere, berezia bezain hitsa da. Sistemaren islak oraindik ekinean eta aktibo direnean, izan ere!

Oraingoz ez baduzu iritzirik, irakurri hau, alderatu jarrerak, eta erdietsi zeure-zeurea dena. Jadanik iritzia baduzu, hau da hori hornitzeko aukera.

Gure bizitzan eta gure gizartean bada alderdi bat nahikotxo antzeman gabea, garden eta ikusiezin pasatzen zaiguna. Ontasunari eta maitasunari buruz hitz egiten dugu sarri, baina balore horiek islatzen dituen ‘komuntze’ edo ‘partekatze’ ekonomia ahazturik dugu. Azken hamarkadetan hautsak harrotu dituzte ‘sharing economy’ eta ‘digital commons’ aldaerek, baina antropologoek bi mende daramate dokumentatzen: gizaterian ‘berezko, espontaneo’ edo ‘naturala’ den ekonomiarik balego, hau litzateke.

Euskal Herriko gizarteak ere mantentzen du alderdi hori: *Abk-Zms* akronimoan laburbildu daiteke. *Abk* edo Auzolana-Batzarrea-Komunalak; hauek motor fisiko, sortzaile eta jabego gisa. *Zms* edo Zuzenbide piriniarra, Matri-zaintza eta Militantzia politikoak, eta euskal Sena edo gizabidea; hauek arau egitura, ardura sozial, eta bulkada gisa.

Euskal Herria Komunal hau bada, beraz, egungo errealitatea edo praktiken alderdia, antzinetatik iritsitako mito soziala, eta ekintzaile desberdinen borroka aktiboa.

Lan hau ‘sharing economy’ eta ‘commons’ literatura garaikidearen aplikazioa da, egungo Euskal Herriari. Eta, bide batez, *Euskal Herria Komunal* honen apologia.

Aitzin Solas

Garai posmoderno hauetan ez dago ondo ikusia herriek izan ditzaketen berezko ikuskerei edo antolaketei buruz hitz egitea. Esentzialismoa omen. Baina nork uka lezake kapitalismoa, goitik behera edonon bertaratua izan ez arren, eta etengabeki aldakorra izan arren? Berdina da herriren batek duen isuriren batetan arreta jartzen badugu, ‘tipo ideal’ gisa ulertua izateko. Ala herriak berak bere alderdiren bat ikur edo ‘mito sozial’ gisa onartzen badu, fisikoki egiazkoa izan ez arren. Ukaezina da lehen kasua ezagutza mailan, eta ukaezina, egite sozial gisa, bigarrena.

Ez da apala lana jarraian bezala aurkeztea, baina aurretik eragin izan ditu, eragin, tuku eta goganbeharrak. Beraz, usmo gehigarriak uxatze aldera, derasagun bere jatorria eta funtsa ‘goi-mailako aldizkari zientifiko’ deitzen diren horietan argitaratua izan dela, jcr q1-q3 tartekoak, eta dagozkien ‘azterketa itsu bikoitza’ delako kontrolak gainditurik (*Globalizations, Culture&Psychology* edo *Social Epistemology*). Hori, nazioarteko kongresuetan ere onartua izan eta gero (ikus bibliografian argitalpen horiek denak).

Bihotza eskuan, orain bai. Lan honetarako elikadura *Ikerketa Ekintza Parte-hartzaile* bat izan da, 2018 urtetik *Euskal Sena Taldean* nahasia (eta ‘nahasia’ esanda metodologia honen terminoei dagokien bezala; ohiko ikerketei jarraiki, irakurri ‘burutua’). Bihoazte eskerrak hemendik taldekideei.

Hierarkia epistemiko antzuetan ez baduzu sinesten, irakurle, barka ieazadazu lehen oharra (bigarrena, aldiz, zilegi zen). Eta besterik gabe, irakurketa gozoa opa dizudalarik, hasi zintezke horretan.

Xabier Renteria-Uriarte.

Gernika-Lumon, 2025.ko uztailak 15 dituenean.

Sarrera

Euskal Herriak badu bere jendarte, ekonomia eta politika sistema, berezkoa duena. Ez da kapitalismoa. Ez da sozialismoa (hierarkikoa).

Erraz entzungo duzu herriek ez dutela antolaketa modu berezirik, hori esentzialismoa dela. Baina hori esaten dizun berberak onartuko du kapitalismoa Mendebaldean sorturiko eta hein handian mendebaldarra den sistema dela, edota sozialismo erreala Sobietar Batasunean gorpuztu zela, errusiarren iraultza komunistari esker.

Gizaterian eta planetako leku desberdinetan ohikoa da Euskal Herriko jendearteak gorpuztu eta findu zuen sistema. Ez da ezer berezirik, baina gure era berezian egin dugu, nork bere etxean bezala.

Eta horri buruz dugun jakinduria eza ere, berezia bezain hitsa da. Oraindik ekinean eta aktibo izan arren bere islak!

Lan honek, horren alde egiten duten mugimendu sozialen baitan, gabezia hori estaltzea du helburu.

Oraingoz ez baduzu iritzirik, irakurri hau, alderatu jarrerak, eta erdietsi zeure-zeurea dena. Jadanik baduzu iritzia, hau da hori hornitzeko aukera.

Eta zeri buruzkoa da?

Gure bizitzan eta gure gizartean bada alderdi bat nahikotxo antzeman gabea, garden eta ikusiezin pasatu daitekeena gure begien aurrean. Ontasunari eta maitasunari buruz hitz egiten dugu sarri, baina balore horiek islatzen dituzten jokabide sozioekonomikoen hauteman gabe ihes egiten digute. Nolanahi ere, komuntze eta partekatze praktikak arruntak ditugu; besteak beste, inork ez du etxeko hozkailuan prezioa jartzen hor zerbait banatzeko. Bizieraren alderdi hau ‘komunal’ edo ‘partekatze’ ekonomia deitua izan da, egungo aldaerek hautsak harrotu dituztelarik (hala nola, ‘sharing economy’ eta ‘digital commons’ praktikek). Ukaezina da ere, antropologoek hamarkadetan dokumentatu bezala, haustarri honek mundu zabaleko gizarteak egituratu eta biziraun arazi dituela. Are gehiago, zenbatzen hasita, gizateriaren historiako jendarte gehienak horrela antolatu direnaz ohartuko ginateke, eta honako balioespena ulertuko genuke: gure espeziearen ‘berezko, espontaneo’ edo ‘naturala’ den ekonomiarik balego, hau litzatekeela hain zuzen.

Euskal Herriko gizarteak ere izan du, historian zehar, praktika mota hauek batzen dituen alderdia, eta *Abk-Zms* akronimoan laburbildu daiteke. *Abk* edo Auzolana-Batzarrea-Komunalak; hauek motor fisiko, sortzaile eta jabego gisa. *Zms* edo Zuzenbide piriniarra, Matri-Zaintza eta Militantzia politikoak, eta euskal Sena edo gizabide eta mundu-ikuskerak; hauek arau egitura, ardura sozial, eta bulkada gisa. *Euskal Herria Komunal* hau bada, beraz, errealitatea edo praktika jakinen saskia, mitoa edo euskaldunen zati batek sinisten duen Soreldar eta Gramsciar mito soziala, eta ekintzaile desberdinek forma desberdinetan duten borroka aktiboa.

Esan gabe doa lan hau guzti honen deskribapena dela. Ikuspegi akademikotik, ‘sharing economy’ eta ‘commons’ literatura garaikidearen aplikazioa da egungo Euskal Herriari. Eta bide batez, jendarterako eta horrela nahi bada, *Euskal Herria Komunal* honen apologia ere bada.

Euskal Herria komunala eta matxinoa

Weber, Ostrom, Graeber, Ott, Gehry... Zergatik euskal baloreei arreta jartzen?

Max Weberrek euskal kostaldera bidaiatu zuen XIX. mendearen amaieran, 1897an, eta ezustean harrapatu zuen euskal arrantzaleek beren harrapaketak ez zituztela bereganatzen, euren kolektiboen jabetzatzat hartzen zituzten, eta ‘gremio-komunismo’ bitxia zela ondorioztatu zuen (Weber, 1897). Elinor Ostromek, Ekonomiako Nobel saridunak, Euskal Herria aipatu omen zuen noizbait, edo aipatzen omen zuen, komun-gizarteen adibide edo komun-jendarteen eskualde bezala, batzuen kontakizunetan behintzat. David Graeberrek eta David Wengrowek (2021, p. 412) “traditional Basque settlements” ikusten dute gizarte antolaketa modu honen “[t]he most informative case” bezala, eta aztarnak ikusten dituzte ere “modern Basque societies”etan.

Gizarte ehun honen emaitza gisa ikusi da nazioartean ezaguna den Mondragón Corporación Cooperativa (MCC) taldea, munduko kooperatiba-konglomeratu handiena baita. Ricardo Antón ekintzaileak laburtzen duen bezala (Álvarez-Blanco, 2020, 106. orr):

[T]he Mondragón corporation, has been building a whole model [of cooperativism] ... mostly industrial, but also a number of services, [within] a strong tradition of cooperatives [that comes from] a kind of productive, cooperative society in which all work is also closely linked to the creation of community.¹

Ikus daitekeenez, alderdi ekonomiko hau ez da ekonomia soila, gizarte antolaketa da gizarte aldagaiekin. Ricardo Antónek amaitzen duenez (106. orr.):

So, there’s that kind of link between a tradition of the commons and communitarianism and the Basque country.

Eta gizarte-tasun hau harago doa ere. Graeberek eta Wengrowek (2021, p. 413) zera eranstean dute:

As so often with such matters, there is an entire cosmology, a theory of the human condition, baked in

‘Cosmology’ edo mundu-ikuskerari hori deskribatu zuen Estatubatuar Antropologoak, Sandra Ott-ek, jada klasikoa den *The Circle of Mountains* gogoangarrian (1993, euskaraz 1994). Eta ‘human condition’ hori antzeman zuen ere Frank Gehry arkitektoak, Bilboko Guggenheim Museoa eraikitzerakoan:

Batzuetan bileretara zoaz eta beti daude ezkutuko motibazioak, marruskadura politiko askorekin eta konplikazio ekonomikoekin. Baina proiektu honekin denak ziren hiri bat hobetzeko asmoz. Beste leku batzuetan ez dute kultur osagarri hori, komunitatearekiko konpromisoa. [Adibidez], euskaldunek inoiz ikusi ez nuen moduan betetzen dute hitza. Guggenheim errepikatzea ezinezkoa litzateke, kultura, jendea, zintzotasuna, argitasuna, sinpletasuna... errepikatzea beharrezkoa litzatekeelako (Gehry, 2017)

Euskal komunalak, kooperatiben indarra, balore sozioekonomiko bereziak... Munduan jakinmina sortzen duen fenomeno osatzen dute baina, zoritxarrez, gure artean eskas-eskas ezagutua. Horri buruzko aipuak eta lanak handik eta hemendik sakabanatuak daude, guztiak

¹ [I]n the Basque country there’s a strong tradition of cooperatives, ... the Mondragón corporation, ... has been building a whole model ... mostly industrial, but also a number of services ... It’s a kind of productive, cooperative society in which all work is also closely linked to the creation of community, etc. So, there’s that kind of link between a tradition of the commons and communitarianism and the Basque country. (Álvarez-Blanco, 2020, p. 106)

biltzen eta sistematizatzen dituen saio orokorra egiteke dagoelarik oraindik. Lan honek hutsune hori betetzera etorri nahi luke.

Beharrik, azken aldian, eta eragile anitzen aldetik, gero eta hedatuagoak dira Euskal Herrian berezko eta bertoko sozioekonomia berezi bati buruzko apunteak. Beraz, hemengo helburua da, lehen aldiz, ekarpen horiek biltzea eta sistematizatzea.

Euskal Herria matxinoa eta bertokoaren aldeko borroka

Sakoneko eta zabala den gaia izanik, ikuspuntu askotatik begiratu behar zaio Weberrek, Ostromek, Graeberrek eta abarrek antzeman duten horri. Hasteko, ez ginateke kanpoko autore zehatz batzuk desestali duten sekretu gisako bati buruz ariko, gai hau ez balitz horrela egongo, alegia, beste interes sozial eta teorikoen artean ahazturik edo estalirik. Eta hori, azken batean, Euskal Herria estaturik gabeko herria edo nazioa izateak azaltzen du hein handi batean.

Euskal Herria mendebaldeko Pirinioetan dago kokatua (Espainiako Erresumako Iparraldean eta Frantziako Errepublikako Hego-mendebaldean), 3 milioi baino gehiagoko biztanlerekin (3.193.513; 2.883.840 Hego Euskal Herrian eta 309.673 Hego Euskal Herrian; cf. Gaindegia, 2020), eta bere erresistentzia soziala nazioartean ezaguna egin zen, hamarkada luzez, ETA erakunde sozialista eta independentista armatuagatik (Casanova, 2014; Egaña, 2017). Alabaina, frankismoaren eta kapitalismoaren aurkako erreakzio bortitz hori euskal borroka nazional eta sozial anitzen artean bat baino ez zen izan. Izan ere, herri honetako biztanleriak tradizio luzea du gizarte-erresistentzian, gizarte-ehun trinko batetik eratorria (Ajangiz & Barcena, 2001; Barcena, 2002; Joxemi Zumalabe Fundazioa, 1999; Mugarik Gabe, 2016; REAS Euskadi, 2023; Zubiaga, 2002). Deskribatua izan da “salbuespenezko gizarte zibil” gisa, “hiru milioi biztanlera iristen ez den herrialde batean milaka ekimen eta talde sozial dituelarik”; “gizarte mugimenduen herri” gisa, “Meyer eta Tarrow-en parametroen arabera”; eta “kapital sozial sendoaren adibide” gisa, “Putnam-en definizioa jarraiturik” (Zubiaga, 2014). Horren baitan, goian aipaturiko kooperatibismoa (Soto & Diaz Liseth, 2018), Ekonomia Sozial eta Solidarioa (REAS Euskadi, 2023) eta arnas komunaleko ekimenak (Merkatutik Atera, 2015) bizi-bizi bertaratuak dira.

Hori dela eta, “Euskal-Nafar gizartearen mugimendu sozialen giroaren aberastasuna” eta “gizarte zibilaren protagonismoa, mugimendu sozialak eta sindikatuak barne”, aktiboagoak ikusi dira “inguru hurbileko beste gizarteekiko” (Casquette, 2001). Hona hemen adibide batzuk. Bilbo (ekonomikoki euskal hiririk garrantzitsuena) eta Madril (Espainiako Erresumako hiriburua) alderatuz gero, lehenengoan izandako manifestazio kopurua 8 baino gehiagoz biderkatu da bigarrenaren kopurua (Casquette, 2001; Cruz, 1998). Euskadiko lan-sindikatuak kidetasun-, antolakuntza-kohesio- eta gatazka-maila nabarmen handiagoak dituzte Espainiako sindikatu nagusiekin alderatuta (Las Heras & Rodríguez, 2021); eta, hamarkadetan, ezkerreko mugimendu erradikal batek (Herri Batasunak, gaur egun EH Bildu koalizioko Sortu alderdi gisa) emaitza nabarmenak lortu ditu hauteskundeetan Europako beste herrialdeekin alderatuta (Casquette, 2001).

Mugakide dituen jendarteek baino gizarte ekintzailtza gehiago duen ala ez eztabaidatu dakioke Euskal Herriari, baina ekintzailtza horren munta handiko osagai bat bereizgarria duela argi dago: Estatu espainoleko zein frantsesaren aurkako borroka nazionala (Alonso, 2005; Chamorro, 2009; Navarro, 2003). Horren funtsean delarik bertokoek beren burua bertokotzat hartzen dutela solik, alegia, euskaldun soiltzat eta kultura edo ‘demos’ propiokoak, eta izaera hori beste estatuen baitan baztertuta eta zapaldua sentitzen dutela (Zabalo, J. et al., 2016).

Harira itzuli gaitezen orain, hasierako Weber, Ostrom, Graeber, Ott eta Gehry bezalako harridurara. Herri-Nazio gutxitua izanik Estatu-Nazio boteretsuagoek agintzen dituzten bi eremu politikoetan banatua, Euskal Herriko kultura oso nahasia dagoela ulargarria da. Eta, are gehiago, milurtekoetan zehar jende mugimendu sarriak izan dituen Pirinio Atlantiarretako ertza leunean dagoen herria dela gogoratzen badugu. Baina, hala ere, herri horrek bere kulturaren zenbait dinamika eta arrasto gordetzen ditu, hainbesteko indarrez eta era berezian, kanpoko autore horiek herri honek duen berezitasun deigarria denaz ohartu direla.

Batetik, eta ziur asko, Euskal Herriak bere estatu propioa izango balu, kanpoan arreta deitzen duten alderdi hauek behar beste nabarmenduak eta propagandan jasoak izango lirateke, baina ez da kasua. Esan bezala, bertoko idazleek eta jendeek ez dute oso kontuan izan. Alderdi desberdinak nahikotxo ikertuak daude, eta gero eta gehiago aurki daitezke haietaz argibide teorikoak eta kaleko interesak, baina egiteke dago guztien bilduma eta berrirakurketa egituratua. Gai hau kanpotik nabarmendu izana, barrutik baino gehiago, ulargarria da hein batean.

Bestetik, Europan bertoko kultura asko desagertu dira, oso aztarna gutxi utzirik, Estatu handien menpean; baina Euskal Herriak bere kultura nazionalaren alde egiten duen borroka gihartsua ukalezina da. Gizarte bidezkoagoa eraikitze mugimendu sozial eta ekimen anitz horiengatik, *matxino* gisa ulertuak izan dira egungo euskaldunak (Atutxa, 2022; Olariaga, 2020) eta bere historiako une nagusiak (Apaolaza, 2016; Arrieta, 1976; Chueca & Fernandez, 1997; Egaña, 2017; Sanchez, 2014). Euskal gizarteak inguruko gizarteena baino borroka gogotsuagoak dituen, aipaturiko autoreek iradoki bezala, zalantza-gaitza da, baina Euskal Herrian bertokoa mantentzearen borroka berezia dagoela zalantza-ezina da. Arrotz sentitzen diren estatuen kontra da hein handi batean.

Eta horrela ulertu beharko lirateke Weberrek, Ostromek, Graeberrek eta abarrek antzeman dutena; Euskal Herri matxino batek bertoko izaera mantentzeko duten borroka eta, akaso, joera inkontzienteagatik. Euskararen kasuan gertatzen denaren parekoa litzateke: euskara mantendu bada, ulertu ohi den bezala, bertoko borrokari esker da. Eta Euskal Herri ihardukitzaile honen baitan ikus genitzake antzinako ekonomia eta gizarte sistema berezi baten zantzuak, gaur egun forma berriak hartzen, eta etorkizunari bizirauteko eskaria egiten.

Komunalismoa komundu eta partekatu egiten duten praktika sozialen azpi-gizartea sustatzean datza, antzinetatik horiek gorpuztu dituzten gizarteak ahanzi gabe. Teoriakoagoak diren hitzetan, ondasunen jabetza komunalaren eta horren komunitate-bizitzaren gaineko sistema soziala da. Hortik hasi gaitezke (eta hasi beharko ginatekeen) kanpoko autoreek sumatu dituzten zantzuen mataza askatzen, eta hemengo bertoko eran biltzen eta berrirakurtzen.

Lanaren egitura

Esandakoari jarraiki, egungo Euskal Herriak bizirik mantentzen dituen borroka forma berezi batzuk gogoratzen hasi behar gara, lurpean dakartena begizatzen, eta egungo ikerketekin nola ulertu laguntzen. Horrela izango da lehen hiru ataletan, gero horiek bilduko dituen hurrengo batean amaituz, euskal ekonomia sistemaren bihotz edo motorra jasoz. Hurrengo hiru ataletan berdin egingo da, eta berriz ere horiek biltzekoa etorriko da, kasu honetan euskal gizarte sistemaren bermeei buruzkoa izanik. Segidakoek sistema bakar baten bilduko dute dena, eta sistema hori eztabaidatu. Amaitzeko, beti legez, ondorioak.

1. Auzolana

Egungo 'auzolan' edo lan dohaintza kolektiboak

Herrien bizitzari erreparatzen badiogu, laster nabarituriko ditugu 'auzolan' gisa aurkezten diren lan dohaintza kolektiborako deialdiak. Gehienetan ingurune fisikoa zaintzeko dira (Balmasedako Udala, 2018; Santamaría & Ondikol, 2016; Tolosaldeko Ataria, 2018), eta beste batzuetan zerbitzu komunalak eta kultur adierazpenak dituzte helburu (Mitseltorena, 2013). Adibidea: 2023/11/18an Amezketan auzolan deialdia luzatu zen “Ondarreko langara doan bidea ... txukuntzeko” eta han “ur erretenak egin, bide bazterretako sasi eta adarrak kendu eta oinezko bideen txukunketa egiteko” (Amezketako Auzolan deia, 2023).

Egiten diren azken auzolanak ezagutzen joateko egokia da facebook.com/hashtag/auzolana orria, gaurkotasun biziz eguneratzen delako. Hor ikus dezakegu, besteak beste, berriki Sagastietako Kontzejuko bizilagunek latsagia eta bere ingurua egokitzeko auzolanean egindako lanaren emaitza.

Edozelan, lan dohaintza kolektiboak ez dira eremu lokaletara mugatzen. Eta sarri arrakasta miresgarriarekin, Euskal Herriko historiako zedari bezala gelditu direlarik: Ikastolak, Korrika, Herri Urrats, EH zuzenean... Egia esan, lan dohaintzak gizarte mugimendu guztietan gogotsu ematen direla ikus liteke; har bedi adibide gisa orain urte batzuk Joxemi Zumalabe Fundazioak osaturiko *Euskal Herriko herri mugimenduen gidak* (1999) eta *Demokrazia Komunala Sareko* kasuak (2021) berriki ‘mogimendu sozialen mapeoa’ berritzeko asmoa planteiatu du *Burujabetzaren Aldeko Mogimenduak* (Arbelaitz, 2025). Bigarreneko kasuak dira, adibidez, Gasteizko Alde Zaharreko auzokideen autogestio kolektiboa, Hernaniko aurrekontu parte-hartzaileak, *Auzo!co* sukalde komunitarioa, edo komunitate energetiko lokalak Nafarroako Iruñea, Gares eta Garraldan.

Egungo auzolanak eta lan dohaintzak

Ingurune fisikoa zaintzeko gehienetan

(Balmasedako Udala, 2018; Santamaría & Ondikol, 2016; Tolosaldeko Ataria, 2018),
eta beste batzuetan

zerbitzu komunaletarako eta kultur adierazpenetarako (Larretxea, 2013).

Amezketan 2023/11/18an :

“Ondarreko langaranzko bidean ur erretenak egin, sasi eta adarrak kendu, e. a.

Iturri gaurkotua: facebook.com/hashtag/auzolana

Baina lan dohaintzak ez dira eremu lokaletara mugatzen:

Ikastolak, Korrika, Herri Urrats, EH zuzenean...

Auzolanak zertan diren

Auzolanak auzokideek beren komunitateei dohainik ematen dieten lan dohaintzak dira, azpiegiturak mantentzeko edo hobetzeko zein gizarte-proiektuak egiteko. Tradizionalki auzo mailan jarduten zuten; sarritan, aukerako edo derrigorrezkotzat jotzen zituzten udal-arauek arautzen zituzten (lan dohaintza maila batetatik aurrera diruren bat ordainduz); errepideak, zubiak, iturriak, ur-jauziak eta ibilguak bezalako azpiegiturak eraiki edo hobetu nahi izan zituen; sarri, premia handiko etxe jakinei laguntzeko auzoari dei egiten zitzaion; eta, edonola, balore sozial zabalagoen testuinguruan ulertu beharreko formula da, bere zerizanean batzarretan erabakitzen zelako eta komunalen gainekoa zelako (Mitseltorena, 2011).

Auzolanak auzokideek beren komunitateei dohainik ematen dieten lan dohaintzak dira, azpiegiturak mantentzeko edo hobetzeko zein gizarte-proiektuak egiteko.
Auzo mailan jarduten zuten tradizionaliki;
udal-arauek arautzen zituzten sarritan, aukerako edo derrigorrezkotzat jotzen zituzten (lan dohaintza maila batetatik aurrera diruren bat ordainduz);
komunalak zaintzeko ziren batez ere, errepideak, zubiak, iturriak, ur-jauziak eta ibilguak bezalako azpiegiturak eraiki edo hobetu nahi izan zituen;
premia handiako etxe jakinei laguntzeko auzoari dei egiten zitzaion sarri; eta, edonola,
balore sozial zabalagoen testuinguruan ulertu beharreko formula da, bere zerizanean
batzarretan erabakitzen zelako eta komunalen gainekoa zelako.

Gaur egun auzolanak lan dohaintza arautuetatik borondatezko lanetara jauzi egin dute, eta azpiegituren zaintzatik zerbitzu komunaletara, kultur adierazpenetara eta autokudeaketa proiektuetara pasatzen ari dira, atzeko adibideek erakutsi bezala. Deialdiak ugariak dira, molde berri hauek auzolanaren berpizkundera bizitzen ari garela ematen du.

Erakunde publikoek ere auzolana euskal kulturaren ikonoa bihurtzen ari dutela esan genezake. Eusko Jaurlaritzak bere aurkezpen leloa horren gainean eraiki du urte luzez, eta Nafarroako Gobernuak arreta zerbitzu bateratuak deitzeko erabili du. Hitzak gehiegi erabiliz eta urardotuz, hori ere esateko. Andoni Egañak (2020) salatu bezala: “Inoiz faltako ez dena da auzolanaren aipamena. Entzun berri dut Osasun Kontseilariaren ahotan. Auzolanari esker omen gabilta itxurantzean”, baina “niri, hitzaren gehiegizko erabilpenak ematen dit min. ... Zerbait edukiko itxurazkoa eta hori ere indargabetu egin behar al dugu?”

Edozein kasutan, aro berri baten aurrean garela ere erakutsi lezake auzolanek laguntza teknikoa jasotzen hasia dutela: auzolanak gauzatzeko gida praktikoa egin berria da *Auzolangiltza* izen orijinalaz (Belaunzarán, 2023). Eta, nolatan ez, auzolanaz egina.

Auzolanen berpizkundera?
Molde berrietan, deialdiak zenbakitsuak:
lan dohaintza arautuetatik borondatezko lanetara,
eta azpiegituren zaintzatik
zerbitzu komunaletara eta autogestionatutako proiektuetara.
Erakunde publikoetatik ere:
Eusko Jaurlaritzak aurkezpen leloa,
Nafarroako Gobernuak arreta zerbitzuak deitzeko.
Laguntza teknikoa jasotzen hasia dute, gainera:
auzolanak gauzatzeko gida, *Auzolangiltza*.

Auzolanak ulertzeko: Kapitalismo mozkin-bilatzailerak versus Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Munduaren gehiengoa kapitalista dela pentsatu ohi dugun arren, zerbaitek bereizten badu kapitalismoa kostuetatik haragoko irabazi nahia da. Jabetza pribatu absolutuan oinarrituta, eta epe luzean, etekin gehien ematen duen kapitala metatzean datza koska. Eta, epe laburrean, ekoizpen kostuak gaitzen dituen mozkin gorenaren lortzean. Haatik, eta egia esateko, planetako pertsona gehienak gehiago gidatzen dira, beren truke partikularretan, kostuak estaltzeko eta modu onargarrian bizitzen jarraitzeko logikari jarraiki, kostuetatik haragoko onurari jarraiki baino.

Ryszard Kapuściński *Ebano*-n (1998) oso ondo deskribatzen du jendearen eguneroko bizitza mozkinaz kanpoko logikaren pean dela, Afrikako eremua deskribatzean. Aipatzen duen ‘merkatu eguna’ esanguratsua da, ekoizleak honako aldartearekin bertaratzen direlarik: ‘Gaur merkatura joan behar al gara saltzera? Ondo, baina guretzat jai eguna da; ez gara txiro izatetik irtengo baina eguna bete-betean gozatuko dugu’. Mundu zabalean honelako kasuak senekoak dira; ikus dezagun beste bat. ‘Zaldi bat behar duzu eta saldu diezazuket? Hitz egin dezagun gure bizitzaz eta adostu dezagun bidezko prezioa, biak eskema edo ‘kostu’ berdinetan bizitzen jarraitzeko aukera emango diguna’. Eta azkena. ‘Nahi al dituzu arrain hauek? Berdin da elkar ezagutzen ez badugu, nik nahikoa dut eta emango dizkizut, agian beste egun batean

artoa emango didazu edo agian ez dugu berriro elkar ikusiko, baina gurpil honek beste alderen batean jarraituko du’.

Jakina, pertsona hauek lantegi edo tailerrean lan egiten badute egunaren zati batean langile gisa, baliteke soldata kapitalista bat kobratzea, baina irizpide hori ez da beren bizitzaren ikuspegiaren parte: egia esateko, planetako biztanleriaren gehiengoa ez-kapitalista da. Saihestezina da ekonomia kapitalista mundu osora zabaldu dela, baina beste gauza da haien mozkin-irizpidea eta indibidualismoa neurria berdinean hedatu diren. Hurbilketa gisa, Triandisen (2004) arabera, munduko populazioaren %70 inguru kolektibista zen XX. mendearen amaieran (zehaztasun gehiagorako, Pelham et al., 2022).

Edonola, gai hau da, norbanakoen ikuspegitik, Karl Polanyik gizarte osorako adierazi zuena bere *The Great Transformation* ezagunean (1944). Ekonomia eta bere trukeak gizartearen eremuetatik bereiztea eta, ondorioz, erlazio sozialetatik autonomoa den ekonomiaren balizkoa kapitalismoaren fenomeno da soilik. Kapitalismoz kanpoko gizarteetan erlazio ekonomikoak gizartearen egitura eta haren harreman sozial eta kultural zabalagoetan daude txertaturik, eta ‘ekonomia isolatuak’ ez du gizarte hauen antolamendua islatzen. Hau da, Polanyirentzat, gizarte kapitalisten ‘Eraldaketa Handia’: beren ‘merkatu auto-erregulatuaren’ fikzioa, dena eros daitekeen eta saldu daitekeena, lana eta lurra barne, ekonomia artifiziala ekarriz, ondorio sozial eta ekonomiko negatiboekin.

Mozkinaren bilaketa ‘naturala’ iruditu ohi zaigun arren, alegia, ‘gure giza espeziearen eta, are gehiago, Naturaren beraren tipikoa den’ zerbait, ez da hala. Historian zehar eman diren ia giza gizarte guztiak ez dira izan ez hierarkikoak ez patriarkalak, ez jabetzan eta irabazietan oinarritutakoak ere. Nagusitu direnak hierarkiarik edo jabetzarik gabeko gizarte komunalak edo komunitarioak dira, komunalaren nagusitasuna dutenak, elkarrekikotasuna edo baita ‘opariaren ekonomia’ ere, eta gozamina lehenetsia (honi buruzko klasikoak, Mauss, 1924; eta Sahlins, 1972).

Pixka bat azalduz berezitasunak, horrela da. Komunalaren nagusitasuna: zerbaiten jabetza edonoren do guztiona da, hori lan egiten duenaren edo une horretan erabiltzen duenarena, ez dago jabetza eskubiderik hala ulerturik. Elkarrekikotasuna: zurekin zerbait trukatzeko badut edo zuekin zerbait trukatzeko badugu, berdintasuna egon dadin eta bakoitzak arazorik gabe bizitzen jarraitu dezala bilatzen dut eta bilatzen dugu. Eta, harreman estuan, ‘opariaren ekonomia’: soberan geratu zaidan edo gehiago nahi ez dudana hau har ezazu lasaian, berdin du, zuri gehiago lagunduko dizu, ez da ordainketarik edo trukerik behar, gaur zurekin egiten ari dudana gauza bera bihar edo batek daki noiz nirekin egiten egongo da norbait. Azkenik gozamina lehenetsia: denboraren zati txikia egiten da lan eta asko ospatzen da, eta lana ere gozamen eta errespetutzat hartzen da, merkatura joaten garenean edo lurrari hazia sartu aurretik baimena eskatzen diogunean bezala.

Joera gizatiar hau ez da erabat desagertzen kapitalismoaren baitan. Mozkin bilaketa itsu, hotz eta automatikoaren aurrean betidanik egon da presente ekoizpena, merkataritza eta finantzak bihotzarekin egiteko bulkada. Ekimen desberdinak adigai desberdinekin bilduak izan dira azterketa ekonomikoan, hala nola, ‘mutualism’, ‘associative economics’, ‘community economies’, ‘social economy’ eta abar, baina gaur egun ‘social and solidarity economy’ gailentzen ari da.

Ekonomia Sozial eta Solidario (ingelesez ‘Social and Solidarity Economy’) gisa ezagutua da oro har, eta gaur egun, ‘a broad set of organizations and enterprises that are specifically geared to producing goods, services and knowledge, while pursuing economic and social aims and fostering solidarity’ (United Nations, 2014), ikuspegi eta ekimen anitz bildurik bere baitan (besteen artean, Amin & Thrift, 2009 ekonomia sozialaren ikuspegi

orokorrerako; eta Kawano et al., 2009 ikuspegi zehatzetarako eta kasuetarako). *Ekonomia Alternatibo eta Solidario* (EAS) da egun gailentzen ari den beste etiketa.

Ekimen nagusiek biltzen dituzte, hala nola, kooperatibak (horien mugimenduak historia luzea dauka eta ESSren oinarrietako bat da), antzinako artisautza gunek (kapitalismoan mantendu direnak eta ESSko oinarriekin bat datozenak), elkarte-ekonomia (elkarlanean ekintza ekonomikoak egiteko), ekintzailtza edo enpresa-sorkuntza soziala (ingelesez ‘social entrepreneurship’, espainieraz ‘emprendimiento social’; arazo sozialak leuntzeko enpresa ereduak), bidezko merkataritza (benetako kostuak ordaintzeko diseinatua, batez ere herri azpi-produktiboekin), komunitate garapena (bertoko proiektu eta enpresekin komunitatearen ongizatea erdiesteko), mutualismoa (elkar laguntzan oinarria mantendu duten sorospen, segurantza edo kreditu erakundeak) edo gizarte mugimenduak (lan eta gizarte eskubideen aldeko borrokek ESSa sendotu dute).

Esparru zabal honetan irizpide zehatzagoak dituzte *Partekatze Ekonomiak* deitzen direnak, eta are zehatzagoak dira oraindik *Komunen Gizarteak* izena jasotzen dutenek, behean xehetuko den bezala. Eta hauetan da lan prestakizun komunitarioak gako eta erro izan direla, ziur asko mundu zabalean: euskal auzolana dugun, baina baita germaniar *gewerea*, asturiar *andecha*, mexikar *ejidoak*, boliviarr *mingak* edo brasildar *quilomboak* (Lloredo, 2020). Nola? Ikus dezagun euskal kasua.

2. Batzarrea

Egungo Batzarreak eta Batzarre berrien sorkuntza

Batzar, *Batzarre*, *Biltzar*, *Kontzeju*, *Sindikatu*, *Kofraixa* eta inguruko terminoak erabili dira Auzolanak koordinatzeko edo Komunak partekatzeko erabakiak hartzen diren batzarrei, eta hoberen biziraun dute Nafarroan, Euskal Herri historikoen erdialdean, gertu dagoen Arabako Hego-mendebaldean, eta Iparraldean (Homobono, 2015; Murray, 2016; Sastre, 2013; Welch-Devine, 2016). Gradu desberdinetan, kasuak dira Arabako herrien Kontzejuak, Otxandioko Herritarren Kontseilua, Aezkoako eta Baztango Batzarrak, eta Baigorriko edo Xiberoako Sindikatuak; eta modu leunena lirateke Bizkaiko eta Gipuzkoako kofraixak, oso erabaki-gune mugatuarekin.

Ohitura honen lekukoa jaso du ere Lakabe herriko asanbladak, eta beste kasuetan, Zerainen bezala, urteetan zehar udal hauteskundeetara herriko batzarrak adosturiko zerrenda aurkeztu da, egungo egitura estatal eta partidista hori benetan herritarra egiteko asmoz.

Ahalmen hau galdua den beste leku askotan, bere bulkada lurpean da lanean, antolaketa berriak eta beraien erabakimenak sustatuz, Gasteizeko Alde Zaharreko ‘berreskuratze herritar eta komunalean bezala. Egin Ayllu (2014) kolektiboak dokumentatu bezala, Gasteizen eta Euskal Herrian aktibo zirela ‘auzoak’ Behe Erdi Arotik, komunitate parte-hartzaile gisa, gainerako European beste formula batzuekin bezala, eta egungo formula aktibista eta komunitarioak horien oinordeko dira. Asanblada-erakunde hauek identitate kolektiboak sortzen zituzten (eta dituzte) elkartasun eta jai loturen bidez, taldekideek ondasun publikoak konfiguratzeko zituztelarik gizarte-jardueren bidez. Taldea kideak baino lehen existitzen zela onartzen zen, eta komunitateko ondasunekin harremanek eta komunitateari emandako lanek ez zuten gizarte modernoan indibiduo-kolektibo gatazkarik.

Antolaketa modu hau piztu nahi dute zenbait mugimendu sozialek, hala nola *Biltzarre* plataformak, *Burujaibetza-Demokrazia Zuzena* ekimenak, *Demokrazia Komunal Sareak*, *Herribiltza* mugimenduak, eta *Auzolan ekimenak*. Erabakiak ahal denik eta gehien herritar parte-hartzaileen Batzarrearen esku utz dadin nahi dute, Errusiar Iraultzan aldarrikatzen

zenaren berdintsu; ‘Botere guztia Batzarrei’ izango litzateke oraingoan leloa. Adibidez, *Biltzarre*ren eskutik Urdaibaiko edo Lea-Artibain Batzarre aldarrikatzaileak daude (ez dute erabakimenik baina hori herritarrei beren esku utz dakien aldarrikatzen dute), eta plataforma horrekin harremanean sortu zen *Burujabetza-Demokrazia Zuzena* ekimenak Aiako Batzarreak Zeraingo sistemara gerturatzea lortu du (ez dute udalaren kontrola, baina Batzarrearen bozeramalea den zinegotzia bai).

Egoera honetara hausnarketa politiko eta pertsonalen ondoren heldu dira. 2023ko udal eta foru hauteskundeak zirela eta, bi joera gorpuztu ziren *Biltzarre*ren inguruan batzen ziren sentiberatasunetan. Batetik, *Burujabetza Demokrazia Zuzena* ekimenak batzarreak sortzea eta funtzionatzea proposatzen du, udalean zinegotzi edota alkate hautatuek batzarreen erabakiak instituzioetara eramanez. Sistema hau Zerain eta bestelako herrietan urte luzez existitu izan dena da, eta Aiako udalean ordezkariak edo, hobeki esan, zinegotzi baten bidezko bozeramailatza lortu zen. Bestetik, *Izan Auzokrazia* mugimenduak ‘alderdi politiko aterki’ bezala funtzionatu nahi du, alegia, batzarreen erabakiak instituzioetara eraman baina partidu baten bidez. Kasu honetan, *Stop* partiduaren sistema da, azken honek mugimendu sozialen aldarrikapenak instituzioetara eramateko ‘partidu aterkia’ delarik.

Demokrazia Komunal Sareak eta *Herribiltza* mugimenduak batzarren koordinazioak fokatzen badituzte gehiago beren dokumentuak, praktikan batzarren sorkuntza ezinbesteko baldintza litzateke beraiantzat, bestalde senekoa denez. *Auzolan ekimena*, fokatuagoa dirudien arren, bide beretik doa. Auzolanaren kultura (‘kultura’, ez bakarrik ‘lan dohaintza zehatzak’) indarberritzeko sortu zen. Herrietan nola eskualdetan beregaintasun handiagoa berreskuratzeko xedea du, tokian tokiko burujabetza lortuz, eskualdekoekin elkarlotuz eta atzerrikoekin saretuz.

Egungo Batzarreak eta Batzarre berrien sorkuntza

Batzarrea Iparraldeko, Nafarroako eta Arabako toki anitzetan zenbait gai herritarrek batzarrean erabakitzeko ohitura.

Gradu desberdinetan, Arabako Kontzejuen Elkarteak, Otxandioko Herritarren Kontseilua, Aezkoako eta Baztango batzarrak edo Lakabe.

Zeraingo formula: herriko batzarrak adosturiko zerrenda aurkeztu udal hauteskundeetara, batzarrea han islatzeko.

Batzar, Batzarre, Biltzar, Kontzeju eta inguruko terminoak erabili dira horiek deitzeko. Antolaketa modu hau piztu nahi

Biltzarre plataforma, ***Burujabetza-Demokrazia Zuzena*** ekimena ***Demokrazia Komunal Sarea***, ***Herribiltza*** mugimendua, eta ***Auzolan ekimena***.

‘Botere guztia Batzarrei’.

Adibidez, *Biltzarre*ren eskutik Urdaibaiko edo Lea-Artibain Batzarre aldarrikatzaileak *Burujabetza-Demokrazia Zuzena* ekimenak Aiako Batzarreak Zeraingo Sistema zinegotzibaten bidez

Batzarrea

Batzarrea toki bateko (auzo, udal-barruti edo bailarako) etxeen batzar irekia da (‘etxeek’ sendiak edo familiak gorpuzten dituzte, eta askotan ‘su’ gisa zehazten ziren arauetan), tokiko gaiak kudeatu eta gobernatzeko; adibidez, auzolanak deitzeko eta koordinatzeko edo komunak nola partekatu erabakitzeko.

Frantses Iraultzan Ipar Euskal Herriko Biltzarrak baliogabetu zirenetik (1879tik hasita), eta Karlismaldaren ostean hego Euskal Herrikoekin berdin egin zenean (1876tik hasita), Batzarreek auzoen ordezkariak funtzioa galdu zuten instantzia handienetan, baina tokian tokiko erabaki askotarako bizirik iraun zuten.

Erdi Aro goiztiarrean Batzarreek eskumen edo jurisdikzio guztiak zituzten eta, horrela, kolektibitatearen alderdi guztietara iritsi ziren: komunalak eta berentzako auzolanak, eta defentsa militarra ere bertoko foruek zehaztu ohi zuten (ikus behean, milizia herritarrak

aztertzean). Atzerago oraindik, Batzarrea erromatarren garaia baino lehenagoko arbasoen gizarte-erakundea dela onartu ohi da (Azparren, 2013). *Bizkaiko Foruek* (1452) gogoratu bezala, Gernikako zuhaizpean “Antzinate urruneko ohitura zen bilerak egitea” (“era costumbre antiquísima hacer Junta”).

Demokrazia Zuzena zen Ohitura zuzenbide hau: foru nagusiak foru lokaletatik eraikitzen ziren. Adibidez, Nafarroako Foru Zaharra Jakako (Lizarrako zein Iruñeko bertsioetan), Tuterako, Logroñoako, Viguera-Val de Funeso eta La Novenerako foruak orokortuz egin zen hein handienez (Fortún, 1985, 603. orr).

Auzoak antzina zuzentzen azpian biltzen ziren (Uztaritzeko haritza ere ezaguna da), eta gerora Elizapetan (erabakimena zuten eskualdea ‘elizate’ edo ‘anteiglesia’ izena hartu zuelarik azkenik) (Sastre, 2013). Baina zuhaizpeek iraun zuten: “arraroa da antzinako eta Erdi Aroko euskal historiaren barruan batzar publiko bat egitea, zuhaitz agurgarri baten gerizpean babestu gabe”, eta esangura sakona da: “herritar arruntak zuhaitz tradizionalaren azpian biltzen dira, noblezia eta elizgizonak sarbide mugatuko leku itxietan egiten dutenen aldean” (Estornés, 2024).

Ez da erraza arbasoen eran hau ulertzea, baina Bittor Kapanagak (1985) jartzen gaitu haien orpotik ibiltzen: “haritza eta lizarra ez dira bedeinkatu behar, jadanik sakratuak direlako, Barandiaranek jaso zuten bezala”, eta “zuhaitz sakratu baten azpian hartutako erabakiak sakratuak dira”

Besteak beste, Lapurdiko Biltzarrak Uztaritzen batzen ziren Kapito-harri tokiko Aitze hariztik haritz zahar berezi baten azpian, Zuberoako hirugarren estamentua Libarrenx basoan ala Litxarre-ko intxaurrondo zahar baten azpian, Zornotzako mankomunitateak Larrabetzun Aretxabalagañeko zuhaitzaren azpian, Enkarterriko Batzarrak Avellanedako zuhaitzpean, Durangoko Merindadea, Arcentaleseko Udala Rebolla del Concejo izeneko haritzaren azpian bildu zen, Markinako Merindadeak Sagastiguren zuhaitzaren azpian, eta abar, Bizkaiko Biltzar Nagusiak batzen ziren Gernikako haritz ezaguna ahaztu gabe (Estornés, 2024). (Bitxikeria gisa, ‘Gernikako Arbola’ gisa ezagutua dena Gernika-Lumon dago, bai, baina Gernikan ez, Lumoko Saraspe auzoan baizik).

Batzarreak ulertzeko: Zuzeneko Demokrazia, behetik-gorakoa

Zuzeneko Demokrazia, beste izenetan *behetik-gorakoa* edo *partehartzailea*, ‘benetako demokrazia’ gisa hartua izan da, edozein erabakimen maila, lokala zein eskualdekoa edo nazionala, bertokoen eta norbanakoen erabakietatik eraikitzen dela adierazteko (Holland, 2007; Leonard & Sunkara, 2016; Stoecker & Tryon, 2009; Wolff, 2012). Botere politikoa eta erabakitzeko ahalmena ahal denik eta deszentralizatuen dago, alegia, maila lokalean hartuko dira, eta eremu zabalagoetan maila lokaletik datozen erabakietatik osatuko da hartzekoa den azken erabakia. Ez dago hauteskunderik estatu mailako, eskualde mailako edo maila lokaleko ordezkariak aukeratzeko, gero haiei ematen zaielarik erabakimena.

Formula asko daude, baina amankomunean dute norbanakoei ematen zaiela hitza eta botoa, haiei eragiten dieten edozein gaitan. Era tradizionalan herritarrek komunitateko bilkuretan fisikoki parte hartzean lortzen dute erabakimena, baina teknologia digitalek partaidetza gorpuzteko aukera anitz ematen du. Edozein kasutan komunitate-kide guztien ekarpena baloratzen da, haien estatus sozioekonomikoa, jatorria, genero edo beste faktore pertsonalez landa.

Erabakiak hierarkiaren gailurretik ezarri beharrean, komunitateko kideen ekarpen kolektiboetatik sortzen dira. Norbanakoak bere komunitatean hitza eta botoa duen bezala, komunitate lokalek hitza eta botoa dute maila zabalagoetan.

Ekintza Zuzena deitua dena demokrazia zuzen honekin lorturik dago (Boyd & Mitchell, 2013; Graeber, 2014b; Shaw, 2013). Hierarkiek gure erabakimena zapaltzen dutelarik, askatasuna eta komunitate antolamendua aldarrikatzen da, muturreko taldeek protesta gogorak eta biolentzia erabiltzera ailegatzen direlarik.

Batzarreak ulertzeko

Zuzeneko Demokrazia, beste izenetan *behetik-gorakoa* edo *partehartzailea*, edozein erabakimen maila, lokala zein eskualdekoa edo nazionala, bertokoen eta norbanakoen erabakietatik eraikitzen dela adierazteko. Estatus sozioekonomikoa, jatorria, genero edo beste faktore pertsonaletaz landa. **Norbanakoei** ematen zaie hitza eta botoa haiei eragiten dieten edozein gaitan. Era tradizionalan komunitateko bilkuretan fisikoki; teknologia digitalek partaidetza zabaldu. Erabakiak hierarkiaren gailurretik ezarri beharrean, komunitateko kideen ekarpen kolektiboetatik sortzen dira. Norbanakoak bere komunitatean hitza eta botoa duen bezala, komunitate lokalek hitza eta botoa dute mail zabalagoetan. **Ekintza Zuzena** delakoan hierarkiek gure erabakimena zapaltzen dutelarik, askatasuna eta komunitate antolamendua aldarrikatzen da, muturreko taldeek protesta gogorak eta biolentzia erabiltzera ailegatzen direlarik.

3. Komunalak

Eguno Komunalak eta beraien aztarnak

Nafarroako Baztanen lurren %80 baino gehiago komunalak dira, eta Oztibarre, Garazi, Baigorri, Amikuzeko Oihana eta Xiberuako sindikatu mistoek lursail handiak kudeatzen dituzte, Xabier Larralde (2023) dioenez, eta “Euskal Herria, Komunalen Herria” dela aldarrikatu du. Oro har, komunalek tradizio handia dute euskal lurraldeetan (Murray, 2019; Urrestarazu, 1985). Zentzu tradizional honetan hitz egiten denean ‘komunalei’ buruz, ‘jabego komunala edo komunitatearena duten lurrei’ buruz ari gara, haran, mendi edo bailaren kasuan, eta han bizi diren jendartearen esku, belaunaldi desberdinek osatuak kontsideratuz.

Hori da ohiko zentzua baina, egia esateko, ondare komunala hainbat herri mugimenduk eratu du. Esanguratsuen, ziur asko, *Ikastolen* mugimendua da, eraiki eta mantendu behar duen ondarea garestia delako, bide batez esateko, eraikinak. Auzo autokudeatuak, *Errekaleorrek* bezala, eta gaztetxe askok nahiko luketen helburua da, nahikok lotu duelarik (Gernikako *Astrak* esate baterako).

Eguno Komunalak Nafarroako Baztanen lurren %80 baino gehiago komunalak dira, Oztibarre, Garazi, Baigorri, Amikuzeko Oihana eta Xiberuako sindikatu mistoek lursail handiak kudeatzen dituzte.

Xabier Larralde (2023) “Euskal Herria, Komunalen Herria”

Oro har, komunalek tradizio handia dute euskal lurraldeetan (Murray, 2019; Urrestarazu, 1985).

‘**Lurrak** jabego komunalekin’ dira zentzu tradizioan ‘Komunalak’, haran, mendi edo bailaren sailak han bizi diren jendartearen esku, belaunaldi desberdinek osatuak kontsideratuz.

Bestalde, ondare komunala hainbat herri mugimenduk eratu du.

Esanguratsuen, *Ikastolen* mugimendua da, eraikinekin.

Gaztetxe batzuek lortu dute ere (Gernikako *Astrak*).

Komunalak

Komunalak herri-jabegoak dira (ingelesez ‘the commons’), hau da, jendarte jakin baten zaintza, kudeaketa eta jabetza duten bizibide eta baliabide naturala. Benjamin Coriat-en arabera (2015), commons-ak araututako sarbide partekatuko baliabideak dira, erabiltzaileen komunitatetik datozenak, komunitateak baliabideen osotasuna eta berritzea bermatzea duelarik helburu.

Komunalek tradizio handia dute euskal lurraldeetan, eta garrantzi handia bertoko sistema sozioekonomikorako, hein handi batean auzolanak haien mantenurako deitzen

direlako, eta Batzarreak haien kudeaketarako. Gizaldietan ‘jabetze’ edo lapurreta feudal eta kapitalistak jasan arren, komunalak pisu garrantzitsuarekin mantendu dira euskal lurraldeetan (Murray, 2019; Urrestarazu, 1985), eta gizartean beraien filosofia mantendu da hein handian, batez ere mugimendu sozialen ondare eraikuntzetan islatzen dena (goian ikusi bezala).

Borroka, hala ere, ez da leuna izan. Agosti Xahori buruzko biografian, Zabalok (2004, 138. orr) euskal mito anitz erlatibizatzen ditu, baina zera dio herri-jabegoei buruz: “Antzinatek, eta gaur egun ere, euskal nekazaria oso sentibera da gai honekin”, alegia, “lur komunalen erabilera librearekin, artzaintza eta basoen erabilera askatasunarekin”, eta “[Estatuko] basoen kudeaketa eta ustiapenaren aurka dago”. Borroka, garai horretan, honela zegoen: “Armendaritzeko bost gizon eramán zituzten epailearengana, administrazioko hainbat agenteri eraso egiteagatik”, handik gutxira, “Donapaleuko 21 lagun espetxera joan ziren antzeko ekintzengatik”, eta “Donaixti-Ilbarren emakumeak dira basozain bati min egin diotenak”. Xahok bere aldetik ekin zion ere: “euskal tradizioari eusteko kanpaina sutua garatzen du, Iholdiren aholkulari nagusiarekin, Dindaburu errepublikanoarekin, lankidetzan estuan. Parisera doa ministerioetan euskal kantonamenduen alde egiteko”.

Azkenean, Zabalok (2004, 138-139. orr) dioenez, Xahok eta bere lagunek “garaipena lortzen dute, ... eskualdeko baso berritzeari buruzko salbuespena gehitu zitzaielarik Gobernuaren proiektuei”, eta “borroka horretan lorturiko ospeagatik lortu zituen Xahok hainbeste boto hurrengo hauteskundeetan”².

Iparraldekoa ez da salbuespena. “Duela bi belaunaldi bakarrik, gutako edonor senti zitekeen identifikatuta jendearen ondasun komun eta pertsonalen gaiarekin”, eta “gizarte-arazorik beroena izan zen, gutxi gorabehera 1880tik 1936ra; ... eta giltza politikoa Napoleonen Gerretatik Frankismora”. Are gehiago, “hamarkadetan zehar komunen gaia izan liteke Nafarroako lurralde identifikazio elementuetako bat, beste marka handi batzuen parean, hala nola katolizismo soziala, euskalgintza kulturala edo tradizionalismo politikoa” (bi esaldietarako, Gastón, 2010, pp. 7-8)³.

² Lerro hauen iturria: “el libre uso de los comunales: la libertad de pasto y de utilización de los bosques. Desde tiempos inmemoriales, y todavía en la actualidad, el campesino vasco es extremadamente sensible a esta cuestión ... se opone a la ordenación y explotación [estatal] de los bosques. Xaho resultó elegido en un momento en que el problema estaba en su apogeo. Cinco hombres de Armendaritz comparecieron ante la audiencia por haber agredido a varios agentes de la administración. Poco más tarde fueron a prisión 21 personas en Donapaleu por actos análogos. En Donaixti-Ilbarre son las mujeres las que hieren a un guarda forestal. Xaho desarrolla una ardiente campaña por el mantenimiento de la tradición vasca, en estrecha colaboración con el consejero general de Iholdi, el republicano Dindaburu. Se dirige a París para apoyar la causa de los cantones vascos en los ministerios. Finalmente, él y sus amigos consiguen la victoria para su causa. En mayo de 1849 queda añadida a los proyectos del Gobierno una derogación concerniente a la repoblación forestal de la región”. (Zabalo, Joseph, 2004, 138. orr)

³ Lerro hauen iturria: “[S]olo hace dos generaciones cualquiera de nosotros podía sentirse identificado con ... el tema de los bienes comunales y propios de los pueblos. ... [F]ue el aspecto social más candente a lo largo de cincuenta años, desde 1880 aproximadamente hasta 1936; ... llegó a ser una clave [política] desde las guerras napoleónicas hasta el franquismo. ... Durante décadas el asunto de los comunes pudo ser ... en Navarra uno de los elementos de identificación visibles en este territorio, en pie de igualdad con otras grandes marcas como el catolicismo social, el vasquismo cultural o el tradicionalismo político (Gastón, 2010, pp. 7-8)

Garrantzitsua da ‘zaintza’ eta ‘kudeaketa’ hori, komuna ez da baliabide fisiko soila gizatalde edo erkidego zehatz baten probetxurako, belaunaldien artean eta hurrengo belaunaldietarako zaintzen den bizibidea baizik (Ott, 1993, 1994). Hobeki uler liteke hori, euskal ‘jabegoa’ indoeuropar ‘propietatea’ ez dela gogoratzen badugu: ‘jabegoa’ ‘jagon, zaindu’ egiten dena da, hots, ezer ez da zurea zaintzen eta lantzen ez baduzu. Horri euskarria ematen dioten isla anitz ditugu euskal kulturari; adibidez, ‘etxea ez da zuretzat, zu zara etxerako’ esakera zaharra, edo baserriko eremuan lanak eta zaintzak gogor egin eta gero ‘ah, zer jabegoa eman diogun etxeari!’ baieztapena.

Oso garrantzitsua da, bide batez, honakoa. Komunalak ez dira ‘publikoak’; ez dira estatalak. Ez dira baliabide pribatuak, jakina, baina ez dira ere baliabide ‘publiko, estatal’ kontsideratu behar. Ez daude estatuaren agintarien eta agintari horien atzean dauden enpresa interesen esku; bertoko jendartearen esku eta eskumen dira (Rodrigo Mora, 2022). Elinor Ostromek, bere azterketak eskema neoklasikoetan ohikoak diren terminoetan eman arren, horregatik lortu zuen Nobel saria, merkatua eta Estatuaren artean, komunalen ustiaketa tokiko komunitateen eskuetan uzteak horien kudeaketa modurik eraginkorrena dakarrela erakustegatik.

Komunalak herri-jabegoak dira (‘the commons’), jendarte baten zaintza, kudeaketa eta jabetza duten bizibide eta natur baliabidea.

Ez dira baliabide fisiko soila, belaunaldien artean eta hurrengo belaunaldietarako zaintzen den bizibidea baizik (Sandra Ott).
. ‘jabegoa’ ← ‘jagon, zaindu’ (‘etxea ez da zuretzat, zu zara etxerako’; ‘ah, zer jabegoa eman deutsogun etxeari!’).

Ez dira ‘publikoak’; ez dira estatalak. Ez daude estatuaren agintarien eta agintari horien atzean dauden interes enpresarialen esku; bertoko jendartearen eskumen dira (Rodrigo Mora).

Egun ‘euskal komun’en adigaiak zabaltzen ari da gizartean, auzolanekin gertatu den bezala. “Komun bezala izendatuak ez izanik ere, Euskal Herriko anitz egitura eta praktika horrela identifika ditzakegu: lurzaindia, tokiko moneta, lur komunaren kudeaketa, etab.” dio Etnopolek (2023), eta “baliabide partekatu” gisa definitzen ditu. Honek bat egiten du mundu osoan ematen ari den bilakaerarekin: commons-ak gero eta gehiago digitalak eta irekiak dira, hauek dira ‘digital commons’ gisa ezagutuak direnak. Ezagunena (eta zabalena) Wikipedia da. Baliabide komuna gisa kontsideratzen da egun, denek ekarpenari esker eraikia logika pribatuari bizkar emateko.

Komunalen gaia, dena den, ez da komunaletan agortzen, kontraesana dirudien arren, beraien filosofia harago doalako, behean sakonduko dugunez.

‘Euskal Komun’en adigaiak gaur egun: zabaltzen ari da, auzolanekin gertatu den bezala.
“Lurzaindia, tokiko moneta, lur komunaren kudeaketa, etab. = baliabide partekatu” (Etnopol).
Eusko moneta = Wikipedia bezalakoa, digital commons...

Komunalak ulertzeko: Banatze Ekonomiak eta Komunak

Auzolanak ulertzeko orduan Kapitalismo mozkin-bilatzailea *versus* Ekonomia Sozial eta Solidarioa eremu zabalaren arteko dikotomiaz aritu gara. Azken eremu zabal honetan praktika ekonomiko alternatiboak, eta inguruko mugimendu sozialak are gehiago, lan dohaintzen eta erabakimen parte-hartzailearen indar handia dute, auzolanek eta batzarrek erabat islatzen dituzten berezitasunak direlarik, hurrenez hurren. Komunalen kasua murriztagoa da. Lan dohaintza eta erabakimena praktikan jartzen errazagoa izan liteke, baina ondare fisikoa sortzea eta mantentzeak energia iraunkorrak behar ditu. Komunaren gaiak ulertzeko adigaiak dira, gaur egun, banatze eta komuntze ekonomiak deitu genezakeenak. Azken hamarkadetan adigai hauek kanpoko beste batzuekin nahastu dira, eta denbora pixka bat behar du esparrua argitzeak.

Banitze Ekonomia (ingelesez ‘sharing economy’) deitzen zaio, egungo literatura akademikoan, sare digitaletan sortu barriak diren negozio-eredu, plataforma eta truke-multzo zehatzen multzoari (Cullen & Farronato, 2014) eta, autore askorentzat, harreman kapitalisten gaietan jar litezke gizaldiaren erdialderako (Montalban et al., 2019; Rifkin, 2015). Produktu baten jabetza lortzeko hartzen den merkatu tradizionalen dirua den bitartean, ekonomia banatzeko esparruak produktu edo zerbitzu baterako aldi baterako sarbide-eskubideekin balioa atzematearen onura dakar.

Banitzea merkatuaren trukean eta opariak ematean azpimarratzen den jabetza pribatuaren alternatiba da. Elkarbanatzean, bi pertsona edo gehiagok gauza bat edukitzeak dakartzan onurak (edo kostuak) goza ditzakete (Belk 2007:127).

‘Sharing economy’ delako honek izugarrizko hedakuntza izan du azken hamarkadetan eta, horri loturik, arreta akademiko handia. Adibide ezagunak, akaso ezagunenak, AirBnb eta Uber dira. Literatura modernoan ‘partekatze-ekonomia’ deritzona “lineako parekoen arteko merkatuek” osatzen dute, “jabeek arrotz bati erabiltzen ez duten zerbait alokatzen edo partekatzen dutelarik (adibidez, auto bat, etxea) edo beraiek zerbitzu bat eskaintzen dutelarik” (Cullen & Farronato, 2014). Sektore berri honek “erosleen eta saltzaile erdi-profesionalen artean zerbitzuen eta azpi-erabiltzen diren aktiboen trukea errazten du” (Fradkin et al., 2015). Beste termino batzuk “kolaborazio-ekonomia” edo “kolaborazio-kontsumoa” (Botsman&Rogers, 2010), “sarbide-ekonomia” edo “sarbidean oinarritutako kontsumoa” (Bardhi eta Eckhardt (2012), “peer-to-peer ekonomia”, “plataforma-ekonomia” edo “gig economy” dira. Sektorean gero eta gehiago nagusitzen dira Airbnb, Uber edo TaskRabbit bezalako plataforma handiak (Sundararajan, 2016) eta, autore batzuentzat, baliteke kapitalismoaren aro berri bat ekartzea (Montalban et al., 2019)⁴.

Alabaina, plataforma digitaletan oinarritutako partekatze-ekonomiaren gorakada-fenomenoari buruzko ikerketak literatura kanonikoak aztertutako partekatze-eredu tradizioaletatik aldendu dira, biak bilduz bost partekatze mota bereizi genezakeelarik (Renteria-Uriarte & Oner-Kula 2023): *sharing for money* (airbnb diruagatik soilik, adibidez), *sharing for money & values* (uber edo blablacar jendea ezagutzeagatik edo balore ekologikoengatik, esate baterako), *sharing for values* (atzekoaren parekoa baina zio bakarra balore sozio-ekologikoak direlarik), *commoning* (edo ‘sharing for values for the future’) eta *gifting* (hau delarik ‘sharing without any or immediate return’). Zera da partekatze ekonomiari buruzko egungo literaturak lanabes digitaletan jartzen duela arreta eta partekatze gisa hartzen dituela lehen biak, alegia, dirua tartean denean, ‘sharing (just) for money’ onartuz.

Aitzitik, literatura kanonikoak kontsideratzen duena da batez ere ‘commoning’ delakoa edo, kasu batzuetan (Kula eraztuna, Potlatch, eta abar), ‘gifting’. Eta hori egiten du ez berariazko erabaki partikular batengatik, mundu zabalean ezagutu diren kasuak horrekin hori

⁴ Ingelesezko terminoak honakoak dira: “online peer-to-peer marketplaces” where “owners rent or share something they are not using (e.g., a car, house) or provide a service themselves to a stranger” (Cullen & Farronato, 2014). Sektoreak “facilitates the exchange of services and underutilized assets between buyers and semi-professional sellers” (Fradkin et al., 2015). Beste terminoak dira ‘collaborative economy’ or ‘collaborative consumption (Botsman&Rogers, 2010),’ ‘access economy’ or ‘access-based consumption (Bardhi and Eckhardt (2012),’ ‘peer-to-peer economy,’ ‘platform economy,’ ‘gig economy’.

egiten dutelako baizik. Azkenik, sena ere badirudi tradizio akademikoarekin lerrokatzen dela gehiago: diru truke ‘partekatzea’ ez al da, benetan, ‘alokatzea’?

Izatez, partekatze ekonomiak eta gizarteak ez dira zerbait berria eta digitala besterik ez; ikerlariak ia mende bat daramate haiek aztertzen. Jendeak gizarte primitiboan hasieratik (Mauss, 1924) elkarbanatzeko praktiketan oinarritu ditu ekoizpena eta trukeak hainbat arazoirengatik. Banatzea komunztadura-ekintza gisa ulertzen du, baita opari gisa ere, balio ez-monetarioen gaineko trukeak egiteko, balio hauetan nabarmenena elkarrekikotasuna (literaturan ‘reciprocity’) delarik. Horrela, banatzearen kontzeptu kanonikoak merkatuko preziorik gabeko elkarrekiko jarduerari egiten dio erreferentzia, moneta irabazirik gabe, gizarte-balio batzuen esparruan (Mauss, 1924; Sherry, 1983), literaturaren ildo oparo batean mantendu den zentzuan (Ostrom, 1990b).

Literatura honek argi uzten du, plataforma handien marketin-ahaleginak izan arren, elkarbanatzea ez dela zerbitzuak okupatu gabeko baliabide pribatuekin alokatzea edo saltzea. Hitz gutxiagotan, “diru gehiago irabazteko partekatzea ez da partekatzea” (Arnould & Rose, 2016; Belk, 2014) edo “partekatzea ez da saltzea” (Ravenelle, 2017).

Ikerketa-lerroa honen jarraitzaile ospetsuena Elinor Ostrom da, ekonomiako Nobel Saria jaso zuen lehen emakumea. ‘Komunak’ edo baliabide amankomunak kudeatzeko sistemak ikertu zituen anglo-saxoi mundu akademikotik, elkarrekikotasuna, konfiantza eta lankidetzak sistemak direla deskribatuz (Ostrom, 1990; Ostrom & Walker, 2003; Poteete, Janssen eta Ostrom, 2010). Zenbait xehetasun nabarmendu zituen. Adibidez, kudeaketa kolektiboaren balio horiek borondate pertsonaletik independenteak direla. Inor talde horretakoa bada, obeditu edo errespetatu egiten da, berekoikeria edo txartelik gabe ‘free rider’ izateko egon litezkeen gogoen gainetik.

Komunak edo *Komunen Gizarteak* (ingelesez ‘the commons’) baliabide natural edo eremu sozial baten autogestio kolektibo gisa definitzen dira, erabiltzaileen komunitate batek, mekanismo eta balio kolektiboek jarraituz; eta *komuntzea* (‘commoning’) balioekin elkarbanatze hori dakar, ia beti opari maila garrantzitsuarekin (elkarrekikotasunarekin), eta normalean etorkizun komunerako, hau da, etorkizuneko kontsumo eta ekoizpen baliabidetarako (Renteria-Uriarte & Oner-Kula 2023):

Komuna, ente politiko bat izatetik hara, lokarri-kualitate bat da, munduan izateko era bat, komunitate bateko bizilagunen elkar sostengatzeko zina: elkar lagundu, elkar zaindu eta elkar defenditzeko zina (Sastre, 2019, 5. orr).

‘Nola elkarbanatzen dugu’ ezin dugu isolatu ‘nortzuk garen’etik, beste era batean esateko, eta Polanyik (1944) ekonomiari buruz esandakoa sakonduz. Banatzen duten eragileen sistema, historikoki, gizarte- eta kultura-konpromisoak baldintzatzen du ezinbestean. Hau erakusten lehenak antropologoak izan ziren, opariak, elkarrekikotasuna eta elkarbanatzea mundu osoko hainbat gizartetan komunitate-harremanen oinarria direla deskribatuz (Mauss 1924; Sherry 1983), eta diziplina desberdinetako azken ekarpenek tradizio horri jarraitzen diote esparrua zabalduz (Tomasello 2009; Waal 2009; Keltner, Marsh eta Smith 2010; Sennett 2012; Tudge 2013; Rifkin 2016). Literatura honetan, banatzeko ekintzak ezinbestean lotzen dira balio sozial eta kulturalarekin, eta pertsonaren nozioarekin berarekin.

1-3 *Abk*: Auzolana-Batzarrea-Komunalak, euskal ekonomia sistemaren motorra

Iraultza zientifiko eta burgesen garaitik mendebaldar gizarte modernoak onartu duen jarrera da: natura ulertu eta kontrolatu, jabetu eta menderatu beharreko zerbait delarik gizakiaren bizitza hobetzeko, Francis Baconen *Atlantis Berria*-k erakusten zuen bezala. Zientzia eta teknologia natura ulertu eta konkistatzeko erabili behar ziren, gizateriari onurak eta erosotasunak ahalbidetuz. Baina giza espeziearen mundu-ikuskerara, planeta hau populatu duten gizarte gehienek ikuskera irizpidetzat hartuz, bestelakoa da: natura errespetatu eta zaindu beharrekoa da; bizitzeko baliabide bat da baina baita begirunez tratatzekoa ere, haurrak bere amarekin egiten duen bezala (izan ere, 'ama lurra' mitologiaren oinarritzko irudia da).

Hori da 'komunak' edo 'komunalak' adigaiak adierazten duena. Komunalak natura baliabidea dira, eta bizibide, baina baita zaindu beharrekoak ere. Eta beren euskal forma Auzolana-Batzarrea-Komunalak edo *Abk* lirake. Orain arte dimentsio desberdinetan uler daitekeela erakutsi dugu, atalez atal: hitzen jatorrizko definizio gisa, alegia, euskal usadioan zuten zentzua; gizarte modernoan hartzen ari diren zentzu zabalagoan eta, azkenik, edozein gizarte mugimendutan eta jarduera ez kapitalistatan aurkitu ditzakegun alderdi gisa. Gainera, horregatik borrokatzen duten ekintzaileak eta erakundeak azaleratu ditugu. Segidan hirukoari berari egingo diogu hurbilketa, sistema gisa.

Abk ekoizpen sistema zehatz gisa

Abk akronimoa idazkietan proposatzen lehena Leire Saituak (2015) dirudi, baina ziur asko Félix Rodrigo Morarengandik harturik arnasan bat, orain biek sinaturik eta landuagoa agertzen baita akronimoarekin egindako lehen idazki horren garapena (Saitua & Rodrigo Mora, 2018b). Lehen idazkiko sinaduran iradoki bezala, *Auzolan EH* taldean sortua izan omen zen formulazioa, gaur egun ekimen horretako Jasone Mitxelorenak (2023) hitzaldietako laburduran erabiltzen duelarik.

Hirutasunari buruzko lekukoa *Biltzarrek* (2023) jasoko zuen, euskal demokrazia zuzenari buruzko barne eztabaida burutu eta gero; eta atzerago, *Euskal Sena Taldearen* (2019) lan dokumentuan garatu zen. Hemen Xabier Odriozola, Aintzane eta Agurtzane Lazkano ahizpak, Urtzi Ihitza edo Patxi Alaña bezalako ekintzaileak daude, atzekoekin batera. Akronimoak eta egiturak arrakastatxo lortu du, *Demokrazia Komunal Sareko* barne dokumentuetan agertuz, eta mundu akademikora jauzia eginez (Curto, 2023; DKS, 2021; Renteria-Uriarte, 2021; Renteria-Uriarte & Las Heras, 2021).

Abk, ezer baino lehen, bere zentzu hertsian ulertu beharko litzateke: *Auzolana* auzokideek beren komunitatei dohaintzan ematen dieten lan-zerbitzu gisa, *Batzarrea* toki bateko etxeen batzar ireki gisa, eta *Komunalak* herri-jabego gisa. Edonola, era isolatuan uler ezin litezkeen adigaiak dira. Odon Ulibarrenak (2023; 2003) *Auzokrazia* deitzen du sistema bera eta bere inguruan dagoena, eta *Euskal Sena Taldeak* (2020) *Auzonomia* erabili du:

Autobidea barik, auzobidea. Autodefentsa barik, auzodefentsa. Autodeterminazioa barik, auzodeterminazioa. Autodidakta barik, auzodidakta. Autogestioa barik, auzogestioa. Autokontrola barik, auzokontrola. Automatizatu barik, auzomatizatu. Autonomia barik, auzonomia. Autoritarismoa barik, eta auzoritarismoa barik. Bestela, laster egingo dute auzopsia. (Galder Guenaga, *Auto vs Auzo*)

Hasteko, esan bezala eta hein handian Ostromi esker, 'komun' hitza erabiltzen da gaur egun komunalen inguruko alderdien osotasunari deitzeko, bestela ere egin daitekeen arren; Mitxelorenak adibidez auzolana hartzen du ardatz eta 'auzolanaren kultura' deitzen dio osotasun horri. Edonola, saskiaren osagaiak ezin dira beraien horretan ulertu, eta ondo jositako sistema gisa gureganatu behar dira: komunalak, bai, baina bihotzez emandako lanaren (uler bedi gure artean, Auzolanaren) eta kideei onartu behar zaizkien hitzaren eta erabakimenen

(uler bitez hemen, Batzarreen) pentzudan. Komunalei buruz hitz egitea ez da natur baliabide soil batzuei buruz aritzea, sistema sozial eta mundu-ikuskerara bati buruz hitz egitea baizik, gero sakonduko den bezala.

Abk gizarte mugimenduen alderdi eta funtsa gisa

Aurreko ataletan *Abk*-k edo auzolanek, batzarrek eta komunalek zehazten duten adigaiak pixka bat hedatuz edozein gizarte mugimenduren baitan badirela ikusi dugu. Lan dohaintzak, erabakimen parte-hartzaileagoa, eta ondarearekiko edo gastuetarako ekarpenak hein handian ematen dira eta, are gehiago, gizarte mugimenduak sarri ez dira horiek gabe ulertzen, esfera kapitalistan gertatzen denaren aurkakoa hain zuzen.

Horrela, erraz ikus liteke, *Abk*-ren osagaiak era zuzenean izan ez arren (alegia, auzolanen bat, batzarrenen bat ala komunalen bat bere jardura gisa izan ez arren), eta komunalista giza bere burua aurkeztu ez arren, etorri komunalistako ekimenak ugariak direla Euskal Herrian. Goian emaniko kasuak (Demokrazia Komunala Sarea, 2021; Joxemi Zumalabe Fundazioa, 1999; REAS Euskadi, 2023) erakusle dira. Ustez komunalista eta ustez ez-komunalisten arteko aldea zein lausoa den ondo ikusi daiteke *Bizi! Mugimenduarekin* (2018, 2023). Erkidetzak bere fokoa izan ez arren, horretan oinarrituz ingurumena zaintzeko eta kapitalismoari begirako alternatibak hausnartzen dabil, ekologia eta burujabetza lotuz.

Edonola, mugimendu sozialetan erkidetzaren (*abk*-ren) hiru osagaiak ditugunez, alegia, lan dohaintza (auzolana), guztion erabakimena (batzarrea) eta baliabide komunak egonkortzea (komunala), osagai hauek erabili genitzake mugimendu sozialak komunalismoaren ikuspegitik baloratzeko (irizpide beretsua du Merkatutik Atera eztabaida taldeak, 2015). Eta hor komunalen jabego dohaintza izan liteke mugimendu sozialen intentsitatearen neurria: lana jartzen badugu, ondo; erabakietan parte hartzen badugu, ondo ere; baina gure dirutik edo ondaretik gehiago ala gutxiago jartzen badugu ondare kolektiboa hornitzeko, orduan bai konpromezua!

Abk osagaiaren bat duten ekimenen lehen borobil kontzentrikoa, alegia, hurbilena, ondare erkidea baliotsua eta preziatua sortu duten mugimenduak lirateke. Etorri komunalista espliziturik gabeko ekimenen artean zehazki erkideak izango lirateke hauek, ondare komunal bat sortzen dutelako hurrengo aroetarako.

Ziur asko adierazgarriena *Ikastolen* mugimendua da, iraunkorrak eta garestiak diren eraikinak sortu eta mantendu behar dituelako, hauek gerora kolektiboek erabakitako arauen bidez kudeatuko direnak (Iza, 2010). Irizpide horretan gailentzen dira hauek, baina zerbait lorturik edo lortzeko bidean dira auzogintza ekimenak (*Gaztetxeak* eta *Errekaleor*). Zentzu horretan sortzen ari dira egun beste euskal 'komun' batzuk (Merkatutik Atera, 2015), adibidez, Iparraldeko *eusko* moneta, Europako bertoko monetetan handiena dena (Larralde, 2023). 'Komuna', hots, baliabide erkidea, ez da natura baliabidea, baina 'ondare komun' sortua eta zaindua da, digital commons-ekin gertatzen den bezala.

Baina ekimen aldarrikatzaile denek dute zerbait irizpide horretan. Demagun *EH zuzenean*, erakunde publikoen laguntzarik gabeko musika jaialdia; ez da bere helburua edo beharra ondare bat sortzea etorkizunerako, baina baliteke urtetik urtera zenbait gai fisiko gordetzea, hurrengo ekitaldia erraztearren.

Hurrengo borobilean leudeke autogestioa saiatzen eta aldarrikatzen duten lankidetzat taldeak, hala nola, elikagaien subiranotasuna (Urdaibai eta Usurbilgo esperientziak), energia hornidura (*Goienar*, *Izarkom* eta beste kooperatiba batzuk), hezkuntza (gurasoen ekimena izan den *Ikastolen* mugimendua eta bestelakoak), hizkuntza (*Korrika*, aurrekoarekin erlazionaturiko *Herri Urrats*), eta abar.

Komunalen isla (kontziente edo inkontziente) modernoak.

Etorri komunalistako ekimen ugari: auzokideen autogestio kolektiboak, aurrekontu parte-hartzaileak, komunitate energetiko lokalak...

Etorri komunalistatik ez sortuak baina gizateriaren joera komunalistatik, gure 'ekonomia naturaletik', datoz beste asko.

Mugimendu sozialetan komuntzearen (abk-ren) hiru osagaiak ditugu: lan dohaintza (auzolana), guztion erabakimena (batzarrea) eta baliabide komunak egonkortzea (komunala), baina

'Komunalak' izango lirateke zehazki ondare komunala sortzen dutenak hurrengo aroetarako, zioaz landa. Adibidez, Ikastolen mugimenduak,

iraunkorrak eta garestiak diren eraikinak sortu eta mantenduz, gerora kolektiboek erabakitako arauen bidez kudeatuko direnak. Eta Eusko moneta, Europako bertoko monetarik handiena.

Abk borroka gisa

Abk-k, azkenik, auzolan-batzarre-komunalen aldeko egungo gizarte mugimendua deitzeko balio dezake. Iraganetik datozkigun hastapen horien berreskuratzean lanean diharduten dauden ekintzaileak lirateke: aipaturiko Mitxeltoarena eta Ulibarrena, eta Demokrazia Komunal Sareko Saul Curto, Iparraldeko Xabier Larralde, eta abar.

4. Zuzenbide Piriniarra

Egungo Zuzenbide Piriniarraren aztarnak, Batzarreen sareak eta Nazio egitura proposamenak

Gaur egun indarrean dagoen *Nafarroako Foru Berriak* (1973) zera dio bere 2. Legean, jatorria jaso eta gero:

Nafarroan, zuzenbide-iturrien hurrenkera honako hau da: 1. Nafarroako errealitate sozialak ezarritako ohitura. 2. Konpilazio honetako legeak eta Nafarroako lege zibilak. 3. Nafarroako Zuzenbidearen printzipio orokorrak.

Alegia, 'ohitura' jartzen da Foru nagusien eta beste zuzenbidearen printzipioen gainean. Eta 'ohitura' irudi hori da, oro har, antzina herrien batzarretatik irtendako arauak, eskualde mailan arau bihurturik.

Nafarroako Foru Orokorra (1237) da 'Foru berri' honek jaso zuen tradizioa (1512-23ko konkistaren ondoren, Gaztelaren menpean, edukiz eta eraginez husten joan zen arren). Eta Foru Orokorren hasierak argi uzten du Komunitatea bere botere propioz sortzen duen Estatuaren aurretik dagoela, eta erregea eta bere gobernu horren subjektu (eta azpiko) direla. Jendearen ordezkari eta babes bermea dagite agintarietara eta beraien gobernuetara (zergen eta, hein batean, soldaduen truke), besterik ez.

Horregatik esan daiteke, beste arrazoiren artean, Pirinioetako zuzenbidea zinez publiko edo 'herritarra' dela, pertsonen artean harreman kolektibo horizontalak errazteko eta egonkortzeko helburuarekin osatua, inguruko zuzenbideekiko desberdinki (Nabarralde & Martin Ttipia, 2017).

Bitxia. Europako literatura politikoak demokraziaren historiako haustarritzat hartzen ditu Ingalaterran orduko erregeari muga batzuk ezarri zizkion *Magna Carta* (1215) eta *Bill of Rights* (1689), kasu bakoitzean orrialde bakarrean. Goresgarria, antza. Hala eta guztiz ere,

Euskal Herriak jada askoz lehenago ezarriak zituen Foruak eta foru-eskumenak (hau da, batzarretako erabakiak) erregeek zin egin behar zituzten lege egitura (eta arau mordo) gisa. ‘Liburu lodia’ betetzea zin egin ezean, ez zuen herriak jauntzat hartuko. Magna Carta, demokraziaren hastapena? Hori bai bitxia.

Eta ikuspegi hori, heinen batean behintzat, agintariengan presente zela ondoriozta genezake, bi zuzenbide moten arteko desberdintasuna oso ondo islatua geratu zelako 1176ko Itunean, Gaztelako Alfontso VIII.a eta Nafarroako Antso VI.a Jakitunaren artean izan zen. Beren lurralde-desberdintasunak Ingalaterrako Henrike II. Plantagenet erregearen arbitrajearen esku uztean (Pacto Convenio, 1991), Nafarroako enbaxadoreak argudioetan zera zuen: bertakoek Nafarroako erregeari leialtasuna adierazten diotela, alegia, nafarrak sentitzen direla oraindik. Bestalde, lurraldearen jabetza hilketen bidez lortua dela, eta legeen eta ohituren kontrakoa dela. Aitzitik, Gaztelako argudioak hauek ziren: konkista eskubideak eta, bestalde, ustezko basailu menpekotasunak eta noblezia oinordetza urrun bat. Gaurko hitzetan esango genuke: demokrazia (eta zuzenbidezko estatua) *versus* indarkeria (eta larderiazko hierarkia).

Lan honi dagokionez, hein handi baten mantentzen den zuzenbide honek komunala eta etxea zaintzea eta mantentzea du helburu, Maite Lafourcadek (2011; 2006) oso ondo deskribatu duenez. Jabetza kolektiboa eta bere garrantzia babesten du, lurzorua eta familia ondasunen kudeaketa komunitarioa egituratzen delarik ‘etxe’aren inguruan. Bestetik, Euskal Herriko eskualdeetako Biltzar Nagusiak herri eta bailaren batzarretatik osatzen ziren, zuzeneko demokrazia parte-hartzailearen bidez.

Nafarroako Foru Berria (indarrean) (2. Legea) Nafarroan Zuzenbide-iturrien hurrenkera da: 1. Nafarroako errealtate sozialak ezarritako ohitura. 2. Besteak...

Eta ‘ohitura’ irudi hori da, antzinatek herrien batzarretatik irtendako arauak, eskualde mailan arau bihurturik.

Nafarroako Foru Orokorra (‘Foru berri’ honek jaso zuen tradizioa). Hasierak argi uzten du Komunitatea bere botere propioz sortzen duen Estatuaren aurretik dagoela, eta erregea eta bere gobernu horren subjektu (eta azpiko) direla.

Magna Carta (1215) eta Bill of Rights (1689) Ingalaterrakoak, Europan demokraziaren historiako haustarritzat ← Bakoitza orrialde bakarrean! Demokraziaren Haustarri?

1176ko Ituna Gaztela-Nafarroa ← Lojika hori agintariak ere gogoan, antza:, Gaztelaren konkistak zirela eta. **Nafarroako argudioak:** bertakoek, “naturalium hominum”, Nafarroako erregeari leialtasuna adierazten diotela, alegia, *nafarrak sentitzen dira* oraindik. Lurraldea hilketaz lortua dela, legeen eta *ohituren kontra*. **Gaztelako argudioak:** *konkista eskubideak*, basailutasunak eta noblezia oinordetza urrun bat. **Gaurko hitzetan:** demokrazia (eta zuzenbidezko estatua) *versus* indarkeria (eta larderiazko hierarkia).

Lan honi dagokionez, hein handi baten mantentzen den zuzenbide honek komunala eta etxea zaintzea eta mantentzea du helburu.

Gaur egun argi dago irizpide hau ez dela eskualdean egitura orokorretan gailentzen, eta hor estatu legediak inposatzen direla, Frantziakoak zein Espainiakoak, demokrazia formala edo ordezkatzaila, hauteskunde bidezkoa, ezarria delarik. Horregatik, demokrazia zuzeneko zuzenbidearen berme hau galdua delako Frantziako Iraultzako burgesek eta karlistaldietako liberalek eraitsirik, kontrapisuak sortzen ari da egungo euskal gizartea. Batetik, *Batzarreen Sareak* dira aldarrikapenean, eta bestetik, *Nazio Mailako Egiturak*.

Batzarreen Sareak batzarreak sortzea eta beraiek jostea dute helburu, nazio mailako demokrazia lortu arte. Hiru nabarmentzen dira gaur egun: *Biltzarre* plataforma, *Demokrazia Komunala Sarea*, *Herribiltza* mugimendua eta *Auzolan* ekimena. Batzarreen eta auzolan sistemaren aldarrikapenean gehien nabarmendu direnak dira; denek dute *Abk* erdua sustatzea

eta saretzea buruan (baita azkenak ere, izena fokatuagoa izan arren). Azkenik, kontutan hartzekoa da *Udalbiltza* ere, 70 inguru udaletako partzuergoa.

Biltzarre plataformaren leloa da ‘Batzarretatik Nazio Batzarrera’ edo ‘Auzolanetik Naziolanera’. Independentzia lortu arte itxaroten egon gabe, bitartean, burujabetza esparruak sartzeko jaio zen. Batzarreak xaxatu eta saretu nahi ditu, nazio mailako egiturara heldu arte, ingelesez *bottom-up* edo *grass-root* deitzen zaion demokrazia zuzena, ordezkatzailerik barik organikoa, gorpuztuz (*Biltzarre.eus*). Barneko eta inguruko ekintzaileek izandako eztabaidan bi joera jaio ziren. *Burujabetza Demokrazia Zuzena* ekimenak batzarreak sortzea helburu bakarra izan behar dela dio, beste edozein helburu politiko, batzarreak saretzea barne, alde batean utziz (bertoko batzarreak sortzen lagundu eta gero ekimena eszenatokitik ‘desagertuz’). Bestetik, *Izan Auzokrazia* joerak batzarreak sortu eta saretu nahi du, beste helburu politikoekin loturikoari utzi dio, eta bertoko batzarreak sortu eta gero ekimena ‘desagertu’ behar dela deritzo.

Demokrazia Komunal Sareak komun en arteko lankidetz eta euskarri teorikoa sustatzea du xede. Ez da Euskal Herrira mugatzen, Venezuelako komun en koordinakundearekin erlazioa du, eta Biltzarrek egin ditu Txilen eta Kurdistanen.

Herribiltza mugimendua *Euskaldunen Biltzarren Elkargoa* izatearen helburua du. ‘Herri, auzo edo karrika’ mailako ‘herritarren Biltzar burujabe’atik Euskal Herri mailako ‘Biltzarren Biltzarra’ zuzenean osatzea proposatzen dute, lehen maila horretatik ‘haran, herri handi edo hiriko auzo’, ‘eskualde edo hiri’ eta ‘herrialde’ mailako ‘biltzarren biltzarrek’ ere osatuz (*herribiltza.eus*). Mugimenduak euskararen aldeko ekintzak egiteagatik nabarmendu da (frantses kartelak kendu eta muga pasa), eta biltzarrek ezezik komunalak ere sustatzen ditu (Casamajou, 2023).

Auzolan ekimena, fokatuagoa dirudien arren, bide beretik doa, behetik-gorako eredua litzateke berea, bertoko erabakien eta batzarren eskutik.

Udalbiltza da, azkenik, aipatzekoa. Izaera juridiko publikoa duen euskal partzuergo nazionala da, udalek osatua (lukro asmorik gabeko elkarte pribatuak ere parte hartu dezakete). Euskal Herria burujabe bat eraikitze bidean bere garapena eta kohesioa sustatzeko udalen lankidetz a bultzatzen du. Ez da beraz Batzarren sarea, udalena baizik. Eta horregatik egitura hierarkikoa du (karguak ez dira herritarren erabaki-guneetatik ateratzen, sistemak antolaturiko hauteskundeetatik baizik) eta izaera publikoa du (udalen ondasunak estatuaren izenean daude azken batean, ez dira herritarren komunalak), baina Sastrek (2013) eta Azparrenek (2013) eredu gisa proposatu dute etorkizunerako, nazio mailarantz batzarreak sartzeko orduan.

Zuzenbide Piriniarraren izpirituan...

Batzarreen Sareak: *Biltzarre* plataforma, *Demokrazia Komunala Sarea*, *Herribiltza* mugimendua eta *Auzolan* ekimena. Kontutan ere *Udalbiltza*.

Nazio Mailako Batzarre Egiturak:

Nazio Mailako Batzarre Egiturak diogunean euskal herriko idazle ekintzaile desberdinek proposaturiko eskema orokorre i buruz ari gara hemen. Atzekoen berdintsuak dira, eta filosofia azken batean bat eta bera da, baina kasu hauetan proposamena ez dagokio mugimendu sozial bati, norbanakoren bati baizik. Ñabarduraren batez bereizteko zera esan genezake, ekarpenak gehiago direla azken egiturari buruzko deskribapen eta hausnarketa teorikoak, oinarritik egotekoa den ‘behetik-gorako’ eraikuntzan ahalegin praktikoak baino. Pablo Sastre eta Patxi Azparren nabarmendu dira hauetan, azken urteetan, baina euskal literatura politikoan bide luzea jarraituz. Krutwig da hauen aurrekari hurbilena, baina are eta atzerago jota, Xaho, Garat eta Larramendi daude.

Euskal Herrietako Batzarra da Pablo Sastreren (2013) azken jomuga. Antzinako herri-batzarretatik gaurko kontzeju ireki eta udaletarako jauzia nola izan zen gogoratzen du, estatu modernoetan amaitu duen errege eta jauntxo feudalek hasitako botere bilketagatik, Odon Ulibarrenaren (2023; 2003) balorazioa gogoratu. Hori berreskuratzeko, ‘auzolanak’ baino, ‘auzo-arteak’ luke garrantzia, hau da, nazio eraikuntza eskualde edo herri txikietatik burutzea. Pablok, amaitzeko, Euskal Herria etorkizunean ‘Batzar Subiranoen Herria’ gisa eraikitzea proposatzen du. Udalbiltza ereduari arreta jartzen dio, esan bezala.

Batzarren Errepublika da Patxi Azparrenen (2013) ondorioa, Euskal Herriarentzat egokiena izango zen egitura politikoa hausnartu eta gero. Batzarreek gobernatutako eskualde-erakundeen errepublika konfederala litzateke, gaur egun demokrazia parte hartzailearen udal eredu izango lukeena, eskualdeak bizitza sozial eta ekonomikoaren esparru izango zirelarik. Berriz ere, Udalbiltza du eredu, Estatuak ezarritako zatiketaren gainetik jarduten duen erakunde bakarra izateaz gain, herritarrengandik hurbilen dagoen instituzioetatik, udaletatik, eraikitzen delako.

Baskonia Komunala Federiko Krutwigek (1921-1998) proposatu zuen frankisten ustez ‘ETAren Biblia’ izan zen *Vasconia* (1963) liburuan, deitura hori guk jarritakoa bada ere. Euskal Herriaren egitura produktiboa komuna auto-kudeatuen esku uztea zen koska, eta nazio egitura politikoa beraien konfederazio gisa antolatzea. Bere autobiografian (2014) azaltzen duenez, komunismoaren eta anarkismoaren arteko desadostasunak gainditzeko zubi gisa proposatu zuen. Nolanahi ere, anarkismoa aipatu gabe gizarte komunalista herriko baten proposamena zen.

Euskal Federazioa izan zen Agosti Xahok (1811-58) proposatua, 1836an. *Fenizia Berria*, Jose Garatek 1811an. *Auñamendiko Probintzia Batuen Errepublika*, atzeragoen, Manuel Larramendik 1756an. Horiek izan ziren Krutwigen aurrekariak, noiz-eta aurreko gizaldietan. *Euskal Errepublika* proposamenak ziren denak, eta ziur asko -balizkoak azterketa lasaiagoa beharko lukeen arren- komunalismo ukituarekin zetozen, Larramendiren funtsa jarraitu bide zutelako guztiek: “Antzinako errepubliketatik hartuz berauek ospetsu egin zituen guztia”⁵. ‘Ospetsu’ edo ‘desberdin’ egin zituen ‘guzti’ edo berezitasun juridiko-politiko hori, azken batean, Lafourcadek (2011; 2006) gogorarazi duena izango zelako: jendartean fokatzea, herri jabegoak eta etxe erroak komuntzearen gainean eraiki, eta horien gainean lurralde egiturak eta zuzenbidea eraiki.

Zabalago ikusirik, bakoitzak bere formak izango zituen, eta filosofia nazional desberdinekin harremanean egongo ziren, esate baterako, *Nazionalismo Mitozalea* (Agosti Xahok aldarrikatua), *Nazionalismo Kultural* (Arturo Kanpionek lehenetsia), edo *Arrazoiketa Linguistiko-Ekonomikoak* (Federiko Krutwigek egin bezala) ereduren bat gogoan zutela (ikuspegi deiturak gureak dira). Baina, zantzuak zein, komunalismoa lurpean zekarten, antza behintzat. Beste hitzetan: baloratzeke dago zein heinetan islatu zuten ‘auzo-batzarre→nazio biltzar’ irizpidea, baina demokrazia zuzenaren filosofia lurpean bide zekarten.

Egungo nazio egitura proposamenekin amaitzeko, Odon Ulibarrenak (2023; 2003), Sastrek (2013) edo Azparrenek (2013) bezala, batzarreen gaineko *auzokrazia* berreskuratzen du, irizpide hori *Biltzarre* eta *Izan Auzokrazia* mugimenduen baitan hedatzen duelarik. Edozein kasutan, gai hau euskal herriko antolaketa politikoa buruzko entseiu teorikoetan konstante historikoa dela esan daiteke. Eman lezake estatu kapitalista/estatu sozialista

⁵ “tomando de las repúblicas antiguas todo lo que las hizo célebres”.

hautuari buruz gutxiago hitz egin dela behetik gorako demokrazia nazio mailan nola egituratzeari buruz baino.

Zuzenbide Piriniarraren izpirituan...

Batzarreen Sareak:

Nazio Mailako Batzarre Egiturak: Euskal Herrietako Batzarra (Pablo Sastreren 2013), Batzarren Errepublika (Patxi Azparren 2013), Baskonia Komunala (Federiko Krutwigek 1963), Euskal Federazioa (Agosti Xaho 1836), Fenizia Berria (Jose Garat 1811), Auñamendiko Probintzia Batuen Errepublika (Manuel Larramendi 1756)
Den denek nahi bide dute “Antzinako errepubliketatik ospetsu egin zituen guztia hartuz (Manuel Larramendi 1756) edo “La démocratie basque” (Lafourcade 2010).

Zuzenbide Piriniarra

Zuzenbide Piriniarra deitua da, gaztelar eta frantziar konkistetara arte, euskal sistema ekonomiko eta politikoari izaera juridikoa ematen zion arau-esparrua. ‘Ohituran’ oinarritua edo ‘konsuetudinarioa’ zen, alegia, herritarren ohituretatik eratorriak ziren usadio eta arauak ziren edo, bertoko hizkeran, *foruak*. Izatez, foru hitza antzinako latinezko ‘forum’ edo ‘enparantza, plaza’tik datorrelako; alegia, legeak herri batzarretatik irteten zirela gogoratzen digu. Horiek ziren gerora eskualdeko biltzar nagusietara ‘igo’ tzen zirenak eta, gerora, lege orokor gisa idatziak izan zirenak. Foru hitza gaur egun ere bertoko euskal lege gisa gogoratzen da.

Maite Lafourcadek (2011; 2006) zehatz-mehatz deskribatu du euskal zuzenbideak, eskualde historikoetan forma desberdinak hartu arren, komunalen babesa arautzen zuela, eta honek ezberdintzen zuela zazpi euskal lurraldeen legedia, beste zenbait alderekin batera, inguruko espazio juridikoetatik. Jabetza kolektiboa eta bere garrantzia babesten du, lurzoruaren eta familia ondasunen kudeaketa komunitarioa egituratzen delarik etxearen inguruan.

Eredu hau hein handi batean desberdintzen da Europako lege mota nagusiarengandik, akaso esanenez ‘erabat’. Euskal *ohitura legean* (frantsesez ‘droit coutumier’, ingelesez ‘customary law’, espainolez ‘derecho consuetudinario’) komunitatearen boterea onartzen da bere dimentsio kolektiboan; Erromatar-Germaniar legeak, aldiz, gehiago dira buruzagien arau eta desira pribatuak zuzenbide eta lege ‘ustez kolektibo’ bihurturik (Nikolas, 2019). Zuzenbide Erromatar-Alemanak ez zuen benetan ‘Zuzenbide Publikoa’ inplikatzeko, boteretsuen eta klase nagusien kudeaketa eta jarduera politikoetarako sortu zen (Poulantzas, 1978). Garbi esateko, indarkeriatik eta lapurretetatik eratorritako ustezko ‘eskubideak’ legeztatzeke ziren, zehatz-mehatz, ‘konkista eskubidea’ zelakoa eta bere eratorriak inposatzeko (Bachofen, 1897; Nabarralde & Martin Ttipia, 2017).

Batzarreak elizpeetan biltzen ziren, hortik ‘Elizate’ edo orduko ‘Anteiglesia’ izenak komunitatea deitzeko, eta Elizateak Eskualde Historikoen Batzarretan (Bizkaiko Batzar Nagusiak, Lapurtarren Biltzarra, eta abar). Frantses Iraultzan Ipar Euskal Herriko Biltzarrak balio gabetu zirenetik (1879tik hasita), eta Karlismenaren ostean hego Euskal Herriko erakundeekin berdinekin egin zenetik (1876tik hasita), Batzarreen auzoetako gaien erabakimena galduz joaten ziren heinean, eskualde batzarretan biltzean zeukatzen erabakimena ezeztatu zen.

Baina Zuzenbide Piriniarraren logika konsuetudinarioa Nafarroan mantendu da, harrigarria badirudi ere: “Nafarroako ohiturak ... nagusitasunari eutsi dio gaur arte, egungo Foru Konpilazioak bere 2. legean kokatzen du leku pribilegiatuan, ... Zuzenbidearen

printzipio orokorren eta Zuzenbide osagarriaren aurrean lehentasuna duelarik”, Salinasek nabarmendu bezala (1998, 85. orr.). Eta hori Nafarrek askatasunaren alde egindako borrokari esker izan dela dio, *Obanosko Infantzoiak* bezalako presio taldeen bidez (85. orr.).

Gune txikietara itzuli gaitzen orain. Komunalak, esan bezala, etxearen inguruan arautzen ziren, baina etxearen baitan komuntzearen logikak jarraitzen zuelarik (ikus Jaques Poumarede eta Maite Lafourcaderen aurkezpenak hemen: Martín Osante & Arrúe Mendizábal, 1991). Batek etxea oinordetzan hartzean ez zen bere domeinu pertsonala, besteak beste, ezin zen saldu edo zatitu (ez *inter vivos* ez *mortis causa*), eta bertakoen erantzukizuna hartzen zen (nagusiak, ezkongabeak, abade, fraile edo moja joan gabeak, eta abar).

Hitz gutxitan esateko, ondarea aurreko belaunaldientzat, orduko sendiarentzat eta osteko belaunaldientzat bizitza baliabidea zen, ez norbanakoaren jabetza pribatu gisa tratatu behar. Termino juridikoan, ez zen jabearen *ius utendi*-a hark nahi zezakeena egin zezan, sendiaren eta belaunaldien eskubide besterenezin edo ezin besterenduzkoa baizik, nahi ta ez bete behar zuena. Esan bezala, komuntzearen logika etxearen baitan ezarririk.

Zuzenbide Piriniarra: ‘Ohituran’ oinarritua edo ‘kontsuetudinarioa’, herritarren batzarretatik edo ‘foro’etatik, *Foruak* dira. (‘Foru’ hitza gaur egun ere bertoko ‘euskal lege’ gisa gogoratzen da).

Komunitatearen boterea onartuz eta bere interesak arautuz, ez Erromatar-Germaniar legeak bezala buruzagien desirak. Benetako ‘Zuzenbide Publikoa’ da (Nikolas, 2019).

Euskal zuzenbideak, eskualdeetako forma desberdinetan, komunalen babesa arautzen du, inguruko legedietatik desberdin. Jabetza kolektiboa, lurzorua eta familia ondasunak egituratuz ‘etxe’aren inguruan (Maite Lafourcade).

Nafarroako Foru Orokorrak edo ‘Jurisdikzio Orokorra’ren hasierak, argi uzten du Komunitatea bere botere propioz sortzen duen Estatuaren aurretik dagoela, eta erregea eta bere gobernu horren subjektu (eta azpiko) direla.

Demokraziaren historiako haustarria zein da? Ingalaterran orduko erregeari muga batzuk ezarri zizkion *Magna Carta* (1215) eta *Bill of Rights* (1689), kasu bakoitzean orrialde bakarrean, ala Euskal Herriak askoz lehenago ezarriak zituen Foruak eta foru-eskumenak (hau da, batzarretako erabakiak) erregeek zin egin beharrekoak?

1176ko Itunarako argudioak.

Nafarroako Antso VI.a Jakitunak: Gaztelak konkistaturiko lurraldeetan bertakoak nafarrak sentitzen dira oraindik; lurraldea hilketaz lortua da; eta legeen eta ohituren kontrakoa da.

Gaztelako Alfontso VIII: konkista eskubideak dira; basailutasunak daude; eta noblezia oinordetza urrun bat dut.

Gaurko hitzetan : demokrazia (eta zuzenbidezko estatua) *versus* indarkeria (eta larderiako hierarkia).

Etxeak komuntzearen logika jarraitzen zuen: ez zen domeinu pertsonala, ezin zen saldu edo zatitu, eta abar.

Nafarroan mantendu da lojika : Foru Konpilazioak Ohitura jartzen du Zuzenbidearen printzipio orokorren eta Zuzenbide osagarriaren aurrean; nafar askatasunzaleei esker da (Salinas 1998)

Edozelan, badakigu Zuzenbide Piriniarra, oro har harturik, ezeztatua dela, eta jada ez dela kontsideratzen botere egitura josteko: Batzarreak eta Foruak jada ez dira Eskualdeko Biltzar Nagusiak eta Foru Orokorren iturri. Horretara datoz egungo Batzarre sare eta Nazio egitura proposamenak.

Zuzenbide Piriniarra ulertzeko

Ohitura-Zuzenbidea edo *Ohiturazko Zuzenbidea*, ‘konsuetudinarioa’, gizarte bateko ohiturak arau gisa onartuak direnean gertatzen da. Gizarte mota desberdinetan eta historian zehar ohitura zuzenbidearen iturri nagusia izan da, normalean harremanak arautzeko eta gatazkak ebazteko hitzarmen gisa. Gehienetan, ez dago idatzita.

Oraindik ere estatu gehienetan zuzenbidearen iturri gisa onartzen da, eta batzuetan oso era esplizituan, adibidez Perun, bertoko kultura indigenei begirune gisa. Mendebaldir

herrietan bigarren mailako erreferentziatzat har daiteke ere zenbait epaiketatan, eskualdea zein gradu desberdina har dezakeelarik.

Ingalaterran ohiturazko zuzenbidea estatutu eta erabaki judizialen ‘common law’ delakoak irrimo ordezkatu zuen, baina oraindik ere eragin dezake, eta Erresuma Batuan Eskoziari sistema juridiko ezberdina onartzen zaio, han ohiturazko zuzenbidea zuzenbide zibil arruntarekin nahasturik dagoelarik. Alemaniako eskualdeek tokiko ohiko sistema juridikoen pean funtzionatu zuten 1900 arte, ohiturazko zuzenbidearen bertokotasun apalagoz. Norvegiar eta Islandiar, aldiz, ohitura arauen tradizioa azpimarratuagoa da, idatzizko lege-kodeen eragin handiarekin emanik ere.

Zer izan da, beraz, ohiturazko zuzenbidea ordezkatu duena gizarte mendebaldarretan? Batetik, *Zuzenbide Zibila*. Lege idatzietan oinarritzen da, kodeetan jasota, legegileek ezarrita; eta ‘zurruna’ da, eskualde desberdinetan eta kasu desberdinetarako irizpide bakarrak edo ‘berdinzaleak’ ezarri nahi ditu. Erromatar zuzenbidean ditu sustraiak, eta Europa kontinentalean garatu zen, Frantziako tradizio juridikoa duten herrialdeetan nabarmena delarik (Latinoamerika eta Asiara ere hedatu da). Bestetik, *Zuzenbide Arrunta* edo ‘common law’. Erabaki judizialeetan eta jurisprudentziaren aurrekarietan oinarritzen da, eta ‘malgutasuna’ nahi du, kasuen ezberdintasunei moldaturik. Erdi Aroko ingeles sistema juridikoan ditu sustraiak, eta eragin anglosaxoia duten herrialdeetan da nagusi, hala nola Erresuma Batuan, Estatu Batuetan, Kanadan, Australian eta Commonwealth-eko beste herrialde batzuetan.

Hitz bitan laburtzeko, Ohiturazko Zuzenbidea herritarra da, gutxi idatzia eta oso bertokoa, gizarte bateko ohitura eta praktiketan oinarritzen da, denboran zehar garatzen delarik gizartearen bizitza zein eta, beraz, eskualde eta komunitate desberdinetara moldatzen da. Aldiz, Zuzenbide Zibila eta Zuzenbide Arrunta estatuak ekarritakoak eta idatziak dira. Lehen eskualde eta kasu guztietan lege eta kode berdintzaileei jarraiki uniformeki aplikatzen da. Eta bigarrena kasu desberdinei moldatzen zaie erabaki judizial eta jurisprudentziarekin. Hala ere, Ohiturazko Zuzenbideek beste bien sistemetan hein handiagoan edo txikiagoan irautea lortu dute.

Zuzenbide Piriniarra deitua dena, gehien baten eta ia osorik, ohiturazko lege eta arau sorta oso zabala da, Zuzenbide pribatua (norbanakoen arteko harreman juridikoak) eta Zuzenbide publikoa (pertsonek edo erakunde pribatuen eta botere publikoen harreman juridikoak) estaliz, ohituran oinarrituta, iturri oso anitz eta heterogeneoetatik (hala nola antzinako jurisdikzioa, tokiko edo udal jurisdikzioak, erregeek emandako epaiak, jurisprudentzia oharrak, pribilegioak, herri ohiturak, etab.).

Horrela, ikerketa konparatiboa beharko luke, baina nahiko agerikoa ematen du Euskal Herrietan ohiturazko legeak oso indartsuak eman direla, eta, gainera, ohiturazko legedi horren horizontaltasunak eta demokrazia parte-hartzaileak beste lekutan baino handiagoak izan direla. Zantzuak sendoak dira. Hasteko, herri legedi honen indarrak ekarri zuen bere sorta zabala hein handi baten bildua izana, Nafarroako Foru Orokorra (1238), Abellanedako Forua (1394) eta Bizkaiko Foru Zaharra (1452) eta Foru Barria (1526) bildumetan. Eta honek ahalbidetzen ditu atzerago emandako adibide batzuk; besteak beste, Nafar Foru Orokorrak hasieratik gogoratzen diola erregeari bera herriak hautatua zela. Eta mantendu bedi gogoan ere gaur egun ohiturazko zuzenbidea lehen mailako iturria dela Nafarroako Zuzenbide Zibilean, Foru Berri gisa.

Edonola, egungo Frantziako Errepublikan eta Espainiako Erreinuan euskal politikaren ‘izaera diferentziala’ eztabaidagarria izanik ere, zalantza-ezina da euskal kultura modernoak

antzinatetik datorren ideia hori, foruak eta berdintasuna, bereizgarri ikurtzat hartu dituela. Behean sakonduko dugu horretan.

5. Matri-Zaintza Komunala eta Militantzia politikoak, Milizia Herritarrak barne

Inoiz ohitura zuzenbide piriniarra eta, bere bidez, Lafourcadek (2010) deituriko “La démocratie basque” existitu zirenentz eztabaidatzen egongo ginateke, idatzita egon izan ez balira. Ez zaie hori gertatu, tamalez, euskal sozioekonomia sistemaren hurrengo babesei. Bata, barne zaintzarekin zerikusia duen emetasun eta amatasuna, egindako hurbilpenen arabera, ez bide dator bat egungo ‘genero gabezia’ feministarekin. Bigarrena, kanpo mehatxuen aurreko babesa, egungo gizartearen diskurtso ofizialaren aurka doan ‘defentsa indar’ fisikoei buruzkoa da baina, azken batean, militantzia politikoak dute egungo oinordeko. Biak laburbildu litezke M hitzarekin, horrela hasten baitira: Matri-Zaintza eta Militantzia politikoak, Milizia Herritarrak barne. Goazen bakoitzarekin.

Egungo matri-zaintza komunalistaren euskal aztarnak

Atsolorra euskal jaiotza-erritu komunala da, auzoko emakumeak ama erditu-berriari, bere jaioberriari eta beren sendiari bisita egiteko, opariak eramateko eta gerorako laguntza eskaintza luzatzeko (Basterretxea, Mari Carmen, 2012; Lekuona, 2019; Urkizu, 2016). Desagertzeko zorian zen arren, eta beste hainbat ohiturekin gertatu den bezala, emakumeen arteko katea ez da eten (Rosas, 2018; Ubillos, 2010), hainbat tokitan berreskuratua izan delarik, hala nola Hernaniko Ereñotzu auzoan, Oiartzunen, Oñatin edo Pasaian (Gartzia, 2023; Oiartzungo Udala, 2016; Oñatiko Udala, 2023; Pasaiako Udala, 2022).

Matritopaketak egin ziren duela ez asko, *HerriUnik* (2019) deiturik, emetasuna eta amatasuna aldarrikatzen dituen feminismo alternatiboaren inguruan ekintzaileak eta akademikoak gainerako herritarrekin bilduz (BasokoMari, 2019). Alde desberdinetatik gizartearen eredu matri-fokala aldarrikatu zen han, Euskal Herrian antzinatetik izan duen lehentasuna gogoratuz.

Atsolorraz kanpoko jaiotza-erritu gehiago daude, bataioa eta Elizan sartzea bezala (Lekuona, 2019); eta matri-fokaltasuna aldarrikatzen duen feminismoaz aparte badira beste asko, jakina denez. Baina hauek gogoratu dira hemen komunaltasuna eta amatasuna ardatz duten babes-sistema direlako; batetik, aztarna objektiboak, eta bestetik, horiek berpiztearen aldeko mugimendu soziala.

Matri-zaintza komunalista

Toki askotan bataioa baino garrantzitsuagoa zen *atsolorra*, Mari Carmen Basterretxearen (2016; 2012) ustez, Eliza Katolikoak XVI. mendean bataioaren betebeharra ezarri aurrekoa da, eta euskal antzinatean izango luke jatorria, euskal gizarte matrilinealak bere iraunkortasuna eta ugalketa bermatzeko zeukan igorpen katea izango zelarik, besteen artean. Horiek *emetasunaren eta amatasunaren* gainean eraikitako gizarte mota baten isla izango liriteke, *matri-fokala*, *matri-lineala* edo *matrista* deitu genezakeena (Basterretxea, M. Carmen, 2016; Piquero, 2024) ala, konplexuak erabat kenduta horien gainean eztabaida handia dagoelako, *matriarkala* (Göttner-Abendroth, 2011). Horretan arnasa hartuz, zera jo genezake, *Abk-Zms* sistema M horren inguruan eraikia zela gehien bat, alegia, *eme-ama-ume* babestu eta babesle bihotza zegoela han.

Matri-fokaltasunak feminismoarekin duen harremana era osasuntsuan eraikitzeke dugu oraindik, Lagomak eta Fernandezek (2022) gogoratu bezala, hain zuzen, *M ama* eme* ume** tituluko liburuan. Haurdunaldia, erditzea, erdiondoa eta umearen zaintza zikloan batzuk

ezinbestekoak edo biologikoak dira emakumearentzat, baina beste batzuk gizartearen antolamendua behar dutenez, patriarkatuak emakumea menperatzeko amatasuna instituzionalizatu du. Eta, horregatik, amatasunari destainaz edo deserosotasunez begiratu ohi dio feminismoak. Baina ezin ahantzi haur bat mundura ekartzea, bere zailtasun, min eta neke guztiekin ere, esperientzia guztiz eder eta zirrargarria dela emakume askorentzat edo hala izan beharko lukeela inguruak (gizarteak, komunitateak, legeek) behar bezala lagunduz gero. Autore hauek jasotako hamahiru lekukotasunek hori ulertzen eta sendotzen laguntzeko asmoa dute.

Feminismoan ‘genero’ terminoak pertsonen jaiotzean esleitutako sexuaren arabera egozten zaizkien eraikuntza sozial, kultural eta roleri egiten die erreferentzia. ‘Maskulinoa/Femeninoa’, hasieran sexu biologikoari lotu arren, janzteko, lan egiteko eta harremanak izateko espero den jokabidea agintzen duen eraikuntza da, norbanakoei rol eta itxaropen zurrun mugatzaileak ezarri, eta genero aniztasunak ezabatuz. Zentzu honetan, feminista askok, ‘matriarkala’ edo ‘matri-fokatua’ entzuten dutenean, alertara jotzen dute, patriarkatuaren ‘biki’ edo ‘kopia’ batekin parekatzen bide zaielako.

Edonola, Göttner-Abendrothek (2011) argi utzi duenez, gizarte matriarkalak ez dira patriarkalen ispilu-iruditza hartu behar, inoiz ez baitituzte izan patriarkatuaren menderakuntza-egitura hierarkikoak. Aitzitik, eredu matriarkalak sozialki berdinzaleak dira, ekonomikoki orekatuak eta politikoki adostasun-erabakietan oinarrituak, gizarte patriarkalen aldean. Bakoitza bere ñabardurekin, adibideak dira Minangkabau-ak (Sumatran), Mosuo-ak (Txinan), Bijagó-ak (Ginea Bissaun), Huilloc-ak eta Queroak (Perun) eta Juchitec-ak (Mexikon) (Boyé, 2006, 2020a, 2020b). Eta generoari buruz, erlijio abrahamikoek edo ‘liburukoek’ (juduek, katolikoek eta islamdarrek) guztiz eragin edo arautu ez duten gizarteetan, joera zera da: genero bizimoldeak egon badaudela, baina genero identitateen aniztasuna eta aldaketetan askatasuna dela. Alegia, genero eraikuntza bai, baina horien adigai zurrunik gabe.

Feminismoak helburu duen genero des-eraikuntza berez lortua genuke kasu hauetan, eta gizarte ‘des-generotua’ hasieratik eta berezko jarioan erdietsia. Oro har, erlijio abrahamikoek eragindakoak salbuetsirik, munduko gizarte-motetan gehiengoa diren horietan. Salbuespenak egon badaude, esparru sozialetan ohikoa den legez, baina baieztapenaren orokortasuna konfiantzaz mantendu daitekeelakoan gaude. Kasuetarako: Bugi-en artean adibidez, islamak oraindik gehiegi arautu ez dituen Indonesiako austronesiar etnien, bost genero daude, aipaturiko askatasunekin biziak direnak; han generoa gehiago da espektro bat kajoi zurrunik baino.

Beste gaizki ulertu bat da abrahamikoak diren gizarteetan ‘emakume/gizon’ entzutean ulertzen dena ez dela animistak eta dialektikoak diren gizarteetan ulertzen denaren parekoa. Azken hauetan naturaren bi indar nagusiei buruz ari da normalean, ‘espazio sortzailea’ (eme) eta ‘akzio hedatzailea’ (ar) existentziaren bi mutur dialektiko gisa (yin/yang, shakti/shiva, yoni/lingam, eme/ar, ama/aita, huts/hutsune eta horrelako irudiekin adierazten dena), existentzia bi hegal hauen jokoarekin josirik ulertzen delarik. ‘Matri-fokal’ edo ‘matri-ista’ entzuten denean, beraz, mundua ulertzeko eta bizitza aurrera eramateko aukera gisa ulertu beharko genuke ‘emetasun’ eta ‘amatasun’ hori, baina ez era zanpatzailean; era dialektikoan eta eraikigarrian baizik (Renteria-Uriarte, 2022).

Matri-zaintza komunalistaren euskal ereduak inoiz eman bazen, komunitatea eta legeek amatasuna, emetasuna eta umetasuna kontuan hartzeko ideal hori betea izango lukete, antolamenduak (Basterretxea, M. Carmen, 2016), ohiturak eta arauak (Lagarde, 2015) eta mundu-ikuskera bera (Ortiz-osés, 1996; Piquero, 2024; Renteria-Uriarte, 2022) horien

ganean eraikiak izango liratekeelako. Gizarte matri-fokatuak, hain zuzen, tankera horretakoak izan ohi dira munduan zehar, aipaturiko Göttner-Abendrothen (2011) ikerketa zabalak erakutsi bezala.

Euskal Sena Taldeak (2022) balizko hori sakondu du. Emakumeak omen ziren antzinatean euskal senaren eta mundu-ikuskeraren babesle eta igorle, eta Inkisizioak egin zuena, hain zuzen, emakume hauen jakinduria katea apurtzea izan zen: sendagintza (belarren bidezkoa), adimen ezaguera (akelarreen bidezkoa), eta emagintza (emaginen bidezkoa) gaietan jakitun ziren sorginak sutara, eta kito. Hipotesia esanguratsua da, betidanik norbanakoen artean eman diren beldur, herra eta bekaitzei euskarria eta hiltzeko ahalmena eman baitzioten botereek (Carter, 2023; Ncyt, 2023), jakinduria mota honek gizarte komunalista batetan suposatzen zuen igorpen katea hautsiz.

Saituak eta Rodrigo Morak (2018a) era pragmatikoan laburtzen dute zaintza mota hau. Herritarren ikuspegitik hiru jarduera dira: *jan, lo, lagunak* (oro har ekoizpena, aisia eta harremanak). Eta hiru espaziotan ase daitezke: komunala, trukea eta merkatu/estatua ('Guk Geuk Geurea', 'ta Hik Zer emango?' eta 'Zer/Nori/Nork Atera' edo plusbalioa/zergak). Baina norberak, behar bakoitza zirkulu kontzentriko gisa joka dezaketen mandala batean kokatuz, elkarbanatzea eta jabetzea bultzatu dezake.

Amaitzeko, matri-zaintza komunalistaren babes sistema, barnean, sistema kontzentriko gisa ulertu beharko litzateke, Ottek ikusitakoan hausnarturik: natura zaintzen da (baina ez hortik etorkizunean lehengai gehiago ateratzeko, natura zaintzen da fokoan natura bera delarik) – etxea zaintzen da (baina ez etxeak guri gero eta gehiago emateko, fokoa etxean delako baizik) – belaunaldiak zaintzen dira (baina ez egin behar dugulako eta kito, umeak, nagusiak eta beste zainduak fokoa direlako baizik).

Zaintza sistemak ulertzeko: 'zaintzaren ekonomia'

Atsolorra munduko toki askotan dokumentatu da, Brasilen *chá de bebê*, Txinan *manyue*, Iranen *sismoony*, Costa Rican *té de canastilla*, Keralan *Pulakuli*, Erresuma Batuan *wetting the baby's head*, Nepalen *Pasni*, eta abar, eta gaur egun, kapitalismoan ere hedatzen ari da, Estatu Batuetatik ekarritako *baby shower* modarekin. Ziur asko, ez da gizarterik munduan gizazkoa den 'ekonomia natural'aren joera hau ez duenik.

Era berean, matri-zaintza komunalista zaintza mota guztien artekoa da. *Zaintzaren ekonomia* gizarte baten zaintza-jarduerak osatzen dute, hala nola, haurrak, adinekoak, gaixoak zaintzea, baita etxeko zereginak ere, tradizionalki emakumeek egiten dituztenak, eta ordaindu gabe edo gaizki ordainduta daudelarik, bizitzaren iraunkortasunean eta lanaren erreprodukzioan duen zeregina erabakigarria izan arren.

Bestalde, *Zaintzaren Ekonomia* jarduera horiek eta haiekin aritzen diren emakumeak aintzat hartzea eta balioestea eskatzen duen ikuspegi ekonomikoari deitzen zaio. Horiek ohiko analisi ekonomikoetan gutxietsiak edo baztertuak direla salatzen du esparru honek. Hortaz, analisi ekonomikoen feminizazioa (maila teorikoan) eta arretaren aitortza eta balorizazioa (maila sozialean) aldarrikatzen du genero-ikuspegi handiagoaren bidez, maila teorikoan zein sozialean, eta azkenik, lana eta zaintza ardurak bateratzeko esparruak galdegiten ditu, maila politikoan (Folbre, 2010; besteen artean, Kittay, 1999; Tronto, 2013).

Ikus dezagun kritiken adibide bat. Teoria neoklasikoak, gaur egun zientzia ekonomikoan nagusi den paradigmatik, isuri androzentriko izugarria du, erabaki ekonomikoak hartzen dituenari (*homo economicus* delakoari) ustezko ezaugarri unibertsalak egotziz, errealitatean gizonezko, zuri, heldu, heterosexual, ondo zaindu eta errenta ertaineko bati dagozkionak. Erabaki ekonomikoen ustezko 'arrazionaltasuna' ez da halakoa, mundu

errealean baldintza eta alborapen xenofobo, homofobo eta sexistak daudelako. Teoria neoklasikoaren *esleipen* obsesioa, helburu mugagabeetarako baliabide urrien artean erabakiz (*homo* horren bitartez, aberatsa, zuria eta emakume ikusezin batek lagunduta dena) ez da ez erreala ez adierazgarria, ekonomiaren muina bizitzari eusteko eta gizartea ahalbidetzeko *hornikuntza* delako (dena ailegatu ezin diren emakumeen esku uzten dena (adibidez, Julie Nelson, 1996).

Mota honetako kritika teoriko, sozial eta politikoen bidez zaintzaren ekonomia feministak generoa eta lanaren banaketa sexuala kontutan hartu beharko lukeen zaintzaren gizarte antolaketa ulertzen du, eta hauxe da hain zuzen euskal zaintza sistema kokatzen den esparrua.

Sistema hau egungo gizartearekin alderatzeak hausnarketak eta hobekuntzak sor ditzake. Esaterako, maila pertsonalean, eta ekonomia errealean gizon-emakumeek zainketa-zama bera ez dutenez, neutralak eta unibertsalak izan nahi dituzten politikek generoari dagokionez ez-neutroak izaten amaitzen dute; baina aukera bakarra ez da zaintzen estatalizazioa eta gizonek/emakumeek zenbakiz parte-hartze berdina izatea, laguntza gehiago eman diezaieke lanari baino zaintzari lehentasun gehiago eman nahi dioten emakumei (eta gizonei).

Eta gizarte mailan, zaintzak, zentzu zabalean, barne hartzen ditu norberaren zaintza eta beste pertsonen zaintza; zaintza horietarako baldintzak etxea garbituz, janaria erosiz eta prestatuz, etab.; eta horren guztiaren azken kudeaketa ordutegien koordinazioarekin, hezkuntza-zentroetara eta beste erakunde batzuetara garraioekin, ordaindutako zaintzaileen lana gainbegiratzearekin, etab. (Rodríguez, 2015). Esparru hauetan eme-balizko eta matri-fokal filosofiek inspiraturiko sare komunitarioak sustatu eta lagundu litezke.

Oro har, *Abk-Zms* sistema mito sozialtzat hartzen dutenek proposatzen duten zaintza eredu komunal eta matri-fokala, eraman ahal liteke lege eta politiketara? Gutxienez, hobekuntza sozialak hausnartarazi litzake? Pertsonen eta gizartearen erreproduzioa antolatzea “zaintzako gizarte-antolaketa” da, “familiek, estatuak, merkatuak eta komunitate-erakundeek” continuum banaezin batean parte hartzen dutena (Razavi, 2007), baina familien, estatuaren eta merkatuen irizpideak argi ditugun arren, ikuspegi komunala eta marko honi buruz dituen balorazioak ez dira oraindik kontuan hartzen, eragile guztiek helburu berean parte hartu arren, hots, zaintza lanak etxeek eta etxeen baitan gehienbat emakumeek bere gain hartzea gainditu behar dela.

Militantzia politikoak eta azken aldietako Milizia Herritarrak

Lan honen leku desberdinetan jaso izan da euskal gizarteak duen militantzia politiko eta sozial maila altua (Ajangiz & Barcena, 2001; Barcena, 2002; Joxemi Zumalabe Fundazioa, 1999; Mugarik Gabe, 2016; REAS Euskadi, 2023; Zubiaga, 2002, 2014). Baina euskal ekonomia sistema historikoaren ikerle batzuentzat gaiaren ezinbesteko aldea, edozein gizartetan bezala, defentsa fisikoena da; hots, eta eufemismorik gabe, defentsa armatuarena. Idazle hauen aburuz, milizia herritarrak eta erreazio armatuak izan dira euskal gizartearen iraunkortasuna ulertzeko gako saihestezin bat.

Nolanahi ere, jakina den bezala, egungo ‘Milizia Herritarrei’ buruz hitz egitea gizarte modernoetan egon daitekeen gairik arantzatsuen izan liteke. Gai honek garrantzi handia hartzen du gatazka armatuetan antzematen diren dinamika bereziengatik: gerran beren bizitza sakrifikatu ohi dutenak pribilegio gabekoak dira, eta buruzagi militarrek eta aberatsek gutxitan zuzenean parte hartzen dute borrokan. Labur esateko, guda guztietan hiltzen direnak txiroak direlako, jeneralek eta aberatsek gutxi edo ezer ez ‘zikintzen’ dituztelako eskuak zikintzen.

Horrela, edozein herri zapaldu defentsa armaturen bat erditzen badu, alde guztietatik etorriko zaizkio kritikak. Batzuek indar horien alde egin dezakete estatuak talde edo komunitate jakin batzuk babestu ezin edo nahi ez dituen egoeretan, baina indarkeria egoerek populazioa kezkatzen dute beti.

Irizpideak argitze aldera, ‘Milizia Herritar’ deituko zaio hemen erabateko neurrian edo batez ere herritik, eta ez estatutik, sortzen den indar armatuari. Horrek ez du esan nahi gizartearen gehiengoa bat etorri behar denik erabaki horrekin, baina jatorria talde informaletatik dator, ez estaturen baten antolaketatik. Luzeago esateko, herri miliziak soldadu profesionalez baino herritar arruntez osatutako indar armatuak dira, borondatez sortuak gatazka testuinguruetan, sarri tokiko biztanleria defendatzeko, inbaditzaileei aurre egiteko edo arrazoi politiko edo sozial zehatzak laguntzeko asmoz.

Hori onarturik, bakoitzak epaitu beza IK edo Iparretarrak eta ETA erakunde armatua milizia herritarren izan diren, edo Karlistaldian sortutako talde armatu herritarren, ospetsu egin zen Santa Kruz apaizarena bezala, hori izan zirenentz ere. Edozein kasutan, antzinako *Abk* sistema zuzenbide piriniararen bermea izan zuen bezala, milizia herritarren laguntza izan zezakeen, eta hori sistemaren beraren logikarekin doan zerbait da: komunitatearen antolaketa eta ondasunak babesteko, komunitateak erdituko du eta erabakiko du defentsa fisikoa.

Militantzia politikoak eta aurreko Milizia Herritarren

Egun politikoki ez-zuzena izan arren, eta historian desagertzen lehenetarikoa izan ziren arren (horren segida bezala ez baditugu XIX mendeko Karlistadak edo XX mendeko talde armatuak hartzen), herri defentsa armatua azaleratzen, euskal sozioekonomia sistema bertokoaren babes (eta erro) gisa, bi autore nabarmendu dira: Jon Nikolas eta Odon Ulibarrena.

Nikolasek (2019) ondorioztatzen duena deigarria da. Erdi Aro goiztiarreko euskaldunak orduko armada handienei aurre egiteko gai izan ziren, frankoen eta arabiarren armadei, eta, are gehiago, horiek garaitzea lortu zuten, botere aske eta independentea gorpuztu baitzuten, Nafarroako Erresuma. Eta ez zen erresuma feudal arrunta. Hein handi edo txikiago batean, bakoitzak epaitu dezala zenbat, baina ezinbestean heinen batean, bertoko sistema tradizionala islatu zen. Erregea batzar nagusitik irteten zen eta berdin eta bere ondorengoa, ez zuen berak erabakitzen. Aukeratua izatean batzarretatik irtendako foruak onartzen zituen, eta onarpena hain zen senekoa foruak idatzi behar izan zirela zertarako eta, erdi aroa aurrera joan kanpoko erregeek, etorritakoan, sinatu zitzaten (nazioarteko haizutasuna lortzeko errege berriak odolez onartu behar izan zirenean gertatu zen hau). Tenenteen sistema zegoen, ez jaun feudala; lurra kolektibitatearenak ziren, bera ordezkatzeko erregearen bitartez, eta abar.

Nikolasek dioena zera da, horrelako botere egitura bat bi armaden artean egonkortu izana, eta are gehiago egitura bereziki ez-feudala zelarik, bertoko egitura sozial eta ekonomikoak oso indartsuak zirelako. Gizarte ehuna sasoi betean zegoen, ezinbestean. Horrek azalduko luke aurretik armada (edo armada formal) egonkorrik ez zuen herri batek garaiko gudaroste handienei aurre egitea. Beste hitz batetan, antzinako euskal komunalismoak edo abk sistemak garatu zuena antolaketa eta defentsa-egitura autoktono indartsua izan zen, politika, legitimazio eta ugalketa molde bereziki.

Denboran atzerago, Euskal Herrian megalitismoa indarrez eman zela ematen du, bertoko trikuharri, harrespil eta iruinarrien dentsitateari begira. Eta garai hauetan substratu megalitikoan “indoeuropartze sakona” onesten dutenek ere, “sustrai indoeuroparrak dituzten erlijio- eta hileta-forma berriak” abiapuntutzat hartuta, behartuta edo motibatuta daude “hizkuntzaren biziraupena” azaltzen duena “trama espazial (edo politikoa)” izan zela esatera

(Gorrotxategi & Yarritu, 2003, p. 91). Argudio honetan jauzia zera da, eragin kultural zehatz bat menderakuntza soziopolitiko orokorraren froga gisa hartzea. Etorkizuneko arkeologoen gure gorpuen ondoan aterako dituzten telefono mugikor txinatarrak frogatuko al die txinatar komunismoaren egitura politikoaren parte ginela? Hurbilketa gisa hartu ahalko lukete, baina badakigu ez dela horrela. Nolanahi ere, orain nabarmentzen dena zera da, menderakuntza politiko hori egon izan balitz, eta egileen arabera, bertoko biztanleriaren “trama” soziopolitikoaren ondorioz izango zela⁶.

Ulibarrenak bere liburu desberdinetan gaia garatzen du ere (esate baterako, 2003). Handik eta hemendik dokumentatzen ditu jendeek beraien *Abk* sistema edo, bere esanetan, *Auzokrazia* sistema defendatzeko, eginiko defentsa fisikoak. Bere ustez, bertokoen sena gizabide baloreek bultzaturiko auzokrazia da, baina handik eta hemendik euskaldunek ‘handiki’ deitzen duten pertsonaia mota boterezale eta berekoiak agertzen dira, eta horien eta haien aurka, sarri, egin ahal izan duten bakarra indarkeria erabiltzea izan da.

Foru lokaletan eta Foru nagusietan bertokoa defendatzeko behar hau islatzen da, gehigarririk onartu gabe. Alegia, bertokoen beraien lurra defendatzeko beharra onartzen dute, baina harago joatearena ez. Foru lokalen berme honetan Erronkarikoa da kasu ezaguna: Erronkariar soldaduak, Nafarroaren historiako zenbait pasartetan Erreinuaren defentsan laguntza nabarmena eman arren, ez zuten zertan haranetik irten lan horietan. Foru nagusietan bi sistematizatuenean hala bermatzen dute, halaber. Bizkaiko Foruek bizkaitarrek eskualdearen defentsan ‘Aretx Malatua’ delako zuhaitzetik pasatu behar ez dutela onartzen dute (Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1452, 1526, I. Titulua, V. Legea), eta Nafarroako Foru Orokorrek nafarrek Ebrotik pasatu behar ez zutela (1238).

Irizpidea, bestalde, jazoera historikoen eta historiko-mitikoen islatzen dute. Lehena historikoagoa da. Estevan de Garibay-k (1628), Gaztelako erregearen kronikari izatera heldu zen arrasatearrak, zera idatzi zuen. Nafarrek, Errioxa eta Bureba berreskuratzean, gaztelar lautada zabalei uko egin zieten, beren armada garaileentzat eskuragarri egon arren. Hau gertatu omen zen 1160an, Atapuerkan. Antso VI.a Jakituna zuhaitz batetara hurbildu, ezpata han iltzatu, eta zera adierazi zuen: “honaino Nafarroako Erresuma”.

Beste jazoerari mito usaia omen dario, gertaeraren beste aipu historikorik aurkitu ez denetik, baina batek daki zer gertatu zen. Lehen aipua ez da gaztelaniaz ez euskaraz, portugesez baizik: leinu nobleen kronikak eta genealogiak biltzen dituen *Livro de Linhagens* liburuan agertzen da, Pedro de Barcelos gisa ezagutua den autorearena (Dom Pedro Afonso de Portugal, 1340). Bertsio ezagunena, dena den, *Istoria de las bienandanças e fortunas* liburukoa da, Lope Gartzeta Salazarrek idatzitakoa Muskizko San Martin dorretxean preso zelarik. Hona.

Asturiasko erreinua hedatzen ari zelarik, IX. mendean, gudarostea bidali omen zuen hango erregeak Bizkaia konkistatzeko eta zergak biltzeko, bere semearen gidaritzapean, eta aurrera bota zuten Bakiora heldu arte. Hori ikusita, bizkaitarrek merindadeen adarrak jo eta defentsa prestatu zuten. Asturiasko erregeari bataila ‘berak nahi zuen tokian’ izan zedin

⁶ Incluso quienes admiten una “profunda indoeuropeización” sobre el sustrato megalítico vasco en base a “nuevas formas religiosas y funerarias de raíz indoeuropea”, se ven obligados a suponer que “la pervivencia del idioma sólo sería posible porque existía una trama espacial (o política)” que, junto con el desarrollo demográfico, explica “la supervivencia de algunos rasgos de las sociedades previas aun cuando fuesen políticamente incorporadas a una superestructura socio-política indoeuropea” (Gorrotxategi & Yarritu, 2003, p. 91).

eskaini zioten, baina honek borrokari muzin egin zion, zera esanez: ‘ez naiz herri xehearekin borrokatzen, erregeekin baizik’. Orduan bizkaitarrek Mundaka ingurutik *on Zuria* deitzen zutena ekarri zuten, azal zurikoa eta eskoziar errege arrotz baten semea zela esaten zena. Gerra hasi eta bizkaitarrek atzeraka bota zituzten asturiarrak mendebalderantz, Padura inguruan bataila nagusia gertatu arte: hain izan zen latza, harriak odolez tindaturik geratu zirela eta ordudanik lekuak Arrigorriaga duela izena.

Baina non dago Aretx Malatua, istorio honetan? Bizkaitarrek gudaroste inbaditzailearen arrastoak mendebalderantz sakatzen jarraitu zuten, baina Luiaondora ailegatzean, horraino erabaki zen beharrezkoa zela lurra defendatzea, gehiagorik ez. Eta han zegoen Malatu haritza jarri zuten, aurrerantzean, irizpide gisa, beragan ezpata bata sartuz. Hori izan zen, mendeak pasata, eskualdeko Foru nagusian jasoko zena. Bide batez, Arrigorriagako batailan Asturiasko Erregeak Ordoño printzea bere semea galdu zuen, eta bizkaitarrek eskualdeko lehen Jauna irabazi zuten, Mundakako On Zuria hura horretarako hautatua izan zelako, Jaun Zuria izenarekin.

Amaitzeko, Aretx Malatuari eta bere legendari buruz Zarrabeitiak (1837) aipaturiko abesti zahar batek horrela zioen: ‘Odoldurik eldu ginian / mallatu arbola onetara, / eta urren datozenak bere / alan ikusiko gaitubela’. Honela azaldu liteke: ‘Odolez estalita heldu ginen zuhaitz honetara, seinale gisa jo genuena ezpatarekin, eta muga hau zeharkatzen berriro ausartzen direnek ere berdin ikusiko gaituzte hona iristen’.

Erronkariar, nafar zein bizkaitar, istorio eta agerpen guzti hauetan euskal jokabide historiko bat antzeman dute zenbait idazlek: konkista eta gerra eskubideari uko egin diotela euskaldunek beren politika nazionalan (Irujo, 1945). Irudi poetikoetan ere jarria izan da: “Aitor gerraren euskal jainkoa da, inbaditzaileen eta erasotzaileen aurkako borrokan euskaldunen babesle den jainko gaztea”, eta “ez du mugaz beste aldea zapaltzen, Malatu zuhaitzaren legea ez urratzeko”, “hori egingo balu naturaz gaindiko ahalmenak galduko dituelako” (Zumalde, 2004).

Zera guzti hauek beste garaikoak dirudite, egun bakea eta elkarrizketa lehenesteko balorea dagoelako, baina atzeko garaietan defentsa fisikoek zein garrantzia zuten agerian uzten du Gonzalo Villalba koronelak Cisneros kardinalari zuzenduriko eskutitzak. Nafarroako Erresumako babes sistema eraistearen buru izan zen koronela, eta behin betiko eraispentak agindu zituen kardinalak (1512an Gaztelako Erresuma konkistatu osteko urteetan bere 100 gotorleku, gaztelu eta jauregiak eraitsi ziren), eta eskutitzak argi uzten du, garaiko beste dokumentu anitzek bezala, defentsen eraispentak nafarren adoreari eta kemenari jotako talka eta ekarritako kaltea:

*Nafarra hain da fantasiarik gabe, ... ez dagoela gizonik burua altxa dezakeenik*⁷ (ikus *Escribano, 2011*)

⁷ “Navarra está tan baxa de fantasía después de que vuestra señoría reverendísima mandó derrocar los muros, que no ay ombre que alçe la cabeza... Proveymos que algunos muros de algunas villas y lugares del Reyno de Navarra se derrocasen y echasen por el suelo porque era cosa dificultosa haver de poner en cada lugar gente de guarda... De esta manera el Reyno no puede estar más sojuzgado y más sujeto, y ninguno en aquel reyno tendrá atrevimiento ni osadía para se revelar”.

Milizia Herritarrak ulertzeko

Milizia herritarrei buruzko literatura akademikoa deskriptiboa da oro har, balorazio subjektibo gutxirekin (adibidez, Jentsch et al., 2015; Schubert, 2015), ‘Popular Militias’ edo ‘People’s Militia’ bezalako terminoak erabiltzean bezala, beste batzuk erabiltzean, besteak beste ‘Community Defense Forces’, ‘Local Defense Forces’ edo ‘Civilian Defense Units’, karga subjektibo handiagoa egon arren. Bestelakoa da ‘terrorismo’ hitza erabiltzen duen literatura zabala, munduko oso talde armatu gutxik erabiltzen duelako benetan ‘terrorea’ etsaian eraginen bat lortzeko, eta hausnartzekoa litzateke estrategia hori ez den armada estatalena gehiago, talde armatu herritarrena baino.

Gai honetan, dena den, adigaiak argiak eta gardenak dira, ez da azalpen gehiegirik behar, eta emozio beroz jositako gai arantzatsuak dira gainera, beraz, norberak hausnartu dezala atzean utzi dugun atala. Edonola, milizia herritarrak egungo gizartean gai politikoki ez-zuzena izanik ere, tolesgabea litzateke edozein sistema sozialak bere defentsa behar ez duela pentsatzeak, defentsa fisikoa barne. *Abk* sistemaren gainbehera, hein handian, defentsa mota hau galdu izanagatik izan litekeela heinen baten, Jon Nikolasek eta Odon Ulibarrenak azaleratu bezala.

6. Sena, Gizabidea eta Mundu-ikusker

Eguno Euskal Sena, Gizabidea eta Mundu-ikusker

Euskarak oro har, eta eguneroko hizkerak are gehiago, baikortasuna azaleratzen duen monema ugari du (*ba* eta *bait-*, esaterako). Eta komunitate bateko kide izatearen sentipena adierazgarri handienera zabaltzen du: euskaldunontzat, edozein pertsona ezagun edo ezezagun da, berez, *lagun*, eta kidetasuna nabarmentzeko erabiltzen dugu. *Lagun* bati esan diezaiokegu, hurbiltzeko asmoz, ‘zer moduz, lagun’?, baina baita *lagun* ez dugunari ere; eta ‘milaka lagun batu ziren estadioan partidua ikustera’. Sen honekin datozen adibide gehiago aurkitu genezake: gogoaren aurka besteengatik (eta besteentzako) zerbait onartzea *amore eman* edo ‘maitasuna ematea’ da, eta zerbait doan ematea *muxu-truk* edo ‘muxu baten trukekoa’ da. Elkarbanatzera bideraturiko gizarte baten ulergarriak diren esamoldeak dira, eta lagungarriak direnak jokabide horri laguntzeko.

Euskaldunei buruz mundu zabalean ezaguna da *euskaldunen hitza* edo ‘palabra de vasco’ topikoa, Latinoamerikan adibidez erraz aurki daitekeena. Berdin dio, gero ikusiko dugunez, topiko hori erabat egiazkoa den, zera da euskaldunek gogoko dutela topiko hori azpimarratzea, eta ingurukoek sarri onartu izan dutela bere sinesgarritasuna baduela. Eta egite objektiboa da ere euskaraz ‘giza ontasuna’ eta ‘hitzari leialtasuna’ pareko baloreak direla; norbait ‘pertsona ona’ dela deskribatzeko *esanekoa* dela diogu, besteak beste. Eta *zintzo* hitza pertsonaren kalitateari eta bere hitzaren kalitateari aplikatzen zaio: ‘gezurrik gabeko aitortza zintzoa’, ‘iruzurrik gabeko dendari zintzoa’, ‘ustelkeriarik gabeko politikari zintzoa’, ‘promes egiten duzuna zintzo bete’, ‘lana zintzoki egin’, ‘zintzo jokatu’, ‘zintzo ibili’, eta abar).

‘Tabernako eskuinean dagoen koadrilako neskaren beso apurturen igeltsuaren gainean dago edalontzi hori, kulunkan’. Hasieratik amaierara, arreta ‘taberna-taldea-neska-besoa-igeltsua-edalontzia’ bidea egiten fokatzen da, alegia, osotasunetik xehetasunetara. ‘Ce verre est, en balançant, sur le plâtre du bras cassé de la fille du grappe à droite du bar’ esaldiak, alta, aurkako bidea dago: ‘verre-plâtre-bras-fille-grappe-bar’; kasu honetan, xehetasunetatik osotasunetara. Mikel Zarete (1977) zioen euskarak *arrano begirada* duela, eta inguruko hizkuntzek, aldiz, *sugearen begirada*. Fidagarria ematen du euskararen arreta-fokoa komuntzeak behar duenarekin gehiago adosten dela, hau da, lehenik eta behin taldeetan arreta fokatu, eta horietatik norbanakoengana joan (arranoak haranari begiratzen dio, gero horko

bazter bati, eta gero hortxe dakusa sagua). Inguruko hizkuntzek, aldiz, indibiduoengandik hasten dira, eta horiek eta gero doaz, horietatik, taldeetarantz (sugeak gertuko ingurutik datuak jasoz ondorioztatuko du ingurua nolakoa den).

Hiru adibide dira zera erakusteko. Euskarak badituela, zantzuen arabera, komuntzea laguntzen duten emozioak ('lagun'), balore sozialak ('ontasuna hitza mantenduz') eta mundu-ikuskerak ('arrano begirada'). Eta euskara iraunarazten dugun bitartean, ala errotik aldatzen ez dugun bitartean, gure artean azalduko diren 'komuntze egunerokotasunak' dira.

Azkenik, Euskal Herriak gai hauei ematen dien garrantzia balioetsi nahiko bagenu, erreparatu diezaiogun *Gernikako Arbola* kantuari. Ezin uka gure senaren ikurra denik, hain da hedatua-eta. Ereserkietan ere, hiru dira ereserki nazionalerako hautagai nagusiak: *Gernikako Arbola*, *Gora ta Gora* eta *Eusko Gudariak*, baina lehena da adostasun gehien erakartzen duena, euskaldun espainolistena barne (Alberdi, 2013). Nazio ikurrak adosteko egin den herri ekimenak (Nazio Ikurren Lantaldea, 2023), hori hautatu du ere, inkesta bat eta gero. Eta zer da, azken batean, *Gernikako Arbola*? Batzarreen eta haiengandik eratorritako Demokrazia Zuzenaren sinbolo ezin hobea, edozein batzarre zuhaitz bezala. Hau da, *Abk-Zms*ren sinbolo hobeena.

Euskal Sena, Gizabidea eta Mundu-ikuskerak

Euskaratik hautatu ditugun hiru adibide hauek egun irauten duen eta objektiboa den bati buruzkoak direlako aukeratuak izan dira. Dena den, eremu oso zabalaren erakusle dira: komuntzeari ondo egokitzen zaizkion giza emozioena eta adimen eskemena. Max Weberrek (1897) euskal kostaldera bidaiatu zuenean XIX. mendearen amaieran, eta harrituta geratu zenean euskal arrantzaleek ez zituztelako harrapaketak bereganatzen, kolektiboen jabetzat hartuz, zergatik ondorioztatu zuen 'gremio komunismo' sistema zirudiela? Balore soziokulturalekin nahasita eta josita zeudelako ekoizpena eta banaketa. Edozein jendarte antolakuntzak ditu bera laguntzen eta islatzen dituen eskemak, antolaketa soziala mundua ikusteko era batekin parekatzen da beti.

Honi buruz ikerketa kanonikoa Sandra Ott-en *The circle of mountains* da (1993, euskaraz 1994). Iparraldeko Santa Grazin gizarteak bere auzolana eta bizitza nola antolatzen duen azalduz (zoritzarrez, gero eta gehiago, nola antolatzen 'zuen'). *Üngürü* edo 'inguru' da lehen hastapena. *Üngürü* inguruko mendiak eta natura eta fenomeno anitz da, eta baita gizartea bera ere, bizitza ingurua bezala antolatzen delako: mendiek, sasoiak eta auzolanek 'birak' edo errotzioak egiten dituzte ("üngürü bat egiten"). *Aldikatzia* da bigarren hastapena: 'sasoiak, txandak' bezala natura ulertuz eta gizartea antolatuz. Txandek eta ordezkapenek osatzen dute üngürüa, eta bera islatuz jendarteak berak. Eguneroko bizitza, erritoko usantzak, erakunde-zko harremanak, 'lehen auzoak', abereen zaintza eta gaztagintza arautzen ditu mundu-ikuskerak honek.

Begirada ximpleanean, *borobila* edo biribila du ikuskerak honek irudi, baina faseetan edo txandekin eraikitzen dena, eta maila desberdinetan ematen dena, mailen arteko harremanekin, alegia, itsatsirik datorren den espirala balitz bezala. Añamendietako gizarteak biribiltasunaren hastapen honekin nola antolatzen diren ondo gogoratzen dute Santosek eta Madinak (2012).

Baina *borobiltasuna* beste kasu askotan antzeman daiteke. Euskal dantzetan, adibidez, eskema ez da Erdi Aroko eta Aro Modernoko dantza nobleetan bezala, bi lerro egin, bata gizonezkoa, bestea emakumeena, eta batek aurrean daukan bestearekin dantzatzen du, ukiturik gabe (edo ia). Borobila, ordenarik gabeko katean, da konstante nabarmena (Urbeltz, 1994); eta horren adibide leial dira "Paganoseko Txululalai, fandangoa eta arin-arina, Lapurdiko edo

Xiberoako jauziak, [eta] Iribaseko ingurutxua” (Oruetxebarria & Rivas, 2021, 236. orr). Beste isla bat eraikuntza fisikoetan datza. Barandiaran, Caro Baroja, Zaldua, Zenarruzabeitia, edo Oteiza tartean, asko dira saroién, hilarrien edota megalitoen artean biribiltasunean konstantea nabarmendu duten autoreak (hala nola, Zaldua, 2006; Zarrabeitia, P., 2011).

Ekonomien kudeaketa zirkularra, hortaz, elkarrekikotasunezko esparru mentalekin du harreman, bata bestearen isla delarik. Biribilean ez da besteen gainean nabarmentzen den norbait, denak dira kideko eta baliokide. Izatez, adimen eskema hau ez da euskal kulturarena bakarrik, giza espeziearena dela dirudi. Esate baterako, hizkuntza askok dute, euskarak bezala, biribilaren metafora zerbait edo norbait ‘osoa, integrala’ dela esateko; eta hau ‘egia borobila’ da. Zabala da ‘ekonomia eta gizarte antolaketa’ nola bateratzen den ‘euskarri emozional, kontzeptual eta kulturalak’ alderdiarekin. Zenbait adibide gehigarri emango dugu; azterketa luzeago batetarako ikus Euskal Sena Taldea (2022).

Komunalismoa posizio hierarkikorik gabekoa da, eta berdina gertatzen da euskal mitologian, ez dagoelarik pertsonaia desberdinen artean eta istorioen prozesuetan botere harremanen konstantea, indoeuropar mitologietan legez. Mari bera, ‘euskal Jainkosa nagusi’ gisa txarto itzulia dena, eta hobeto ulertzen dena existentziaren irudi nagusi gisa, isla egokia da: etika zorrotza eskatzen du, baina laguntzeko prest dabil beti; ez da Olinpiar jaungoiko gisa besteak zanpatzen ibiltzen; beharretan bazarete zuen etxeko ortua landatuko du gauaz; eta nahikoa da hiru bider sorginkeria formula zehatza errepikatu zure parean agertu-arazteko, bitarteko abaderik gabe (Renteria-Uriarte, 2022). Mari, horrela, naturaren eta bere zikloen irudi xaloa da, joria. Jakina euskal mitologian, munduaren osotasuna ulertzen duen edozein ikuskeran bezala, botereak eta indarkeriek lekua badutela (Arana, 2014), baina ez da zutabe ez erro, indoeuroparretan bezala (Dumézil, 1968; Durand, 1960).

Botereaz harago, euskarán eta euskal mundu-ikuskeran bada ere identitatea ez sustatzeko joera. Norbanakoa etxearen edo abizenarekin identifikatua azaltzen da, eta etxeak natur ingurunearekiko deitzeko joera dago. Horrela, jendeak ez dio ‘nor zara zu?’ galderari erantzuten bere pertsona edo ‘lehen’ izenarekin, bere etxe edo sendi ‘bigarren’ izenarekin erantzuten dio, giza-esparru natural baten alde gisa (oso ondo azaltzen du lehen kapituluán Montesinosek, 2013). Beste isla: euskarak duen ‘gutartasuna’ lehenesteko joera, ‘gure ama’, gure etxea’... Are gehiago, euskarak berak ez dakar identitatearen adigaiá itsatsirik (Baltza, 2000). Oteiza konstante hau antzinate urrunetik ikusi dutenen artean ezagunena da ziur aski (1963, 1995).

Oro har, gizakia naturarekin eta kideekin harreman naturalean eta dialektikoan bizi da, naturaz gáindiko jainkoengan inolako sinesmen eta beldurrik gabe, eta kideekin parekotasunean, biribilean bezala. Euskal naturalismoa ahierarkiko honek, euskarán eta euskal mitologian erro sendoak dituená, egokiena dirudi komuntzea eta naturaren zaintza auzolanean egiteko. Zu ta biok eta natura maila berean gaudela kontsideratzen badugu, errazagoa izango da komuntzea. Oro har, hondo emozional positiboak, hizkuntzan baiezko partikulak, berekoikeria eta zikoizkeria maitasunez onartzen dituen lehiakortasuna saihestea, eta giza komunitate kide izatea, ezin konta ahala lagundu beharko lukete partekatzen eta komuntzean; eta sistema kapitalistak ez bezala, lehiakortasunean, berekoikeria, gutizia eta indibidualismoan, aldarte emozional negatiboetan eta hizkuntza guduzalean hobe dabilena.

Euskal Sena Taldeak (2022), adibide gehiago eman eta gero, mundu-ikuskerá honek euskal elkarbanatze eta komuntze sistemak lagundu dituela dio, euskal kultura Europa mendebaldarraren baitan bizirautea lagunduz. Odon Ulibarrenaren (2023; 2003) iritzia beretsua da beste hitzekin, bere ustez euskal *auzokrazia* sistemaren *Gizabide* edo euskal

humanismoak islatu, lagundu eta iraunarazi du. Azken batean, mundu-ikuskerak eta sozio-ekonomia alderdien isla eta funtsa amankomunei buruz ari gara.

Euskal Mundu-Ikuskerak Komunalista

‘Gremio komunismoa’ (Max Weber).

The circle of mountains (Sandra Ott).

Borobila irudi komunal gisa (Santos eta Madinak). Euskal dantzetan (Urbeltz). Eraikuntza fisikoetan (Barandiaran, Caro Baroja, Zaldúa, Zenarruzabeitia, Oteiza).

Mitologia berdinak a-hierarkikoa (Hartsuaga)

Identitaterik eza (Jon Baltza)

Izen indibidualik gabeko izenak (Lidia Montesinos).

Euskararen ‘gutartasuna’, gizakia naturarekin eta kideekin harreman naturalean, eta abar (Euskal Sena Taldea)

Abk-Zms akronimoko *s*-ak erakusten du guzti hau. Berdin zion *euskal senetik s* hartzeak, *Gizabide* hitzetik *g* hartzeak, ala *Mundu-ikuskerak* adigaitik *m*-a hartzeak, baina azkenean *s-a* erabaki dugu Euskal Sena Taldeak nabariarazi eta azpimarratzen duen ‘*sen*’ horrengatik. Alegia, euskal nazioak baduela ‘joera, bulkada, instintu, sen’ berezi hori bere historian, eta horrek biziraupena bermatu diola. Badakigu II. Gerrate Mundialaren ondoren ‘herri mundu-ikuskerak, instintu, volksgeist’ eta horrelakoak maila akademikoan gaizki ikusita daudela, baina har bedi ‘joera edo bulkada historiko’ horren metaforatzat eta ekintzaile sozial hauen iritziaren islatzat. Hori onarturik, milurtekoen zehar, *abk* bezalako sistema bat ahalbidetu eta mantendu duena mundu-ikuskerak honen bulkada litzateke; hau litzateke euskaldunen sena, *euskal sena*. Berdintsua dio Mitxeltorenak:

Gure arbasoek emandako ondare honi esker bizirik iraun dugu herri moduan. ... XXI. mendera arte, eta hemendik aitzinera ere, herri nola pertsona gisa bizirauten lagunduko digu (Mitxeltorena, 2013-n).

Adibidez, Mikel Pozok (2016) berraztertu egin ditu Baskoniako lau mendeko erromanizazioaren aztarnak, Inperioan erabat sartua zen eskualdea zela ondorioztatuz; baina hori onarturik euskararen iraunkortasunaren enigma handitu egiten dela erasten du Peio Monteanok (2023): nolatan ba latinizaziorik gabeko erromanizazioa, Europako hegoalde osoan biziraungo duen hizkuntza bakarra izateko? Monteanoren ustez, ezin zitekeen hizkuntza nagusitasunagatik edo praktikotasun batengatik izan, bertoko biztanleek beren hizkuntzarekiko atxikimendua edo kontzientzia motaren izan beharko zuten. Eta berdintsua dio Odriozolak (2017), geroko garaiei buruz, esan nahi da, erdi arotik datozkigun garaiei buruz. Euskararekiko nazio atxikimenduak azaltzen duela, ezinbestean, bere irautea.

Parekoa dio, auzolanari buruz, Egin Ayllu (2014) kolektiboak. Baina gai honek adar gehiago du, beraz, har dezagun airea.

Euskal Sena

Euskal Herriak ba omen du historian zehar bulkada, joera edo 'sen'
bereizgarri bat, adibidez...

Euskeraren iraunkortasuna nola? Nazio atxikimendu batengatik
(Monteano, Odriozola).

Auzolanaren indarra zergatik? Bertokoen "ezinbesteko joera" delako
(Egin Ayllu).

Euskal Herria nola mantendu da? Abk-gaitik, Auzolanaren kulturagatik
(Euskal Sena Taldea, Mitxelorena).

'Euskal Herria Komunala' deitu dugun gizarte alderdi horren ezaugarriak deigarriena ekintzaile hauek nabarmendu duten 'nortasun ikur' horretan datza, kultura senean ez bada. Alderdi komunala gizarte guztietan liteke bertaratua, hauek hilik ez balira behintzat, baina Euskal Herrian da 'identitate sinbolo' gisa hartu direla. Esate baterako, ohituraren bidezko arautzeak eta zuzenbideak mundu guztian ematen dira, Europan eta Iberiar Penintsulan forma idatzietan amaitu dutelarik. Leongo forua 1017an idatzi zen, Gaztelako batzuk XIII. mendean, Valentziakoa 1261an, Kataluniako konstituzioa deitua 1283an. Eta Zuzenbide Piriniarreko eremuan garai berdintsuan izan zen: besteak beste, Jakako forua 1076koa da, Biarnokoa 1080koa, Aragoiko forua 1283an (Sobrarbeko forua aipatua izan da lehenagoko gisa, baina ez dago dokumentaturik). Alabaina, Euskal Herria izan da Foruak nortasun ikur eta aldarrikapen gisa nabarmendu dituen. Honela dio Mercedes Galánek

Nafar identitatearen elementu eratzailertako bat da bere zuzenbidea, Foru terminoarekin adierazia eta irudikatua. Ez alferrik, Nafarroa baita Foru izenondoa daraman hamazazpi erkidegoetatik bakarra. Izen horrek, Foru Komunitateak, adierazten du Nafarroak bere eskubide edo araubide juridiko propioari eutsi diola denboran zehar eta gaur arte etenik gabe. Alegia, historian ez da egon eskubide edo erregimen hori bere osotasunean eten den garairik, denboraren poderioz dezente murriztu den arren (Galán, 2020).

Zuhaitz 'komunalekin' da pareko adibidea. Mundu osoan dira zuhaitzak sakratu, eta leku askotan dira batzar leku (ikus adibidez Abella, 2016). Baina nazio ereserki gisa hartzen Euskal Herria nabarmendu da, *Gernikako Arbolarekin*.

Auzolanari buruz Egin Ayllu (2014) kolektiboak dioena zera da: lan komunalak kultura guztietan edo gehienetan ematen dira, baina euskal komunitateen esperientzia hau bertoko kulturaren "ezinbesteko" dimentsio edo "joera" batekin lotzen dute. Auzolanaren "instituzio" bat da, eta horrekiko "joera" naturala bide dago, bai iraganean eta bai orainean, auzolana eta komunitatea "nortasun edo identitate" seinale bihurtuz egungo Euskal Herrian, eta XXI. mendean hori biziberritzeko ahaleginak eginez.

Foruak, Gernikako Arbola eta Auzolana, nazio ikur bihurturik. Eta horrekin loturik dauden beste gaiak, matriarkalismoa bezala, horretatik gertu ere, dakartzaten polemikek ezindu duten arren, ziur asko. Dena den, kontraesan serioagoak dira ere hor. Adibidez, zer dela eta Eusko Jauriaritzak edo Nafarroako Gobernuak ez dituzte hartu Batzarreak marketin ikur gisa, Auzolanarekin egin duten bezala? Erantzunak ez dirudi zaila: erakunde estatalek auzolana baliatu dezakete gastuak murrizteko, baina batzarreak beren demokrazia formal ordezkatzaileren aurka doaz zuzen-zuzenean.

Hala ere, oro har eta ñabardurak ñabardura, Euskal Herriak bere burua *Herri Komunal* gisa agertzen gogoko duela ematen du, atzeko adibideek erakutsi bezala, horren kontzientzia oraindik ez dugun arren.

Euskal Herriak bere burua Herri Komunal gisa sentitzea gogoko du

Ohituraren bidezko arautzeak eta zuzenbideak mundu guztian ematen dira... Baina Euskal Herriak hartu ditu *Foruak* nortasun aldarrikapen gisa.

Zuhaitz ‘komunalak’ mundu osoan dira... Baina Euskal Herriak du *Gernikako Arbola* nazio ereserki gisa.

Lan komunalak edonon dira... Baina Euskal Herriak du Auzolana nazio ikur bihurturik.

Euskal Sena eta Gizabidea ulertzen: mundu-ikuskerakomunalistaren adigaiak

Alderdi ekonomikoak, sozialak eta epistemikoak elkarren osagarri, menpeko eta isla direla literatura akademikoan sarri azaleratu den ideia da, parekotasunak ausazkoak ez direla nabarmenduz. Gizarte baten ekonomia-sistema eta bizitza-ikuspegia elkarren osagarri direla nabarmentzen Weber (1905/1906) da klasiko ukaezina eta ziur asko ezagutuena. Aipatua da Polanyi (1944), eta oro har Antropologiako funtzionalismo ekonomikoak zera ulertzen du: gizarte-erakundeak eta praktikak, ekonomikoak barne, elkarrekin lotuta daude gizarte-oreka eta egonkortasuna lortzeko, adibidez, ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa harreman ekonomikoak sendotzen dituzten lan banaketarekin eta harreman sozialekin egiten dira (cf. McGee & Warms, 2017; Robbins & Dowty, 2021).

Inguruko gaiak aztertzen ezagunenak diren autoreen artean ere, batzuk irizpide honi jarraitzen diote, esate baterako, Samuel Huntingtonek (1996) munduko politikari buruz egindako diagnostikoan eta aurreikuspenetan zibilizazio aldeanitzak ditu eragile gisa. Baina gehienek, egia esateko, ‘ekonomia→gizartea’ kausalitatean murgildurik daude, Karl Marxengandik (1894c) hasita (‘egitura ekonomikoak gainegitura ideologikoa determinatzen du gehien bat’) eta Harariren (2014) best-sellerrera (‘Nekazaritza Iraultzak gizarte egitura, ingurunearekiko harremana eta sinesmen kulturalak errotik eraldatu zituen, eta Industria Iraultzak, zientziak lagundurik, mundua hautemateko modua aldatu zuen’). Bakan batzuek soilik iraultzen dute tortila, eta ‘ikuskerak→ekonomia’ kausalitatea argudiatu, Lynn Whiteren (1967) klasikoan bezala, naturaren gaineko giza nagusitasunaren kristau ereduak ingurumenaren suntsipenarekin bat datorrela dioena.

Edonola, ‘mundu-ikuskerak’ adigaiari buruzko ikerketa asko zabaldu eta ñabartu da azken hamarkadetan (Renteria-Uriarte, 2024). Bestalde, estrukturalismoak badu irizpide ezaguna, hots, ‘ikerketa objektuen ulerpena bere baitan hartzen dituzten osotasunen arabera’. Eta hau goitik-behera jarri du hastapen gisa paradigma holografikoak: ‘edozein ikerketa objektu errealtatearen osotasunaren isla eta mikro-kosmosa da’, eta hau zientzia ekonomikoari ere ezarri dakioke (Renteria-Uriarte, 2013, 2015).

Hemen ‘ekonomia-gizartea-ikuskerak’ hirukoaren parekotasunak islak bezala hartu dira, trinkoak izate aldera: komuntzea biribilaren, sasoiaren txandakatzearen eta inor ez nabarmentzearen logikarekin harremana izanik, leiala da kausalitate aristoteliko, lineal edo binarioak ez lehenestea, eta dena atzeraelikadura lauso edo ‘fuzzy’ gisa berdintasunean hartzea, bata bestearen isla gisa harturik. Baina, bestetik, ez da eraginkorra izaten lehen ekonomia, gizartea eta mundu-ikuskerak bata bestetik azaltzea. Gutxitan ala inoiz ez doa ekonomia alde batetik, edo gizartea bestetik, edo ikuskera sozialak handik; beti etortzen dira esku beretik. Horrela da ere euskal ekonomia eta gizarte sisteman. *Abk*-ak beti du *Zms* isla eta ispilu, eta alderantziz ere berdin.

Horrela, ekonomia komunalistak eta mundu-ikuskerakomunalistaren eskutik datozela izan da irizpidea. Adibide zehatza da Isintua Saharapeko Afrikan, mendebaldean ezaguna den

Ubuntuari loturik: “Komunal izateak jakinarazten digu... norbanakoa pertsona dela beste pertsonen bidez, jendeak ia dena partekatzen ikasten duen ikuspegi komunitario batean” (Moyo, 2021, 125-126. orr; hizki etzanak nireak dira)⁸.

4-6. Zms: Zuzenbide Piriniarra-Milizia Herritarrak-Euskal Sena, euskal gizartearen bermeen babesak

Zms deitu diogu *Abk* sistemak gertuen duen berme sistemari, *Zuzenbide Piriniarra-Milizia Herritarrak-Euskal Sena* hirukoa laburtuz. Pixka bat luzeago, euskal ekonomia eta gizarte sistema bertokoari buruz ari izan direnek nabarmen azpimarratu dute *Zuzenbide Piriniarra* delakoaren alderdi juridikoa, baina badira defentsa fisikoaren aldea azaleratu dutenak, eta baita gizarte mota horrek berarekin dakarren mundu-ikuskeran nabarmendu dutenak ere. *Abk* sistemak behar edo eskertzen duen berme alderdia litzateke *Zms*, hortaz. Atal honetan *Abk*-ri buruz esandako gogoeta berberak aplikatuko dizkiogu *Zms*-ri.

Zms berme sistema zehatz gisa

Edozein sistema sozialak behar ditu indar handiagoko edo txikiagoko babesak, denboran iraun ahal izateko. Horrela da euskal kasuan ere. Murrayk (2016, 21-22 orr.) dioen bezala, Baigorriko komunalen kudeaketak herritarra izaten jarraitzen du gaur egun ere, Frantziako estatuan harrigarria eta miresgarria dena. Horrelakoak ez dira gertatzen inguruan berme sistema baten laguntza ez bada, denboran zehar botereek berme sistema honen alderdi handia desagertzea lortu izan duten arren.

Autoreek gehien nabarmendu dutena *Zuzenbide piriniarra* da. *Abk*-k duen ala, hobeki esateko, ‘zuen’, berme juridiko hau Nabarralde elkartearen argitalpenetan oso ondo azaldua da, eta horien baitan ala horietatik kanpo zenbait autore nabarmentzen dira: Iñigo Larramendi, Félix Rodrigo Mora edo Jon Nikolas, besteak beste. Milizia herritarren nabarmentzen askoz gutxiago dira idazleak: esandako Jon Nikolas eta Odon Ulibarrena. Eta euskal mundu-ikuskeran gogorarazi du Sandra Ottek, Maite Lafourcadek, Odon Ulibarrenak eta Euskal Sena Taldeak bezalako salbuespenek. Baina, diogun bezala, leloa litzateke euskal herriaren kasuan ez dela edozein gizartetan gertatzen dena errepikatzen, alegia, ekonomia eta gizarte sistema babes juridiko, defentsibo eta filosofikorik gabe gizaldietan edo milurtekoetan mantendu izana.

Literaturan agerturikoa eta babes bakoitzak duen objektibotasuna ikusirik, horrela ordenatzea erabaki da hemen, *z*, *m* eta *s* hurrenez hurren. Bestelakoa egin zitekeen, baina eraren baten edo bestean jasotzeak saihestezina dirudi. *Abk*-k isolaturik ezin duela biziraun argia dirudi. Adibidez, Euskal Herriko ehun komunalistak bere bermeak galdu dituen garai modernoan, Frantziako Iraultzaren eta Karlismen ondoren Foruak eta eskualde historikoetako Batzar Nagusiak ezeztatu zirelarik, alegia, *Zuzenbide Piriniarra* eta euskal *Miliziak* eraitsi zirelarik, horrek ekarri (edo, behintzat, lagundu) zuen beherakada nagusia. Eta behar historikoa horrela izan bada, ezin ba *Abk* ondo ulertu ere, eskema teorikoan jasoa izan gabe.

⁸ “being communal makes one know that ... a person is a person through persons, ... [in a] communalist worldview where people learn to share almost everything (Moyo, 2021, 125-126. orr; hizki etzanak nireak dira).”

Zms gizarte mugimenduen alderdi gisa

Abk-ren kasuan antzematea errazagoa izan arren, berdinki egin liteke *Zms* moduko bermeak ulertuz gizarte mugimenduen alderdi gisa. Edozein mugimenduk nahiko luke bere helburua zuzenbideren batetan edo, gutxienez, jokabide onarturen batetan islatua ikusi. Nahiko luke bere ideiak ondo babestuak izan, defentsa fisikorik gabeko babesa nahi denean ere. Eta denek dute beren baitan, edo nahiko lukete, trinkoak edo konsistenteak badira behintzat, jardueri eta helburuei euskarria emateko ikuspegi bereziren bat, maila txiki edo handiagoren batetan mundu-ikuskerara dena.

Gizartearen orokortasuna ikusirik, badirudi honelako bermeren bat galtzen denean, jendearen joera edo sena bera kontrapisuak jartzen hasten dela. Euskal Herriko ehun komunalistak bere bermeak galdu zituenean, behar hori islatzen dute mugimendu sozialen sareek eta nazio mailako egituren proposamenek, eta baita inspirazio komunalistako beste hainbat herri ekimenek ere, ikusi bezala. Hor ‘joera, arnas, jite, bulkada, sen’ berezia egon liteke (Euskal Sena Taldea, 2022-k iradoki bezala) ala ez, baina komuntzearen aiurria (*Abk* bezalakoa) eta komuntzea bermatzeko aiherra (*Zms* bezalakoa) bertaraturik dakartela ematen du, kontzienteagoa ala ez hain aditua, handiagoa ala txikiagoa, izan (hainbat mugimendu sozialak, hori zer den jakin gabe, zentzu komunala islatzen duten ekimenak lirateke, goian proposatu bezala).

Euskal Sena Taldeak azaleratu duen euskal sena matxino eta burujabearen bulkada berekoak lirateke. Eta inoiz sistema berpiztuko balitz, zera aurreikus liteke, herriaren gihar hau prest eta sasoian egongo dela prozesuari arnasa emateko.

Zms borroka gisa

Zms-k azkenik, *Abk*-k bezala, bere *Zuzenbide Piriniarra-Milizia Herritarrek-Euskal Sena* osagaien aldeko egungo gizarte mugimendua deitzeko balio lezake. Batetik zuzenbide bermea berreskuratzeko dabil hamaika ekimen; baten bat aipatzeko, *Ehun* mugimendua (ehun.eus) Euskal Errepublikaren aldeko ekimen gisa. Eta inoiz handik eta hemendik defentsa fisikoaren beharra mahai gainean ekartzen dutenen ondoan edo ondoren, *euskalsendun* irudia izan liteke erradikalena (Euskal Sena Taldea, 2022). *Abk-Zms* eskemari euskarria ematen dion euskal sena gogoz eta berariaz ezagutzen eta praktikatzen duen laguna litzateke, hortik *euskalsen-dun* izendapena. Euskal herritarrok antzinetatik praktikatu dugun ekonomia eta gizarte mota eta dituen aztarnak mantendu, eguneratu eta sustatzeko ardura jasoko luke.

7. Euskal ekonomia eta gizarte sistema: *Abk-Zms* komunala

‘Euskal ekonomia eta gizarte sistema’ diogunean ez gara ari azalekoa eta agerikoa den sistema eta bere botere mekanismoei buruz, alegia, begien bistakoa da Euskal Herriek, sistemari dagokionez, egun dutena kapitalismoa dela eta, botere mekanismoei dagokienez, bi estatu eta hiru egitura politikoetan zatiturik daudela. Esan nahi duguna zera da, benetan jendearena den eta jendearengandik sortzen den erreakzioen eta jokabideen sakoneko sistema eta boterea: jendearen ekonomia natural edo berezkoa eta, horretan, burujabea den erabakimena.

Hori onartuz, ‘Euskal Herriak badu berezko eta bertoko ekonomia eta gizarte sistema, komunala dei dezakeguna eta *Abk-Zms* gisa laburtu daitekeena’. Identitate kulturalak xaxatzea gaizki ikusita dagoen garaian, eta bote lasterrean harrapatu, erabat lekuz kanpoko irudi dezake baieztapenak. Baina epaitzen hasi baino lehen, zenbait adigai dira ulertu beharrekoak.

Hasi gaitzen esandakoak gogoratzen eta, segidan, horiek ulertzeko lau adigai proposatuko dira: *idealtipus* edo errealitate baten alderdi bat gako gisa hartu errealitate hori

ulertzeko, *Sharing Society* edo partekatze ekonomia gako gisa hartu gizartearen osotasuna ulertzeko, *ekonomia naturala* gizateriaren jokabide berezko gisa, eta *mundu-ikusker*a banatze gizartearen ezinbesteko osagai gisa.

Abk-Zms hiru hitzetan

Abk-Zms laburduran *Abk*-k erro sozioekonomikoaren ikuskera laburtzen du, eta *Zms*-k horrek duen osagarri eta babesa. *Auzolana* ekoizpenera bideratzen den energia fisikoa da, *Batzarreak* energia sortzailea eta erabakitzailea dira, eta *Komunalak* ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenerako eskuragarri eta erabilgarri dauden baliabide fisikoak dira. Horrek ez du esan nahi beti eta edonon absolutuak direnik. Sarri gizarte komunalek dakartzaten jokabide eta filosofia dira, kasu guztietan aplikatu beharreko lege saihestezin zurrinak baino. Sistemako lehen osagaia adibide egokia da; has gaitezen beragatik.

Auzolanak lan komunalak dira, baina horrek ez du zertan gizarteko lan mota bakarra izan. Hasteko, lan mota hori, gizarte komunal batzuetan, lan mota ia bakarra izan daiteke, sarri edo ia beti behar komunaletarako denean; muturreko kasuan, sukalde eta ehiza komunala dagiten ehiztari-biltzaileen gizarteak, Hadzak bezala (Marlowe, 2010). Baina beste gizarte komunal batzuetan lan pertsonalarekin txandakatzen da; esate baterako, Trobriandeko herrietan, Malinowskik (1922) ezagun eginak, ‘sagali’ direlako bazkariak ez baitira era komunalean ekoizten, gizarte komunalak diren arren. Azkenik, lan komunalak jabego komunaletarako izaten dira normalean, baina jabego pribatuetarako izan daitezke ere, adibidez, ezkonberri batzuei etxea eraikitzen lagundu.

Euskaldunen kasua azken ereduarekin lerrotzen da. XXI. mendera biziraun duten aztarnak, eta XX. mendean dokumentatuak, komunalen eta etxearen ingurukoak dira, baina etxean dira lan gehienak. Zentzu tradizionalan etxea modu pribatuan erabat ulertzen ez den arren, komuntze logikarekin baizik (ikus goian), ez da izatez komunala. Auzolana, beraz, ez da ekoizpen nagusia. Baina ekoizpen gune nagusia, alegia, etxea, komuntze logikaren pean kudeatzen den heinean, horko lanek badakarte auzolanaren logika; gogoratu, ‘etxea ez da zuretzat, zu zara etxerako’.

Batzarreak eztabaida-gaitzagoa den osagaia dira. Gutxi jarri lezake kolokan, egungo batzarreak antzinakoen ondorenak direla eta, zenbat eta atzerago, estatuaren egiturak urriagoak eta batzarreak ugariagoak egitura osoa osatu arte, euskal herrietako biltzar nagusiek erakusten duten bezala. Horri buruz literatura zabala da eta ez dugu errepikatuko.

Komunalak ‘jabego herritar’ gisa interpretatu daitezke, baina hori hurbilketa batetan. Izan ere, sistema komunaletan propietaterik (eta berak inposaturiko mugarik) ez dago, eta jabegoa benetako *jabon*, *jagon* edo zaintza gisa ulertzen da, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenerako eskuragarri eta erabilgarri dauden baliabide fisikoak har behar direlarik ‘komunalak’, besterik ez. Zentzu zabalagoan ulerturik, eta gaur egungo adieran, ‘komunalak’ ‘komunalak deitzen ditugun natur baliabideen zaintza eta kudeaketa komunitarioa litzateke, alegia, *k* zehatzak *Abk* osoa ordezkatzeko du.

Abk-Zms laburduran *Zms*-k erro sozioekonomikoaren babesa laburtzen du. Irudi batean emateko, euskal gizartearen bermeen erredola edo ezkutua litzateke, hortaz. Goazen besterik gabe banan-banan xehetzera.

Zuzenbide Pirenaikoa *Abk* egonkortzen eta bermatzen duten ohitura, ohituratik eratorritako arau sozialak, edota arau sozialetatik eratorritako lege idatziak dira (ohartu ‘edota’ esan dela, hau da, lehen urratsa nahikoa izan liteke helburua lortzeko).

Milizia Herritarrak adigai gisa hartu beharko litzateke, herritik beratetik goratzen diren Abk-ren defentsa fisikoen bilduma gisa. Esan bezala, norberaren hausnarketarako uzten dugu XIX. eta XX. mendean emandakoak hor bertan sartzen direnentz. Nikolas eta Ulibarrenaren arabera, edozein kasutan, ukazina da iraganen izan zuten babes zabal eta gogorra.

Euskal Senak babes soziala, hau delarik gizabidearen euskal ikuspegia, eta babes kontzeptuala, hau delarik euskal mundu-ikuskerakomunalista, islatzen eta indartzen ditu. Azken bi hauen indarra eta biziraupena ikusirik milurtekoen zehar, horiek sen edo 'instintu, bulkada' kontsidera daitezkeela dio Euskal Sena Taldeak. Bakoitzak izan dezala hor berriz ere iritzia baina, sakonduko dugunez, bada sen horrek ekarritako inplikazio gehigarriak.

Baina *Abk-Zms* sistema gisa ulertu behar da. Nondik hartu, era beretsuan deskribaturik amaitzen du. Adibidez, ekin diezaiogun *Demokrazia Komunal Sareak* lehenetsi duen ikuspuntutik (Auzogile, 2022). *Komuna* bere burua gobernatzen duten pertsonen talde gisa ulertzen da, tokian tokiko mailan eta modu parte-hartzaileekin beren behar kolektibo eta pertsonalen asebetetzea antolatzeke, eta *Demokrazia Komunala* 'behetik gorako' erabaki sozioekonomikoen egituraketa politiko gisa, erkide diren edota filosofia horretan antolaturik dauden ondasunen gainean.

Zentzu soziala du beraz, ekoizpenaren edo lanaren gaineko alde guztiak ere barneratuz: jabetza, arauak/zuzenbidea eta babesa/defentsa ere komunal gisa ulertzen dira. Zentzu global honetan, *komunak* gizarte komuna edo lan, erabaki, jabetza, zuzenbide eta defentsa sistema erkideak dituen sistema adierazten du. Eta berdina da *Abk-Zms* egiturarekin. Har genezake 'b' edo *Batzarreen demokrazia* hari gisa, ala beste edozein: hortik tiraka, sistema osoa deskribatu eta ulertu ahal izango dugu.

Abk-Zms ulertzen: Idealtipus, Sharing society, ekonomia natural eta mito sozial gisa

Abk-Zms eredu bere horretan ulertzeko saihesti behar dugun lehena ereduak era literalean hartzea da. Erraza da hori 'gauza ideal eta irreal'izat hartzea, adigaiak gure adimenean betetzen duten zeregina ondo ulertu gabe. Denok dugu argi, adibidez, 'Frantziako Iraultza' eman zela. Baina benetan eman zen iraulia? Boterean zegoena, noblezia feudala, gizartearen maila ertainean zeuden burgesekin irauli zen, hori bai.

Baina benetan gertatu zen Frantziako Iraultzan 'beheko' txiro-txiroak ziren nekazari eta artisauak 'goiko' boterera igo zirela, iraultza bete eman? (Gora-behera guztien amaieran gobernuaren kontrola Napoleonen eta bere kideen eskuetan geratu zen, gehienbat militar altuak eta burges elitekoak). Eta benetan eman al zen boterea bera iraultzea eta hierarkiak ezestea, iraultza bete-bete eman? Ez, agerikoa denez. Arraultzak eta opilak iraultzen ditugunean bezalakoa ez zen han gertatu, erdipurdi baizik.

Nolakoa da, hortaz, uste hori? Frantziako 'Iraultza' adigai erlatiboa da, lanabes kontzeptuala, eta horrela ulertu behar dugu, ez bere literaltasunean.

Hemengo ereduarekin berdin gertatzen da. Zera ez da literalean eta zurrunki, inolako aldaketarik gabe, *Abk-Zms* inoiz existitu izan den frogatzea eta hori onartzea. Eredu gisa duen ulermen boterea, hots, gauzak ulertzen laguntzeko ahalmena, hori da balioestekoa. Batez ere:

1. 'Tipo ideal' gisa ulertu beharko genuke, alegia, errealitate baten alderdi gisa, errealitate hori ulertzeko eta izendatzeko balio berezia duena. *Abk-Zmsean* 'errealitatean oraindik dauden' 'praktikak, jokabideak eta hastapenak', eta oraingo hauek praktika, jokabide eta hastapen historikoen 'aztarnak' direlako argudioak, tipo ideal gisa onartuak izateko indar nahikoa dute.

2. Multzo honek ‘banatze gizartea’ edo ‘gizarte-alderdi bat’ osatzen du objektiboki, alegia, gaur egun oraindik dokumentatu daiteke ‘praktika, jokabide eta hastapen’ hauen saskia. Gizarteren batetan alderdi horrek bere harreman sozialen gehiengo edo osotasuna inplikatzeko badu, orduan bai zalantzarik gabe ‘Sharing society’ edo *jendarte erkide* betea edo integral gisa hartu eta deitu ahalko genukeela. Euskal Herrian ez da egungo kasua, jakina, eta iraganean hori gertatu zenentz, hor litzateke eztabaida.
3. *Ekonomia Naturala* ‘lan- eta erabaki-jarduerak, erabilera-esparruak eta babes-esparruak, talde batek berez, era naturalean eta espontaneoki eginak’ bezala definituz, eta hori ikuspegi komunalek argudiatuz, *Abk-Zms* ekonomia natural gisa onar genezake.
4. Edonola, Euskal Herriko mugimendu sozialen gune aldarrikatzaile batek bere gain hartzen du egitura hori utopiatzat eta mito sozialtzat, gizarte berdinkoiago batetara hurbiltzen joateko eta, ahal den heinean, era prefiguratioan burujabetasuna aurreratzen joateko.

Atal honek adigai bakoitzaren esanahia labur azaltzen du.

Abk-Zms= Idealtypus ← egungo errealitateak dira + aztarna historikoak direlako argudioak
 = **Sharing society** ← egungo gizartearen alderdi bat + antzinean, beharbada, gizarte osoarena bereizgarria
 = **Natural economy** ← lanak, erabakiak eta babesak, era naturalean eta espontaneoki, talde batek arazoak gainditzeko
 = **Social Myth** ← EHko mugimendu sozialen gune aldarrikatzaile batek bere gain hartzen duen utopia eta mito soziala

Idealtypus edo *Tipo ideala* errealitate batengan “alderdiren bat edo gehiago nabarmenduz” lortzen den “eraikuntza analitiko” da, Weberrek proposatu bezala (1904, 90. orr.), errealitate hori edota besteak ulertzeko laguntzen diguna. Tipo idealak inoiz ez dira errealitatearekiko absolutuak, nahasian ageri dira beste alderdiekin, baina gako bezala hartzen dira zernahi ulerpen lortzeko. Adibidez, “ez da inoiz izan ‘etika protestantearen’ [edo] ‘lider karismatikoa’ gauzatze enpiriko osoa” (Coser, 1977, 223. or.). Baina tipo ideal horiek baliagarriak izango zaizkigu metaketa kapitalista historikoan garrantzi handia izan duen etika mota zehatz bat ulertzeko, osagai protestante nabaria duena. Edo masa psikologian eragin handia duen pertsona mota zehatz bat nabarmentzeko, karisma osagai handia duena. Gailu heuristikoa da tipo ideala, beraz (Hedlund-de Witt, 2012, 80. or.).

Idealtypus, ‘Tipo Ideala’ = errealitate batengan “alderdiren bat edo gehiago nabarmenduz” lortzen den “eraikuntza analitiko”, errealitate hori edota besteak ulertzen laguntzeko (Weber 1949).
 ‘Etika protestantea’ = osagai protestante nabaria duen etika → metaketa kapitalista ulertzeko
 ‘Lider karismatikoa’ = lidergo eta karisma handiko norbanako tipo bat → masa psikologia ulertzeko

Sharing Society edo *Partekatze gizartea* oraindik literatura akademikoan finkaturik gabeko adigai da, baina esanahiak honakoak lirateke (Renteria-Uriarte & Öner-Kula, 2024). *Sharing economy* edo partekatze-ekonomia, gaiari buruzko literatura modernoan, kontsumo kolaboratzailea egiteko formulatara murrizten da, motibazioak kontuan hartu gabe. Alegia, kontsumo partekatu horretan baliabide ez erabiliak lagatzen dituenak irabazi ekonomikoa hartzen dueneko kasuak barne (eta batez ere) hartzen dira. Eta zer litzateke partekatze hori

banatzearen ohiko balore sozialekin batera ematen denean, hau da, partekatzea banatze hutsaren zioagatik, eta ez diruagatik?

Era minimalean ulerturik, ‘partekatze gizartea jendarte jakin batean dauden banatzeko moduen eta ikuskeren bilduma da, diru irabazien motibaziorik gabeak’. Kasu honetan, ‘sharing society’ edo banatze gizartea gizarte osoaren alderdia litzateke. Hau adigaiaren bertsio leuna litzateke.

Gainera, ‘irabazien motibaziorik gabeko banatzeak gizarte bateko truke gehienak motibatzen dituenean’, benetako banatze gizartea genuke. Hau bertsio gogorra litzateke.

Bi kasuetan, alderdi hori, lehen kasuan gutxiengoa eta soilik bigarren kasuan gehiengoa izan arren, *idealtypus* gisa hartzea posible da, beraien azalpen botere edo ahalmena nahikoa denean. Lehen kasuan, gizartearen alderdi garrantzitsu bat eta alderdi horrek inguruan dituen eraginak edo harremanak ulertzeko baliagarria izatea da koska. Bigarren kasuan, gizartearen osotasuna ulertzeko gakotzat jotzen dugu.

Antropologo ekonomikoren batek proposatu lezake tipo idealaz harago horrelako gizarteak literalean existitzen direla, Sahlins (1972) edo Mauss (1924) bezalako autoreengan oinarriturik, eta kasu horretan behintzat ez dagoela horrelako ñabardura metodologikorik plazaratu beharrik. Ez du gehiegi axola. Baliteke horrelako gizarteak literalak izatea, ala ziur aski ez daude ‘banatze gizarte’ integralak versus ‘mozkinaren gaineko gizarte kapitalista’ erabatekoak. Azken kasuan, partekatze motibazio eta praktikak batean ala bestean bertaratura dauden litzateke epaia; graduaren kontua izan liteke, ez termino literalak iradokitzen duen kontzeptu bitarrarena. Baina edozein kasutan, tipo idealak azterketak eta hausnarketak errazten ditu.

Sharing Society edo *Partekatze gizartea* = Jendarte
jakin batean dauden partekatze praktika eta
ikuskeren multzoa
(bertsio biguna) (Abk-Zms)
= irabazien motibaziorik gabeko partekatzeak gizarte
bateko truke gehienak motibatzen dituenean
(bertsio gogorra) (Sahlins, Mauss...)

Ekonomia Naturala adigaia giza espeziean berezkoak, bat-batekoak, espontaneoak, tolesgabeak, lauak eta xaloak diren erantzun ekonomikoen multzo gisa definitu dezagun. Laburrean, ‘natural’ hitza ‘berezko, espontaneo’ gisa hartzen da, beraz, ‘ekonomia naturala’ izango litzateke ‘giza naturaren doien dena’ edo ‘gehien hurbiltzen bide zaiona’. Luzean orain, ‘talde batek berez edo naturaltasunez egiten dituen lan- eta erabaki-jarduerak dira, erabilera-xedapen eta babes-esparruekin batera, nahiak eta beharrak asetzeko’.

Hau ez da azken hamarkadetan gailentzen ari den zentzua, eta ez da zehatz-mehatz hitzak izan duen erabilera historikoa, baina badira argudioak horrela definiturik ‘esangura enpirikoa’ duela onartzeko, Zientziaren Filosofian esaten den bezala. Berraztertu dezagun dena labor-labor.

Azken hamarkadetan, gero eta gehiago, ekonomia naturala iraunkortasunaren sinonimo gisa ari da hartzen, esate baterako, “[t]he natural economy has been defined as comprising six sub-sectors that either directly use, rely or contribute to conserving, natural resources”, eta honakoak direlarik, “tourism, food and drink, fishing and aquaculture, agriculture, energy ... and forestry, logging and manufacture of wood” (Biggar, 2020). Beste kasu batzutan zentzu honen inguruan definitzen da, baina ñabarduraren batekin, adibidez, “[t]he Natural economy is characterized by subsistence farming and traditional biomass use with minimal

technological inputs and low productivity [but with] ecosystem degradation[, whereas t]he Bioeconomy relies on renewable resources [without] ecosystem degradation” (Stockholm Environment Institute, 2018).

Definizio historikoak ere ildo horretatik doaz; esan nahi da, ‘ohiko edo tradizional’ edo ‘aurre-kapitalista’ kontsideraturiko ekonomien ildotik. Ezagunena Karl Marxen adiera da, “Ekonomia naturalaren erregimena” honakoa dela esanez: “baldintza ekonomikoak ustiapen beraren barruan guztiz edo oso zati handi batean sortzen direna eta bertatik lortzen den produktu gordinaren arabera zuzenean ordezkatu eta erreproduzi daitezkeena”⁹ (1894a, Ch. 47). Adiera horri jarraitzen dio, besteak beste, Rosa Luxemburgok (1951, 369. orr), ekonomia naturala ‘aurre-kapitalista’ gisa ikusiz.

Oro har, autore marxistengan adigai hau iraupen (‘subsistencia’) eta beregaintasun (‘autosuficiencia’) ekonomia gisa ikusten da: “The type of economy in which production is directed toward satisfaction of the producer’s own needs” (Pazhitnova, 1979). Adibidez, “Under natural economy society consisted of a mass of homogeneous economic units ... and each such unit engaged in all forms of economic activity, from the acquisition of various kinds of raw material to their final preparation for consumption” (Lenin, 1899, 21–22. orr).

Autore ez-marxistengan ere ‘ekonomia bakun edo ximple’aren ildotik doa adiera, baina kasu honetan ‘ez-monetarioa edo truke monetario gutxikoa izatea’ da irizpidea. Hots, diruak munta handiko zereginik ez duen beregaintasun ekonomia gisa, trukeak unez uneko konfiantzari, ohitura araei edo lege eskubideei jarraiki bideratzen direlarik (Dopsch, 1930; Perrings, 1985). Edonola, beste adiera batzuk ere badaude, adibidez, zentzu moralean: “[natural economy is] a thing of harmony and beauty, all its parts cooperating for the common good, and its inbuilt laws distributing benefits equitably,” and “[its] basic realities [are] human nature [and] the common good — a moral element” (Young, 1997). Charles Darwinek (1859) berak ere erabili zuen ere, naturaren sistema eta banaketa fisikoei aipu egiteko.

Hemen proposatzen den zentzura itzuliz, ‘ekonomia naturala’ gizateriaren jardueretan ‘berezko eta espontaneo’ den gisakoa hartuz, zein ekonomia motaz ari garen bi mailatan ondoriozta liteke. Batetik, gizarte orokortasunetik. Kasu horretan, aipaturiko Sahlins (1972) edo Mauss (1924) autoreekin hasten den literatura zabala argia dirudi. Datuen hedapena beti da zaila, baina munduak ikusi dituen gizarte gehienak alde handiz, demagun hamarretik bederatzi, hierarkiarik gabeko banatze ekonomiak izan direla konfiantzaz onar genezake. Gehien ikerturikoen artean, Maoriak (Zeelanda Berri), Kwakiutl (Amerikako ipar-mendebaldea), Arapeshkoak (Ginea Berria), Trobriandekoak (Pazifikokoan), Boskimanoak (Kalaharia) edo Inuitak (Artikoan) dira (Graeber & Wengrow, 2021; Mauss, 1924; Sahlins, 1972; Weiner, 1992) eta, bide batez, den-denek oparien eta elkarrekikotasunaren gaineko praktika, erritu eta zeremoniekin ‘ugaritasun ekonomiak’ sortzen dituztela erakutsi da.

Adibide komunal bat, Norman Lewis bidaiariak Laosen biziturikoa (Lewis 1951, guk itzulirik):

Laosen zakar eta gaiztotzat jotzen da behar baino gehiago lan egitea. Familiaren aitak, gai horretan aditua den bontzo baten kalkuluen arabera, bere beharrak estaltzeko nahikoa den lur eremua lantzen du.

⁹ *“a natural economy, i.e., that the conditions of the economy are either wholly or for the overwhelming part produced by the economy itself, directly replaced and reproduced out of its gross product”*. *“un régimen de economía natural, es decir, un régimen en que las condiciones económicas se crean totalmente o en una parte grandísima dentro de la misma explotación y puedan reponerse y reproducirse directamente a base del producto bruto obtenido de la misma”*.

Familia sei kidez osatuta badago, tamaina bereko sei lursail landuko ditu. ... Familiako kide bat hiltzen denean, haurra edo aitona-amona izan, bere lursailaren laborantza bertan behera geratuko da. Familiak bere burua elikatzeke eta merkatuan salduko duen soberakin txiki bat edukitzeko nahikoa ekoizten da - bontzoaren oniritziarekin-, behar-beharrezkoak diren gauzak erosteko, hala nola, zetazko xala bat edo alabarentzat bizikleta bat.

Eta zer, sendiz haragoko behartsuekin?

Ez dago gizarte segurantzarik eta ez dago jende pobrerik. Adinekoei eta gaixoei gazteek edo, horretarako ahaide kualifikaturik ez dutenean, komunitatearen laguntza ematen diete, eta bontzoek landu beharreko lursailei buruzko argibideak ematen dituzte.

Oro har, beraz:

Helburu zehatz eta onetsietarako erabiliko ez den aberastasunaren metaketak gizonak bere auzokideen artean prestigioa galtzea eragiten du, Mendebaldean alderantziz gertatzen den modu berean. Antza denez, indotxinar budismoaren eta kristautasunaren arteko desberdintasun nagusia —meritu erlatiboak bezalako gaiez gain— zera da, miretsi ala ez, lehena neurri nabarmenean praktikatzen dela.

Bestetik, jendarte txikien ikuspegiak pareko ondoriora garamatza. Azzellinik (2021) oso era ulergarrian dio:

Jendea arazoren bat dagoen edozein tokitan elkartzen denean, erabakitzen den lehen gauza ez da erabakiak hartuko dituen nagusia, berdinen artean hitz egiten da eta gauzak nola konpondu daitezkeen baloratzen da, eta horregatik komunak edonon, historia osoan, edozein kontinente eta kulturatan aurkitzen dira¹⁰.

Azken mende eta erdia erakusle ere: planetako ia geografia osoan, lantegietako okupazioen, langileen kontseiluak eta lantokietako demokratizazioak eman dira, taldeek alde aurretik erreferentzia handirik behar izan gabe kudeatzeari ekinez eta, bidenabar, beren interesen berezko eta zuzeneko adierazpen gisa agertuz (Azzellini & Ness, 2017). Hori dena, azken batean, Kropotkinen (1902b) egiaztatu zuena da: giza komunitateek, historian zehar, berezko elkarlanaren eta elkarrekikotasunaren bidez aurrera egin dutela.

Ondorioan, jauzia emanik ere, eta jauziak salbuespen anitz pairaturik ere, giza espeziearen ‘ekonomia naturala’ ekonomia komunala litzateke. Giza espezieak truke eta sozializazio formula mota guztiak probatu ditu historian zehar, baina joerarik eta bokaziorik berezkoena zein den baloratu beharko bagenu, gizarte komunitarioa lehen postuan kokatu beharko genuke.

Sistema hori, komunalismoaren ikuspegitik, ez da gizateriak eratu dituen eredu sozialetan bat besteen artean, alegia, egin diren esperimientuen artean ausazkoa eta besterik gabekoa. Gizateriaren ‘ekonomia natural’ hau, gizakion berezko antolaketa, kontuan hartu beharrekoa da irizpide askotarako. Besteen artean, kapitalismoaren aurkako mugimendu sozialak giza natura komunalistaren emaitza da. Boteredunek beraien interesetarako diseinatu duten inguruneak lagundu ez arren, bulkada komunalista bertaratua da mugimendu sozialetan; joera hori da beraien genesisia eta barnean duten arnasa.

Amaitzeko, bi adibide labur, bata ekonomia kapitalistari buruz, eta bestea mugimendu sozialei buruzkoa. Kapitalismoan (eta edozein sistematan) ekoizpena norbanakoak edo ‘familiak, sendiak’ egiten da, eta horrela azaltzen da ere Kontabilitate Nazional direlako estatistiketan. Baina nor joan da bere etxeko hozkailura, eta han ondasunak prezio tiketez

¹⁰ “Cuando la gente se junta en cualquier lugar donde hay un problema, la primera cosa que se decide no es un jefe que va a tomar las decisiones, sino hablar entre iguales y ver cómo se pueden solucionar las cosas”, y “por eso encontramos [a las comunas] en cualquier lugar, en toda la historia, en cualquier continente [y] cultura” Azzellini (2021)

josita aurkitu, eta ordaindu behar horiek hartzeko? Alegia, sendien barnean banaketa altruista da, maitasunezkoa, araua dena banatzea da, salbuespen batzuk kenduta. Maitasuna eta elkarbanatzea guk uste baino askoz bertaratuta dago ekonomian (Renteria-Uriarte, 2006).

Bestalde, *status quo*-aren aldaketa bilatzen duten mugimendu sozialetan partaideek beren denbora eta arreta ematen dute libreki (auzolana), normalean beren iritzia kontutan hartzen da (batzarrea), eta sarri ditu edo ondareren bat jartzen dute mugimenduaren zerbitzuan (hau gogorra dirudien arren, kontuan har dezagun hori besterik ez dela, adibidez, batzar batetarako bidaia batetan ordaindutako gasolina; lurpean da komunala). Horra gizarte mugimenduen bulkada, nondik eta komunalismotik eta bere euskal formetatik ikusita.

Ekonomia Naturala= giza espeziean berezko, bat-bateko, espontaneo, tolesgabe, lau eta xalo diren erantzun ekonomikoen multzoa. Jendarte batek berez edo naturaltasunez berez egiten dituen lan- eta erabaki-jarduerak.

(Azken hamarkadetan, ‘iraunkor’ gisa. Historian, ‘ohiko edo tradizional’ edo ‘aurre-kapitalista’. Marxistek, ‘beregaina’. Besteek, ‘ez-monetarioa’).

Munduak ikusi dituen gizarte gehienak, alde handiz, hierarkiarik gabeko partekatze ekonomiak dira.

Azzellini: “jendea arazoren bat dagoen edozein tokitan elkartzean, erabakitzen den lehena ez da nagusia, berdinen artean nola konpondu baloratzen da”.

Azken baten, Kropotkin: giza komunitateak, historian zehar, berezko elkarlanaren eta elkarrekikotasunaren bidez aurrera egin dute.

Mugimendu sozialetan ere auzolana, batzarre irizpidea, ondare komuna elikatu, arauak...

Mito soziala ilusioa, asmoak eta ekintzak pizteko eta sustatzeko ahalmena duen irudi idealizatua da. George Sorelek proposatu zuen *Réflexions sur la violence* (1908) lanean: ‘emozio sutsuen irudi’ baten itxurako ‘eraikuntza’ izango litzateke, ‘joerak’ islatzen dituen eta ‘indar historiko’ gisa diharduena. Adibide gisa sindikalisten ‘greba orokorra’ jarri zuen, batez ere, eta baita ere Marxen ‘hondamen-iraultza’, gainontzeko argudio gisa ‘eliza kristau militantea’, ‘Frantziar Iraultzaren kondairak’ eta ‘Ekaineko egunak’ erantsiz. Antonio Gramsci (1977) bezalako egileek ezagutarazi zituzten mito sozialak.

Duela gutxi, gizarte-mugimenduetan, Traversok (2019) ‘ezkerraren (ezker mugimenduaren) melankolia’ren existentzia iradoki du, ohiko erreferentzia historikoen galeraren ondorioz, eta eguneroko bizitzan errotiko hobekuntzak egiteko mito sozialen beharra zuzenean gogorarazi digu. Gizarte-ekintzarako gorputzak eta eskuak mugitzeak gogoak motibatu behar ditu aurretik argudioekin eta propagandarekin, baina baita mitoekin ilusioa sortu ere. Egia esan, ilusiozko mitorik gabeko edozein gizarte mugimendu, eta baita edozein gizarte ere, bizirik bezain hilda kontsidera daiteke (Renteria-Uriarte, 2023).

Social Myth edo *Mito soziala*= Ilusioa eta ekintzak pizteko ahalmena duen irudi idealizatua.

George Sorel, *Réflexions sur la violence* (1908): ‘emozio sutsuen irudiaren eraikuntza’, ‘joerak’ islatuz ‘indar historiko’ gisa.

Sindikalisten ‘greba orokorra’, Marxen ‘hondamen-iraultza’, ‘Eliza kristau militantea’, ‘Frantziar Iraultzaren kondairak’...

Antonio Gramsci (1977) bezalako egileek ezagutarazia.
Enzo Traverso (2019) ‘Ezkerreko Melankolia’ baten existentzia iradoki du gizarte-mugimenduetan, mito sozialen beharra gogoraraziz.

Eguno euskal komunalismoa ezker mugimenduen historian: klasikoak, erresistentek eta aurre-figuratiiboak

Aldi klasiko-iraultzailea ezker mugimendu anti-kapitalistan “Iraultzen Aroa” deitukoaren baitatik jaio zen, bilakaera geldoa baina sendoan (Hobsbawm, 1999). Sozialista utopikoen proposamenekin eta langile borrokaren hedapenarekin (Fremont-Barnes, 2007), erakunde marxistek eta anarkistek indarra hartuz, XIX. mendearen lehen erdiaren eta Bigarren Mundu Gerraren artean eman zen (Pelz, 2007; Sassoon, 2013). Langile klasea alderdi politikoetan antolatu zen boterea erasotzeko, sindikatuetan ekoizpen prozesuak aldatzeko eta talde armatuetan horiek denak laguntzeko.

Helburu orokorra sistema kapitalistaren eta gizarte burgesaren aldaketa integrala eta absolutua zen. Errusian arrakasta izan zuen baina Alemanian eta beste leku batzuetan garbiketa pairatu zuen. Garai hartako ondare nagusia langile klaseak alderdi eta sindikatuetan antolatzeko duen joera da, eta horietako batzuk oraindik bizirik dira, ezagunenak alderdi komunistak direlarik.

Erresistentziaren garaia posizio-gerra eta helburu estuagoak onartu behar izan zirenean hasi zen. Kapitalismoan fordismoak eskaintako eta ongizate estatuak bermaturiko bizitza materialaren maila hobetzean, sozialdemokraziak aurrera egin zuen eta berehalako iraultzaren nahiak ahuldu ziren (Eley, 2002; NA, 2016; Schechter, 2007, ch. 5; Thompson, 1997). Botere guneen aurkako eraso zuzenek arrakastarako ahalmena galdu zuten, baina, hala ere, ezkerreko erakundeek indar nabarmena mantendu zuten: alderdi politiko eta gobernu langileak hedatu ziren (alderdi komunistak eta erakunde anarkistak ugariren zatiketaz), sindikatu kidetzak gora egin eta biziki finkatu ziren (garaipenak lortuz bai lantokian, bai langileen aldeko lege laboral eta fiskalen bidez), eta talde armatu berriak sortu ziren (Baader-Meinhof, Brigade Rosse).

Oro har, ekitate soziala handitu egin zen eta ‘klase ertainak’ sortu ziren, baina Mendebaldeko Europan iraultza sistemikoren bat egiteko aukera eta nahia desagertuz joan zen langile klasearen kontzientziatik. Garai historiko horretako ondorengoak ezkerreko alderdi eta sindikatu nabarmenak dira, indar armatu popularrak Europatik desagertuz eta beste eskualde batzuetan indarra galduz joan ziren arren.

Aurre-figuratiiboen aniztasun garaia da egungoa. Dibertsifikazio edo ‘postmoderno’ dinamika emanez joan zen, astiro baina irmoki, atzeko ezker-erresistentziaren barruan, 60ko hamarkadaren erdialdetik mende berriaren hasiera bitartean (Della Porta & Diani, 2011; Piotrowski et al., 2018; Sunkara, 2019). Jada subjektu zentrala edo bakarra ez da ‘langilea’, ‘era horretako edo bestelako’ langilea baizik eta, sarri, ‘langilea ez den a-kapitalista edo anti-kapitalista’ barneratuz. Hippyen, ekologisten, feministen, komunalisten, anti-globalisten, LGTBIn edo negazionisten garaia da, gero eta anitzagoa, eta sarri ezker zein eskuin, ertain zein aberats iturrietako emariak batuz.

Garai berri honetan iraganeko iraultza integrala ez da ia presente, baina aldaera pragmatiko berriek sua pizturik mantentzen dute. Mugimendu *aurre-figuratiiboak* deituak dira (ingelesez ‘prefigurative’), ideia honekin: utopia osoa ez dugu lortuko ziur aski baina, pixkanaka, hori praktikatzuz lortuko dugu mundu berria. “Nahi duzun hori bizi ezazu orain” da leloa (“being the change you wish to see,” Jeffrey & Dyson, 2020), ‘dagoeneko aske bagina bezala’ jokatzuz (van de Sande, 2015). ‘Iraultza integrala’ (boterea lortzekoa) ez da ia presente, baina ‘matxinada gorpuztua’, gure aktuetan, bai.

Horregatik, euskara ez hiltzea bada helburua, hizkuntza honetan ari diren elkarteak sortuko ditugu. Kalamua legezkatzearen aldeko bagara, erretze-jaiak deituko ditugu. Ekologistak bagara, txirrindula manifak deituko ditugu eta permakultura praktikatu.

Komunalistak bagara, erkide diren ondasunekin biziko gara ahal denik eta gehien. Maitasun askearen aldeko bagara, hori praktikatuko dugu eta nudistak izango gara. Feministak bagara, genero berdintasuna praktikan bizitzeko espazio seguruak sortuko ditugu. Hezkuntza askearen zaleak bagara, estatuz kanpoko eskola askeetan heziko ditugu umeak. Eta abar.

Ezker mugimenduen historia laburra

Klasiko eta iraultzailea, XIX. mendearen lehen erditik. Langile klasea alderdi politikoetan antolatu zen boterea erasotzeko, sindikatuetan ekoizpen prozesuak aldatzeko eta talde armatuetan horiek denak laguntzeko. Helburu orokorra sistema kapitalistaren eta gizarte burgesaren aldaketa integrala eta absolutua zen.

Erresistentzia garaia Bigarren Mundu Gerraren amaieratik. Posizio-gerra eta helburu estuagoak (fordismoaren eta Ongizate Estatuaren hobekuntzen aurrean), baina politiko eta gobernu langileak hedatu ziren, sindikatuko kidetasunak gora egin, eta talde armatu berriak

Aurre-figuratioben aniztasuna, 60ko hamarkadaren erdialdetik. Etorkizunerako nahi dena gaur praktikatzeko da koska. Iraultza integrala ez da ia presente, baina ‘matxinada gorpuztua bai’. Subjektu bakarra ez da ‘langilea’, ‘era horretako edo bestelako’ langilea edo ‘ez-langilea’ baizik; hippy, ekologista, feminista, komunalista, antiglobalista, LGTBI edo negazionista.

Nolakoa izan zen hau guztia Euskal Herrian? Ezker mugimenduaren *garai klasiko-iraultzailea* 1880-1939 inguruan ezarri daiteke. Jaiotza formala 1890eko greba orokorrean izango zuen, aurreko urteetako arrakasta finkatuz (Hidalgo, 2015); eta amaiera euskal ezkertiarrek eta abertzaleek espainiarren Gerra Zibila porrota jasotakoan izan zen (Penche, 2010). Nazionalismoaren indarragatik ezker jarrerak gizartean izan zezaketen pisu leunagoa alde batera utzita (Guerra Sesma, 2007; Rivera, 2003), garai hau Mendebaldeko Europako beste industria-eremu batzuen antzekoa izan zen, eta ez da ñabardura garrantzitsurik egin behar.

Erresistentzia garaia Euskal Herriko Mendebaldean hasi zen, eta Europako gainerako herrialdeak baino lehen, Espainiako Gerra Zibila dela eta. Guda galdu eta gero (1936-37 Euskal Herrian, 1939an gainontzekoan) Espainiako landa eremu batzuetan gerrilla talde armatu batzuek borrokan jarraitu zuten, gerora Bigarren Mundu Gerraren ostean Europako beste herrialde batzuetan bezala (Baird, 2017; Marco & Yusta, 2019; Serrano, 2006; Vidal, 2004, 2016), baina Euskal Herrian ezker indarrak suntsituta zeuden. Poliki baina progresiboki, iraultzaileek eta independentistek arnasa hartu eta egiturak antolatu zituzten. 1958an ETA sortu zen, Independentzia eta Sozialismoaren helburuak gero eta gehiago onartuko dituen hiri gerrilla armatua, edo “Euskal Herriarentzat independentzia eta iraultza sozialista bere langile klasearentzat” nahi duena (Calvo, 2012). Horren inguruan independentismoak ezkerreko diskurtsoa hasi zuen: euskalduna ‘ez-frantsesa eta ez-espainola’ izatetik “Euskal Herrian bizi eta lan egiten duen langile klasea” izatera pasatu zen (Zabalo, Julen & Odriozola, 2017). Euskal ezker mugimendua, nazionalismoarekin eta independentismoarekin nahastuta, Europako indartsuenetakoa izango da aurrerantzean.

Aurre-figuratioben aniztasun garaia kanpokoan pare hasi zen, munduko deskolonizazioaren garaian. “Europar eta bere kolonietan eman zen gizarte-mobilizazio handiaren ondorio argi gisa” (Zabalo, Julen & Odriozola, 2017), Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu iraultzailea (ENAM, espainolez MLNV) borroka sozial desberdinetan gauzatu zen, Latinoamerikako ereduaren bezala, eta independentistak ez ziren ezkertiarrek ere lan-talde anitzetan antolatu ziren, biek euskal ezkertiaritasuna dibertsifikazio

zabal batera eramanez (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 1999). Lehenengo kasuan, hainbat frontetan borrokatu zen (hainbat talde), besteak beste, internazionalismoan (Askapena), gazteen beharrianetan (Jarrai, Haika, Segi, Ernai), ekologikoan (Eguzki eta gero beste batzuekin, AHT-rik Ez edo Fracking Ez bezalakoak), feminismoa (Egizan, geroago Bilgune Feminista eta besteak), ikasleen borroketan (Ikasle Abertzaleak), giza eskubidetan (Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak...), aisialdian eta harremanetan (Herriko Tabernak, Gaztetxeak, Txosnak), kulturaren eta komunikabideetan (Egin, Gara bezala birsortua, eta geroago Egunkaria edo Berria, baita Argia ere), euskararen eta euskal kulturaren (AEK, atzerago Ikastolak), lan eskubideak (LAB), alderdi politikoak (Herri Batasuna, gero Euskal Herritarrok, eta azkenik, beste izen batzuen ondoren, Sortu). “Azken emaitza kontra-gizarte moduko bat sortzea izan da” (Casquette, 2001).

Oro har, gizarte-ehun soziopolitiko hori “dozenaka sektoretako ehunka talde sozialek, gutxi-asko ezberdinak” inplikatzeko dute, hala nola “aisialdia, antimilitarismoa, ekologismoa, emakumea, euskara, gazteria, giza eskubideak, gizarte ekintza, hezkuntza, komunikazioa eta kultura, ekonomia, nazioarteko elkartasuna, osasuna, sexualitatea...”, etengabe “sortzen eta desagertzen” direnak (Zubiaga, 2014). Euskal Herritik kanpo bezala, “Ekintza Kolektiboaren adierazpen berriek aurreko mugimenduek baino eskakizun zehatzagoak eta berehalakoak adierazten dituzte”, sistemaren aldaketa bilatzen dutenekiko “ekintza helburu zehatzagoak lortzera zuzenduta dagoela dirudi, kritika sistematiko sakonak desagertuak ez diren arren” (Letamendia, 2015).

Ezker Mugimenduak Euskal Herrian.

‘Klasikoak’, 1890eko greba orokorretik 1936-37ko Gerra Zibilako galerararte.

‘Erresistenteak’, egiturak berrantolatuz. 1958an ETA. Independentismoak ezkerreko diskurtsoa (euskalduna ‘ez-frantsesa eta ez-espainola’ izatetik “Euskal Herriko langile klasea” izatera). Euskal ezker mugimendua, Europako indartsuenetakoa.

‘Aurre-figuratuak’, munduko deskolonizazioaren garaitik. Euskal Mugimendu Nazio Askapenerako ENAM eta beste ezkertiarren lantalde anitzak: aisialdia, antimilitarismoa, ekologismoa, emakumea, euskara, gazteria, giza eskubideak, gizarte ekintza, hezkuntza, elkartasuna, osasuna...

Nola egon da presente *Abc-Zms* sistema ezker mugimenduen historian? Ezer baino lehen, bere soka ez da eten, lan honetako lehen atalek erakusten duten bezala. Baina interesgarriagoa dirudi gaur egun kokatzeak. Izatez, *Abc-Zms*ko aldeko borroka oso ondo egokitzen zaizkie langile eta behe klase mugimendu gero eta anitzagoak eta pragmatikoagoak eduki nahi dituzten garai hauei.

Gertuko bizi-baldintzen hobekuntza auto-kudeatuek (elikadura edo energia burujabetza saiakeretan, besteak beste), horri buruzko ikuskeren bultzadek (hala nola, aurrekoei buruzko inguruko jardunaldietan) eta, oro har, auzolan eta batzarre filosofia gorpuzten dituzten ekoizpen eta erabakimen kolektiboko ekimenak, gizartean hedatze komunalista bat hezurmamitzen egongo lirarteke, filosofia honen ikuspegitik.

Are gehiago, *Euskal Sena Taldearen* (2022) arabera, Euskal Herriak historian izan duen senaren eta mundu-ikuskeraren bulkada mantentzen dute mugimendu sozial gisa, balio horien oinarri eta erantzule gisa beren burua aitortuz ala ez, euskaldun eta euskal-sen-dun gisa jokatzeko. Alegia, batzuk, ‘burujabe de facto’ gisa, balio horien arnas historikoa jarraitzen dute. Eta besteak, ‘burujabe arduratsu’ gisa, etorkizunean horiei eusteko eta sustatzeko ardura bere gain hartzen dute, ‘mito soziala’ aurre-figuratuak. Baina biak ala biak lirarteke herri joera historiko berean.

Euskal komunalismoa kapitalismoarekiko kritiken artean: komunistak, anarkistak eta sozialdemokratak.

Komunalismoa nola lerrotzen da kapitalismoarekiko kritika historikoen artean? Komunismoaren funtsa islatzen du batetik ('Botere guztia Sovietentzat'), eta anarkismoarena bestetik, batez ere anarko-kolektibistena eta anarko-komunistena, eta badu horretan ekonomia eta politika norbanakoaren askatasunetik atera behar denaren bokazioa (zentzu horretan, sozialdemokratengan eta kapitalistengan ere bertaratua den askatasun irizpide aratzarekin lerrotzen da). Azaldu dezagun laburki.

Estatuari buruzko jarrera nagusiak hiru dira: kapitalistena, enpresei ahalmen guztia emanik eta 'estatu laguntzaile' hutsa bihurturik; komunistena, 'estatu osoa' ezarriarik enpresa pribatuak eraisteko; eta anarkistena, estaturik gabekoa. Baina tartean badira ere beste hainbat kokagune.

Kapitalismoan enpresa handiek eta beren jarraitzaileek estatu minimoa galdegiten dute, liberalen idealak inposatuz, ala estatu ertaina onartzen dute, *sozialdemokraziaren* irizpidea onartuz, edozein kasutan enpresen mozkin monetarioak beste ezeren gainetik lehenesten dituen sistema delarik, jabetza pribatuen erabaki ahalmena bere muturrera eramanez.

'Estatu minimo liberalean' enpresek estatuari eskatzen diotena da polizia, epaileak, azpiegitura gastuak, eta enpresak gaizki badoaz, dirua ematea edo 'erreskatatzea' (Adam Smith 1776ko irizpideari jarraik, baina nahiko bihurturik; honek kanpo defentsa, barne kontrola eta azpiegiturak sartzen zituen estatuen beharretan).

'Estatu ertain sozialdemokratan' 'ongizate estatua', gastu sozialak eta zerga progresiboak dituen, 'estatu partehartzailea', enpresa publikoak dituen eta ekoizpen pribatuak doi-doi arautzen dituen, eta 'estatu arautzailea', gizartea hedapen gehiagoz arautzen duena dira (John Maynard Keynes 1936ko beharri jarraiki, kasu honetan). Historikoki, bigarren mundu gerraren ondoren kapitalismoak estatu ertain hau onartu bazuen krisi sistemikoak eta komunismoaren arriskuak saihesteko izan zen.

Komunismoan estatu osoa edo gorena erabiltzen da kapitalismoan enpresen berekoikeriek eragindako desberdintasun eta sufrimenduen aurka. Propietate pribatua desagertu eta industriak, azpiegiturak, eta beste sektore ekonomikoak langileen kolektiboaren kontrolpean egongo liriteke (Marx & Engels, 1848; Marx, 1894b dira orain arnasa). Leninistak egoera hau iraunkor egin zedin onartuz joan baziren ere, Marx eta Engelsen formulazioan behin-behineko etapa besterik ez zelarik, alegia, kapitalismoa akatu eta gero estatua bera desagertuz joan behar zen, benetako komunismoa lortzeko.

Anarkismoan estaturik ez da. Herritarrak antolatuz, beraiek ordezkaturiko dituen hierarkiarik gabe, erabaki lokalak zein nazionalak hartuko dira. Zer jendarte edo jende-talde mota antolatuko den, hori da anarkismoaren alderdiak desberdintzen dituen irizpideetako bat. Langileak fabriketako asanbladen bidez (anarkista autonomoentzat), langileak sindikatuen bidez (anarko-sindikalistentzat), gizarte-mugimenduak beraien plataformen bidez (plataformistentzat), langileak edo jendea oro har komuna autonomoen bidez (komunista libertario edo anarko-komunistentzat, eta baita anarko autonomoentzat ere, kasu honetan burujabe den taldeak egiten du banaketa), kolektibitate osoaren bidez jabetza kolektiboaren bidez (anarkista kolektibistentzat, kasu honetan lanaren etekina konpentsazio bat da lan desberdinek eragindako ekarpenaren arabera, kolektiboak erabakita), edo komunitate autonomo deszentralizatu burujabeak federatuz (federazionisten arabera).

Anarko-komunistentzat, ekoizpen-baliabideen jabetza era komunean edo banatuan izango da jabetza indibidualik gabe, eta banaketa 'bakoitzarengandik bere ahalmenaren

arabera, bakoitzari bere beharren arabera' lelopean izango da. Pyotr Kropotkinen *Ogiaren konkista* eta *Elkarrekiko Laguntza* dira testu klasikoak; Enrico Malatesta eta Alexander Berkman ere aipa daitezke. Anarko-kolektibistentzat, baliabideen jabetza kolektiboaren baitan jabego indibidualei lekuren bat egingo zaie, eta banaketa 'bakoitzetik bere gaitasunen arabera, bakoitzari bere lanaren arabera' balizkoan oinarritzen da, alegia, langile bakoitzak kalte-ordaina jasoko du kolektibitateari emandakoaren neurria sarituz. Mikhail Bakunin da funtsezko pertsonaia hemen, *Jainkoa eta Estatua* lan ezagunarekin; beste erreferentziak James Guillaume eta Élisée Reclus dira.

Komunalismoa erkidetu, banatu edo komundu egiten duten praktika sozialen azpi-gizartea sustatzean datza, antzinetatik horiek gorpuztu dituzten gizarteak ahortzi gabe eta haiekiko begirunea eskatuz. Hemen proposatu bezala, 'gizarte komunala' giza espeziean ohikoena edo naturalena den antolaketa soziala da: natura baliabideen jabetza komunarekin eta elkarbanatze filosofiarekin, norbanakoan edo taldean egindako lanetik bakoitzak behar duena hartuz, eta jendartea-natura bikotea iraunkor eginez.

Zentzu horretan, komunalismoak badu jarrera politiko nagusienetan datzan filosofia bera, askatasunarena (guztietan datzana) eta berdintasunarena (guztietan datzana, kapitalismo liberalean salbu). Baina praktikotasunetan sarturik, alegia, ekoizpenean eta banaketan, anarkismoarekin (anarko-komunismoarekin eta anarko-kolektibismoarekin, batez ere) eta hierarkiarik gabeko komunismo klasikoarekin lerrokatuko litzateke.

Zeinekin gehiago? Galderak ez du zentzurik, komunalismoaren zerizanetik ikusita. Komuna bakoitzak erabaki beharko luke zer eta nola, kide bakoitzaren erabakimenetik.

Edozein kasutan, baliabideak komuntzea ez da horiek esku estataletan edo 'publikoetan' utzi. 'Komunala' ez da 'estatala' edo 'publikoa' eta, ustezko jabego kolektibo horren bidez, baliabideak atzean dauden jabe kapitalisten eliteko ala langileen ordezkarien nomenklaturaren eliteko eskuetan utzi. Horrela, komunalismoak zerikusi gutxi du sozialdemokraziarekin eta berdinean urruntzen da kapitalismotik, hauen azken errealitatea pribatutasuna baita; eta urruntzen da ere komunismo estalinistatik, horietan ere nomenklaturaren eskuetan amaitzen duelako erabakimenak. Horrengatik, historikoki, komunalismoa joera anarkisten artean kokatua izan da gehien bat.

Komunalismoa Estatuari buruzko jarrera nagusien artean

Kapitalismo liberalean estatu minimoa (poliziak, soldaduak, azpiegiturak eta erreskateak kapitalistentzat); *Kapitalismo sozialdemokratian* estatu ertaina (ongizatekoa, partehartzailea eta arautzailea, krisi sistemikoak eta komunismoaren arriskuak saihesteko).

Komunismoan estatu osoa edo gorena, kapitalismoaren sufrimenduen aurka. Propietate pribatua desagertu eta ekoizpena langileen kolektiboaren kontrolpean da.

Anarkismoan estaturik ez da. Beheko jendeak antolatuz (talde autonomoetan, komunetan, plataformetan edo mugimenduetan), ordezkapen politikorik eta hierarkiarik gabe, erabaki lokalak zein nazionalak hartuko dira.

Komunalismoa komundu eta partekatu egiten duten praktika sozialen azpi-gizartea sustatzean datza: natura baliabideen jabetza komunarekin eta partekatze filosofiarekin, norbanakoan edo taldean egindako lanetik bakoitzak behar duena hartuz, eta jendartea-natura bikotea iraunkor eginez.

Gehienen filosofia du, askatasunarena eta berdintasunarena, baina ekoizpenean eta banaketan, anarkismoarekin (anarko-komunismoarekin eta anarko-kolektibismoarekin, batez ere) eta hierarkiarik gabeko komunismo klasikoarekin lerrotatzen da.

Zeinekin gehiago? Galderak ez du zentzurik, komuna bakoitzak erabaki beharko luke. Edonola, 'komunala' ez da 'estatala' edo 'publikoa', eta bere benetako jabe kapitalistena ala langileen ordezkarien nomenklaturarena.

Euskal komunalismoa praktika historiko zehatz eta itxuratu bat litzateke eta, egungo zentzu aldarrikatzailean, zenbait balizkoren onarpena: euskal ezkertiar mugimenduaren dibertsifikazio garaian, hainbat ekimenen elkar-banatze eta ikuspegi bertoko-subiranista; praktika eta propietate komunaren elkarbanatzea, ekoizpen kapitalistaren alternatiba gisa; euskarri politiko eta juridiko batean artikulatzea hori bermatzeko, botere estatalista kapitalistaren hutsuneetan eta berari alternatiba gisa; balio kultural zehatzek euskal berezitasun sozioekonomikoen biziraupenean eta milurtekotan zehar haien alde borrokan jarraitzen duten erresistentzia sozialean lagundu dutela; oro har, euskal borrokari zentzua ematen dion eta euskal herrietan gizarte-ekintza sustatzen duen mito soziala; eta, azkenik, harreman horizontalak sortzea helburu duen eta euskal sen horri jarraitzen dion giza subjektibotasunaren aukera gorpuztea.

Komunismoarekin bezala, ez dirudi beharrezkoa kapitalismoarekiko iritzi-espektru zabalean euskal gizarte komunalista zein puntu zehatzetan koka beharko litzatekeen eztabaidatzeak, jakinik 'lurra komunala da, baina batek bere baratza dauka' eta 'etxeen edo sendi zabalen erabakimenean antolatzen da dena' zirela irizpideak, horri estaldura eta berme publikoa ematen zion zuzenbide formalarekin. Ez dirudi beharrezkoa ere etorkizuneko Euskal Herria Komunal bat non kokatu beharko litzatekeen agintzeak. Talde bakoitzak erabakitzekoa litzateke.

Edonola, lan hau zuzen badabil, badira Euskal Herrian hori dagiten ekintzaile asko, Auzolan, Biltzarre eta Komunalen *Abk* jarrerarekin gauzaturiko ekintzak, eta Zuzenbide Pirenaiko, Milizia Herritar eta Matri-zaintza, eta euskal sena eta mundu-ikuskerako *Zms* bermeen filosofia islatuz. Horien artean, *Biltzarrek* eta *Euskal Sena Taldeak* politika aurre-figuratiboa aldarrikatzen dute, bizi-eredu euskaldun komunal batekin, hizkuntzan, mundu-ikuskeran eta beste kultur-adierazpen batzuetan islatzen diren antzinako printzipio komunitarioen praxian biziz.

8. Euskal Komunalismoa eztabaidan

Kritika sarriak: pasatua, inozoa, irrealia, xingleegia, anabasa...

Pablo Sastreren *Batzarra, gure gobernu*a iruzkintzean honela dio kritiko batek (Rojo, 2013): “huts egiten duen planteamendu”a zera da, “batzar horiek izan zituzten gora-behera historiko[e]k” erakusten dutela “gaur egungo egoerari egokitzeko ... duten ezintasuna.” Baina zein gizarte motak ez du gora-beherarik eta, beraz, zergatik horrek suposatu beharko luke gaurkotasunerako ezintasuna? Buruan duena segidan azaltzen du: “komunitate txikietan banatutako gizarte batean egiten ziren batzar horiek ... bere funtzioa izan zuten historia-momenturen batean” baina, “gizarteak konplexuagoak izan ziren neurrian, desagertuz joan ziren [e]ta gaur egun,... ezinezkoa begitantzen da”. Horrela amaitzen du: “mundu tradizional baten lilurapean idatzitako liburua dirudi honek”.

Kasuak oso ondo erakusten ditu *Abk-Zms* sistemak pairatu ditzakeen kritika sarriak: ‘inozo inuxentea, irrealia, xingleegia, anabasa!’... Hasi gaitezen xehetzen.

‘Sistema pasatua’ denaren kritikari buruz, Rosa Luxemburgok (1951, 369. orr) ekonomia natural aurre-kapitalistak kapitalismoa gertatzeko suntsitu behar zirela uste zuen, hemengo adiera edo zentzuarekin ‘natural’ adjektiboa erabiltzen ez zuen arren. Egia ala okerra izan bere zentzuan, ‘jendearen’ ekonomia ‘natural, berezkoa’ kapitalismoaren baitan bizi da oraindik, aurre-kapitalistetan bizi zen bezala. Horrela delako, azken batean, gizateriak arazoan aurrean erreakzionatzeko duen era berezkoa. Goian gogoratua den adibidean bezala, egungo *sharing economy* eta *digital commonsetan* bizi-bizi ageri da. Baina oro har hedatua da; eskaneatze orokor bat Alain Cailléren (2007) *Don, intérêt et désintéressement* lanean aurki liteke, altruismoak, opariek eta enpatiak giza elkarrekintzan, harreman sozialetan eta egitura ekonomikoetan nola eragiten duten jorratzean.

‘Gizarte konplexuetarako’ balio ez duenik oso kritika ohikoa da eta, egia esan, egungo kapitalismoan besteen arteko alderdi bat gisa bizi da. Ala ere, zer esan nahi da ‘konplexu’ hitz horrekin? Hasteko, mendebaldar gizartearen nagusikeria begiradatik ‘xingle’ gisa epaituak diren gizarte ez-kapitalistak inoiz ez dira xingleak izan, oso konplexuak baizik. Froga-harri gisa, Annette Weinerren *Inalienable Possessions: The Paradox of Keeping-While-Giving* (1992), melanesiar gizarteetako ondasunen nozioaren eta truke sistemen konplexutasunaz; David Graeberren (2014a) *Debt: The First 5000 Years*, zorraren konplexutasunak dirua jaio bezain laster sortu zirela erakusten; eta, gure artean, Sandra Otten (1993, 1994) euskal artzainen kosmo-ekonomia konplexuaz.

‘Komunitate txikietara mugatzen’ direla sistema komunalistak; kritika hori atzekoarekin loturik dago. Bi adibide labur, segidan. *Kula eraztuna* 14.345 km² estaltzen dituen merkataritza-zirkuitoa da, gizarte urrunak harremanetan jarriz eta, garrantzitsuagoa dena, egonkortzen dituen (Malinowski, 1922; Mauss, 1924). Eta errazegi ahazten dugu demokrazia zuzena, Euskal Herrian behintzat, maila desberdinetako erabakimen sistema zela, auzoetako Batzarreetatik eskualdeetako Batzar Nagusietara. Ziur asko, Euskal Herria bi botere arrotzek banatua izan ez balitz, erabakimen sistema komunalista nazionala izango zen, alegia, sei edo zazpi (nondik ikusi) eskualdeen loturarako.

‘Anabasa’ dakartela jendearengan oinarrituriko sistemek, atzekoarekin zerikusia duen kritika da ere. Hasteko, egungo kapitalismoa eta ekarri duen munduko egoera ‘anabasa’ ez dela argudiatzeko prest al gaudeke? Eta inork “ezagun txarra hobe, ezagutzen ez den ona baino” esakera mahai-gaineratzeko asmoa balu, gogoratu beza ‘on’ hori, alegia, ‘ondo funtzionatu duten ekonomia naturalak’, gehiengoa direla espeziearen historian. Bigarrenik, uste kritiko hau gizakiaren ikuspegi *hobbiesiarra* onartzetik dator, frogatzeke eta eztabaidan

dagoen hipotesia delarik zientzia sozialen historian. Aipaturiko autoreek (Caillé, 2007; Graeber, 2014a; Graeber & Wengrow, 2021; Kropotkin, 1902a; Mauss, 1924; Sahlins, 1972; Weiner, 1992) oso bestelakoa erakusten dute, Rousseau eta bere ‘basati on hutsa’ balizkotzat erabili gabe, alegia, deskribapen hutsa eginik.

Ustezko anabasaren kritika honen alde teorikoan berebiziko garrantzia izan zuen Garrett Hardin-en (1968) *Tragedy of the Commons* liburuak, partekatutako baliabideak gizabanako arrazionalak mugarik gabe erabiltzen dituztenean, komun horiek agortu edo degradatu ohi dira, pertsona bakoitzak bere interesa bilatzen duelako ondasun komuna kontuan hartu gabe. Liburu hau kapitalistek erabili eta azpimarratu dute hamarkadetan, baliabide komunak jabetza pribatuan sartzeko: “[it] has captured people’s imaginations for generations” eta, hortaz, “these few but powerful words have been used to justify the enclosure and erasure of many well-functioning commons that benefit both people and the environment” (Gibson-Graham et al., 2016, 192. orr).

Hala eta guztiz ere, komunak benetan nolakoak diren azterketak ugaritu ondoren, Hardinek berak (1998) onartu zuen *Science* aldizkarian hanka-sartzea: “To judge from the critical literature, the weightiest mistake in my synthesizing paper was the omission of the modifying adjective ‘unmanaged’” (p. 682).

‘Errealista’ ez dela entzun liteke ere sistema ‘ximple’ hauei buruz. Kasu horretan, sinpletasuna eta irrealismoa kritika egileari dagozkio, onartzen duen ‘errealismoa’ gizakiari berezkoa ez zaion pertsonalitatea egoztean datzalako. Alegia, hierarkikoak, inbaditzaileak eta patriarkalak diren pertsona eta ekonomia ‘konplexuak’ gizakiaren benetako errealitatea zanpatu egiten dute; gure barne errealitate hori ahaztea bai dela irrealia izatea. Aipu batek dio, frogagaitza ala akaso frogaezina den arren, Margaret Mead antropologoak horrela erantzun ziola ‘nola dokumentatu genezake zibilizazioaren hasiera?’ galderari: “sendatutako lehen femurra zein”. Egia ala ez, pasadizoak ederki erakusten du ekonomia eta gizartearen bi ikuspegien aldea.

‘Idealak’ eta ‘ez errealistak’ direla sistema hauen azterketak eta proposamenak, atzekoaren beste forma bat da (gogoratu goikoa, “mundu tradizional baten lilurapean”). Esan liteke adibidez: ‘batzarre sistema inoiz ez da hain idilikoa izan, handikiek horiek kontrolatzea lortu zuten’; hori da atzeko kritikaren zentzua. Bai, ados, hori aztertzen du, adibidez, Sastrek (2013), eta hori izan zen, hain zuzen, beraien galeraren arrazoia. Baina Azparrenek (2013) egiten duen deskribapenak, zerizantara gehiago joan arren, ez du balio gutxiagorik. Zera bat da gauzen filosofia, zerizana edo sakontasuna, eta beste bat da egunerokotasuna aldagai-anitza dela eta beti agertzen dela nahasturik zerizan hori. Horretara doa, hain zuzen, tipo idealen adigaiak. Noiz existitu da era puru eta aratzean kapitalismoa? Eta Frantziako Iraultza?

Amaitzeko, zenbait kritika testu honek berak erantzuten du, eta ez dugu orain zehaztuko. Adibidez, maiseo sarria da hemengo eredia oso bertokoa dela dioena, Euskal Herriaren berezitasuna gehiegi nabarmentzen duela. Agerian geratu da lanaren zehar *Abk-Zms* eredu unibertsal baten forma bat besterik ez dela, ekonomia naturalaren eredu bat besteen artean. Norberak erabaki dezala gaur egun dituen aztarnak indartsuak diren ala ez, auzolan ekimenetan bezala; iraganean sistema osoa gorpuzten zuen, ‘batzarreetatik biltzar nagusietara’ sisteman bezala; eta gerora begira gure mito soziala izatea jarraitu nahi dugun, *Gernikako Arbolaren* elezahararekin bezala.

Beste gaitzespen narea eredia oso ideala eta utopikoa dela dioena; horretara etorri dira ‘idealtypus’ eta ‘mito sozial’ adigaiak. Hauei buruz bai azken iruzkinak merezimendua dutela.

Tipo ideala eta mito soziala ekintzan

Zera bat delako gauzak ‘zer diren’ funtsean, edo nabarmendu nahi dugun alderdian, eta bestelakoa delako ‘nola agertzen diren’ errealitatean, *Abk-Zmsko* tipo ideal gisa ulertu behar da eta mito sozial gisa erabili daiteke, ekintzaren ikuspegi azalezko batetan geratu gabe. Estatuak beren burua ‘komunitate irudikatu edo imajinatu’ gisa saltzen dute, Andersonek deskribatu bezala (2006), baina ez dira bakarrak eskubidea horrekin. Sergio Leonék (2007) proposatu bezala, ‘Euskal Herri imajinarioa’ beharrezkoa da gure artean ere. *Abk-Zms* gaur lausoturik dugun errealitatea dugu, antzinatean gogorrago bizi izan omen zena, baina edozein kasutan hedatzeko eta osatzeko eskubidea eta, akaso, onuragarri eta abantailatsu gerta dakigukeena.

Has gaitezen iraganari begira. Lagundu edota ahalbidetu al du euskal komunalismoak Euskal Herriaren biziraupena? Horrela diote horren inguruan dabilzan ekintzaileek, *Euskal Sena Taldekoek* (2022) zein Jasone Mitxelorenak (ikus goian 2013, "Gure arbasoek emandako ondare honi esker bizirik iraun dugu herri moduan").

Batek esan lezake, goian ikusi bezala, ‘ondo, baina iraganeko kontuak dira’. Jada mahaigaineratu dugu munduko ekonomiaren azken joerek, *sharing economy* eta beraien baitako *digital commons*-ek, oso bestelakoa iradokitzen dutela. Rifkinék (2015) “prokomun kolaboratzaile” deitzen ditu balio ekonomikoa oinarritzko irizpide gisa hartzen ez duten antolamendu eta merkatu ereduak, bai historian zehar, bai egungo hirugarren edo irabazi-asmorik gabeko sektorean, eta bai digital eredu modernoak. Eta zera dio, gizaldi honen bigarren zatian irabazi kapitalistek baino pisu espezifikoko gehiago izango dutela munduan, kapitalismoak ekonomia kolaboratzailearekin bizikidetzan egin beharko duelarik, kostu marjinalak zerora iristear daudelako eta produktu teknologikoak oso merkeak izango direlako. Adibidez, 3D inprimagailuekin ‘prosumitzaile’ bihurtuko gara, gauzak ekoizten eta kontsumitzen aldi berean.

Aurreikuspena egia ala oker, harremanak aldatuak dira jadanik. Banajik eta Buckinghamek (2013) dokumentatu bezala, gazteek ohiko politikatik aldenduak dirudite, baina sare-plataformak erabiltzen dituzte interesatzen zaizkien gaiak identifikatzeko, arakatzeko eta neurriak hartzeko. Horrela, parte-hartze forma berriekin, hiritarren konpromisoa aldatzen ari da, eta espazio digital hauek badute inpaktua, jadanik, egungo bizitza demokratikoan. Zentzu horretan, partekatzeari buruz sistema sozioekonomiko integral baten ereduak ezinbestekoa dirudi.

Berdintsua da mugimendu sozialen balorazioarekin. Egokia dirudi irizpide honek. Ez hainbeste mugimenduei buruz beraien horretan hitz egiteak, edo gaur egungo gertaeren aurrean duten jarreraz, etorkizunerako gehien aurreikusten diren jabetza, produkzio eta truke sistemaz duten jarreraz baizik (Renteria-Uriarte & Las Heras, 2021). Etorkizuneko gizartearen eta ekonomiaren beharrei aurre egiteko duten malgutasuna baloratzen du honek. Zalantzarik gabe, mugimendu sozialen etorkizunean, askatasuna mugatzen duten botere kapitalisten aurkako etengabeko borroka batzuek iraungo dute, gizarte lankidetzeta eta langileen parte-hartze borrokak kasu, eta orduko gaiek erakarrirako arretak erakunde eta talde berriak sortaraziko ditu. Baina etorkizuneko ikuspegi itxaropentsuak aurreikusteko gako ona liteke gorabidean dauden jabetza-ekoizpen-truke sistemak aurreikusi, eta mugimendu sozialen jarrera horren gainean balioetsi. Zentzu horretan orain, partekatzea eredu sistemiko baten barruan ulertzen duenak eskaintza egokia egiten ari dela dirudi.

Baina geroari buruz hitz egiteak ez dakar oraina gutxiatea. Enzo Traversok (2019) dio ezkertiar garaikideak historia iraultzailearen ikuspegi malenkoniatsuan murgilduta bizi direla, jasandako galerengatik porrotaren sentsazioarekin murgilduta bizi direla. Ekintzaile batzuk

diote ‘berdin dio, zerotik hasiko gaituk berriz’, baina hasiera katartiko mota honek, Traversoren ustez, ezkerre ahultzen du, oroimen eza bera, eta duen motibazio ahalmena, ezabatzea suposatzen duelako. Zera dio, alternatiba berriek (Indignados, Occupy Wall Street edo Nuit Debout bezalakoak) “memoria galdu” dutela, malenkonian sarturik.

Traverso, hala ere, itxaropentsua da batzuk iragana beste modu batera ikusten hasten direnean; adibidez, Parisko Komuna langile prekarioen, artisauen eta intelektual bohemioen autogobernuaren argitan berraurkitzen denean. Eta hauxe da, hain zuzen, euskal komunalismo modernoaren pentsamoldea: etorkizuneko ekonomia-moduetarako jokabide berri bat aurrefiguratzea tokiko eta eskualdeko eskalatan, historian zehar eta Euskal Herrian bertan jendeak duen autogobernurako eta partekatzerako joeraren gainean.

Ondorioak

Euskal Herria Komunala komuntze eta partekatze egitura sozialak biltzen dituen euskal gizartearen eta ekonomiaren alderdiari deitu diogu, Abk-Zms egitura duena, eta *Euskal Komunalismoa* errealitate hauek eta dakarten mitoa sustatzeko borroka direnei. Ikuspuntu desberdinetatik aztertu eta argudiatu dira.

Komuna gizakiaren joera lehena eta naturala da arazo sozioekonomikoen aurrean, eta normalean uste duguna baino askoz bertaratuagoa, bai giza espeziearen historian, eta bai ohiko truke-harremanetan kapitalismoaren barruan. Komunitatea ez da antolakuntza hutsa, edo politika murrizta, espeziaren zerizana islatzen duen sistema naturala da, elite jakin batzuk, boterearen bidez, dena beren erara antolatzen hasi baino lehen eta, gaur egun oraindik, joera zapaltzen jarraitu arren.

Ekonomia eta demokrazia komunala oraindik presente dagoen errealitatea eta iraganeko ondarea dugu, jendartearen harreman berdinzaleagoen eta demokratikoagoen helbururantzako umekia. Gizarte komunala gaur egun jadanik dugun praktiken sorta eta harremanen ehuna da, ez bakarrik harreman komunalen egitura sozial osoa (elkarrekikotasun, dohain eta komuneko gizarte klasikoak). Kapitalismoaren baitan, hemen dugu gizarte edo azpi-gizarte komunala, eta horri buruzkoa da euskal komunalismoa.

Abk-Zms ez delako bakarrik historia, horregatik saiatu gara egungo aztarnetatik berreraikitzen; hori delako hain zuzen gure garaietako Euskal Herria Komunala. Guri dagokigu sakondu ala ez, ahaztu eta betirako lurperatu ala ez. Norberak erabaki dezala praktika, oroimen eta mito sozial honetan gogoia eta kemena jarri nahi dituen.

Baina milaka kolore duen egungo Euskal Herri honetan, eta gure berezitasunek eta burujabetzak gehiago banatu gaitzakeen zalantza-denbora hauetan, akaso ez legoke soberan hori: munduko beste lekuekin batzen gaituen eredu sozioekonomikoa gogoratzea, zortzi abizeneko euskaldunak zein heldu berri den euskal hiritarrak batuz guztiona den ekonomia naturalean. Baina askoz hobe esan zuen Joxean Artzek, eta Mikel Laboak kantatu:

Iñon ez iñor menpekorikan, nor bere buruaren jabe;
herri guztiok bat eginikan ez gabiltza gerorik gabe.

Aipu-Iturriak

- Abella, I. (2016). Árboles de Junta y Concejo. Las raíces de la comunidad. Libros del Jata.
- Ajangiz, R., & Barcena, I. (2001). *Euskal Herriko gizarte mugimenduak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Alberdi, L. A. (2013). ¿Cuál es el himno de los vascos? El nacionalismo vasco y su simbología musical. *Spagna Contemporanea. Rivista Semestrale Di Storia, Cultura, Istituzioni*, (44), 7-27.
- Alonso, F. (2005). *¿Por qué luchamos los vascos?*. Txalaparta.
- Álvarez-Blanco, P. (2020). In Route with the Commons. Archive and Memory of a Possible Constellation (2017-18-19). La Vorágine.
- Amezketako Auzolan deia. (2023). *Ondarreko langara doan biderako deia*. <https://labur.eus/3KdjD>.
- Amin, A., & Thrift, N. (2009). *The Social Economy: International Perspectives on Economic Solidarity*. Zed Books.
- Anderson, B. (2006). *Imagined communities: reflections on the origin and spread of nationalism*. Verso.
- Apaolaza, U. (2016). Matxinada. XVIII. mendeko suminduak.(2502), 22-26. https://www.argia.eus/astekaria/docs/2502/pdf/2502_Argia-22-26.pdf
- Arana, A. (2014). *Euskal mitologiaren oinarrira joan behar da berriz, materialera*. <https://labur.eus/78hTQ>.
- Arrieta, J. M. (1976). *Orreagako gudua*. Gordailu.
- Atutxa, I. (2022). *Euskal matxinada*. Txalaparta.
- Azparren, P. (2013). Batzarrak, jatorrizko antolaketa: ekonomia soziala, lurraldetasuna eta partehartzea. Olaeta.
- Azzellini, D. (2021). La Comuna y los desafíos de hoy. Paper presented at the <https://www.youtube.com/watch?v=jVmOhhS6488>
- Azzellini, D., & Ness, I. (2017). Poder obrero. Control y autogestión obrera desde La Comuna hasta el presente. . La oveja roja.
- Bachofen, J. J. (1897). *Das mutterrecht*. Ripol Classic.
- Baird, D. (2017). Historia de los maquis. Entre dos fuegos. Almuzara.
- Balmasedako Udala. (2018, Auzolan en el Cerro del Castillo). *Udalberriak*, 219, 3.
- Baltza, J. (2000). Un escorpión en su madriguera : (indoeuropeo y euskara, mito y realidad). Hiria.
- Banaji, S., & Buckingham, D. (2013). *The civic web: young people, the Internet and civic participation*. MIT Press.
- Barcena, I. (2002). Euskal Gizarte Zibilaren bilakaera historikoa. Eusko Ikaskuntza.
- BasokoMari. (2019). *Matritopaketak Amaraunan (Ziordian)*. <https://vimeo.com/407052249>.
- Basterretxea, M. C. (2016). *Euskal Herria, kultura matrilineala*. Potlatch.
- Basterretxea, M. C. (2012). Rito de nacimiento vasco “Atsolorra” *Euskonews*, (642) <https://labur.eus/prSu0>
- Belaunzaran, A. (2023). *Auzolangiltza*. Tolosako Udala.
- Biggar. (2020). Scotland’s Natural Economy: Sustainable Growth Potential
- Biltzarre. (2023). Auzokrazia edo Euskal Demokrazia Zuzena (Biltzarrek zehaztua)
- Bizi! Mugimendua. (2018). Burujabe. Gure bizi baldintzak berreskuratuz
- Bizi! Mugimendua. (2023). Euskal Herria Burujabe. Denon mundua eskuetanberriz har dezagun
- Bizkaiko Batzar Nagusiak. (1452). *Foru Zaharra. Fuero Viejo de Vizcaya*. (1909) José de Astuy.
- Bizkaiko Batzar Nagusiak. (1526). *Foru Barria. Fuero Nuevo de Vizcaya*. (1976) Leopoldo Zugaza.
- Boyd, A., & Mitchell, D. O. (2013). *Beautiful trouble: A toolbox for revolution (pocket edition)*. Or Books.
- Boyé, A. (2006). Matriarcados. Las sociedades matriarcales de Bijagó (Guinea Bissau), Juchitek (México) y Mosuo (China). Ayuntamiento de Barcelona.
- Boyé, A. (2020a). *Comunidades quero y huilloc*. Matriarcados.com.
- Boyé, A. (2020b). Las herederas. Sociedad matriarcal Minangkabau, Sumatra. Matriarcados.com.
- Caillé, A. (2007). *Don, intérêt et désintéressement*. La Découverte.
- Calvo, R. L. (2012). Izquierda abertzale: De la heterogeneidad al monolitismo. In C. Navajas, & D. Iturriaga (Eds.), *Coetánea: III Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo* (pp. 377-388). Universidad de La Rioja.

- Carter, P. (2023). Work, Gender and Witchcraft in Early Modern England. *Gender & History*, , 1-18. 10.1111/1468-0424.12717
- Casamajou, L. (2023, Lurretik, herri buruaskia. *Berria*, , 2023ko abuztuaren 12a. <https://labur.eus/cinxR>
- Casanova, I. (2014). ETA 1958-2008 : medio siglo de historia. Txalaparta.
- Casquette, J. (2001). Acción Colectiva y Sociedad de Movimientos. El movimiento antimilitarista contemporáneo en el País Vasco-Navarro. Eusko Jaurlaritzza.
- Chamorro, J. G. (2009). Bitarte, humanidades e historia del conflicto vasco-navarro: fueros, constitución y autodeterminación. Chamorro.
- Chueca, J., & Fernandez, L. (1997). *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian* . Egunkaria.
- Coriat, B. (2015). Le retour des communs: & la crise de l'idéologie propriétaire. Les Liens qui libèrent.
- Coser, L. A. (1977). Masters of Sociological Thought: Ideas in Historical and Social Context. Harcourt Brace.
- Cruz, R. (1998). El mitin y el motín: la acción colectiva y los movimientos sociales en España del siglo XX. *Historia Social*, (31), 137-152.
- Cullen, Z., & Farronato, C. (2014). *Outsourcing tasks online: Matching supply and demand on peer-to-peer internet platforms*. (). Standford: Stanford University. 10.1287/mnsc.2020.3730
- Curto, S. (2023). Demokrazia Komunala. Venezuela, Kurdistan, Euskal Herria. UPV/EHU.
- Darwin, C. (1859). The origin of species by means of natural selection or the preservation of favoured races in the struggle for life. Murray.
- Della Porta, D., & Diani, M. (2011). *Social movements: an introduction*. Blackwell.
- Demokrazia Komunala Sarea. (2021). Demokrazia Komunala I Nazioarteko Biltzarra. Komunikazioak. EHU.
- DKS. (2021). *Demokrazia Komunala I Nazioarteko Biltzarra Komunikazioak*. Demokrazia Komunal Sarea. <https://labur.eus/PZVDW>
- Dom Pedro Afonso de Portugal. (1340). Livro de linhagens (1739) Livro de linhagens do Conde D. Pedro (Afonso de Barcelos) (não se conhece a versão original). Casa do Espírito Santo.
- Dopsch, A. (1930). Naturalwirtschaft und Geldwirtschaft in der Weltgeschichte. Wien L W Seidel.
- Dumézil, G. (1968). Mythe et Épopée I : L'Idéologie des trois fonctions dans les épopées des peuples indo-européens, . Gallimard.
- Durand, G. (1960). Les structures anthropologiques de l'imaginaire. Introduction à l'archétypologie générale. Presses universitaires de France.
- Egaña, I. (2017). *ETAren historia laburra* . Txalaparta.
- Egin Ayllu. (2014). Las vecindades vitorianas. Una experiencia histórica de comunidad popular preñada de futuro. NED.
- Eley, G. (2002). Forging democracy: The history of the left in Europe, 1850-2000. Oxford University Press.
- Escribano, J. M. (2011). El derribo de murallas y castillos navarros tras la conquista. Antiguas y nuevas perspectivas. *Príncipe De Viana*, (254), 583-597.
- Estornés, I. (2024). Euskal Herriko zuhaitz sakratuak (1977ko bertsioa). In Bernardo Estornes Lasa Funtza (Ed.), *Auñamendi Eusko Entziklopedia* (). Eusko Ikaskuntza. <https://labur.eus/PF1CT>
- Etnopol. (2023). Amankomunak: baliabide partekatuak. Zer nolako erronkak lurraldearentzat? (Euskal etnopolaren urteko kolokioa)
- Euskal Sena Taldea. (2019). Lan Dokumentuak Auzolanean (Apologia, Gakoak, Oinarria eta Urrezko haria). Biltzarre.
- Euskal Sena Taldea. (2020). *Autonomia ala Auzonomia?* <https://labur.eus/2VFZf>
- Euskal Sena Taldea. (2022). *Oinarriak (laugarren bertsioa)* Biltzarre. <https://ehubox.ehu.es/s/byxyYPnnjYZWiFj>
- Fernandez, E., & Lagoma, E. (2022). *M Ama* Eme* Ume** . Elkar.
- Folbre, N. (2010). The invisible heart: Economics and family values. New Press.
- Fortún, L. J. (1985). Los fueros menores y el señorío realengo en Navarra (siglos XI- XIV). *Príncipe De Viana*, 46, 603-674.
- Fremont-Barnes, G. (2007). Encyclopedia of the age of political revolutions and new ideologies, 1760-1815. Greenwood Press.

- Gaindegia. (2020). *Biztanleria Osoa*
- Galán, M. (2020). *El Derecho Navarro en sus textos fundamentales*. Universidad de Navarra. <https://labur.eus/OyJXf>
- Garibay, E. d. (1628). *Los Quarenta Libros del Compendio Historial*. Plantino.
- Gartzia, E. (2023,). *Atsolorra prestatzeko lehenengo bilera . Oarsoaldeko Hitza*
- Gastón, J. M. (2010). *¡Vivan los comunes! Movimiento comunero y sucesos corraliceros en Navarra (1896-1930) . Txalaparta.*
- Gibson-Graham, J. K., Cameron, J., & Healy, S. (2016). Commoning as a postcapitalist politics. In A. Amin, & P. Howell (Eds.), *Releasing the commons: Rethinking the futures of the commons* (pp. 192-212). Routledge.
- Gorrotxategi, X., & Yarrantu, M. J. (2003). Los monumentos megalíticos y la articulación del espacio cantábrico por las comunidades campesinas éuskaras. *Bidebarrieta*, 12, 62-108.
- Göttner-Abendroth, H. (2011). *Matriarchal Societies: Studies on Indigenous Cultures across the Globe*. Lang, Peter.
- Graeber, D. (2014a). *Debt - Updated and Expanded : the first 5000 years*. Random House.
- Graeber, D. (2014b). *The democracy project: A history, a crisis, a movement*. Penguin Books.
- Graeber, D., & Wengrow, D. (2021). *The dawn of everything: A new history of humanity*. Allen Lane.
- Gramsci, A. (1977). *Quaderni dal carcere. Q3*. Einaudi.
- Guerra Sesma, D. (2007). Socialismo español y cuestión nacional, 1879-1939. *Revista De Estudios Políticos (Nueva Época)*, (137), 182-216.
- Harari, Y. N. (2014). *Sapiens: A Brief History of Humankind*. Harvill Secker.
- Hardin, G. (1998). Extensions of "the tragedy of the commons". *Science*, 280(5364), 682-683.
- Harremanak. (2020,). *Berria*<https://labur.eus/HC4Jw>
- Hedlund-de Witt, A. (2012). Exploring worldviews and their relationships to sustainable lifestyles: Towards a new conceptual and methodological approach
- HerriUnibertsitatea. (2019). *Matritopaketak*. <https://hunherriuni.wordpress.com/2019/04/11/matritopaketa/>.
- Hidalgo, S. (2015). Emociones socialistas en la huelga minera de 1890. La formación de la conciencia de clase y el giro emocional. *Historiografías*, (10), 31-48.
- Hobsbawm, E. J. (1999). *The Age of Revolution, 1789–1848*. Abacus.
- Holland, D. (2007). *Local democracy under siege: Activism, public interests, and private politics*. NYU Press.
- Homobono, J. I. (2015). Egin Ayllu 2014, Las vecindades vitorianas (Revisión). *Empiria: Revista De Metodología De Ciencias Sociales*, 31, 201-209.
- Huntington, S. P. (1996). *The clash of civilizations and the remaking of world order*. Simon and Schuster.
- Irujo, M. d. (1945). *Instituciones Jurídicas Vascas* . Ekin.
- Iza, I. (2010). *Ikastola mugimendua, dabilen herria: ikastola eredu 1960-2010*. Euskaltzaindia.
- Jeffrey, C., & Dyson, J. (2020). Geographies of the future: Prefigurative politics. *Progress in Human Geography*, , 0309132520926569.
- Jentzsch, C., Kalyvas, S. N., & Schubiger, L. I. (2015). Militias in civil wars. *Journal of Conflict Resolution*, 59(5), 755-769.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa. (1999). *Euskal Herriko herri mugimenduaren gida*. Arabera.
- Julie Nelson. (1996). *Feminism, Objectivity and Economics*. Routledge.
- Kapanaga, B. (1985). Kristautasunaren aurreko erlijioaren ezaugarriak, haritza . *Ahotsak*, , OTX-065/005. <https://labur.eus/hW3yv>
- Kapuściński, R. (1998). *Ébano*. Anagrama.
- Kawano, E., Masterson, T. N., & Teller-Elsberg, J. (2009). *Solidarity Economy I: Building Alternatives for People and Planet* . Amherst College.
- Keynes, J. M. (1936). *The General Theory of Employment, Interest and Money* . MacMillan.
- Kittay, E. F. (1999). *Love's Labor: Essays on Women, Equality, and Dependency* . Routledge.
- Kropotkin, P. (1902a). *L'Entraide, un facteur de l'évolution*. Hachette.
- Kropotkin, P. (1902b). *Mutual Aid: A Factor of Evolution*. Heinemann.
- Krutwig, F. (2014). *Años de peregrinación y lucha*. Txalaparta.

- Lafourcade, M. (2011). La societe basque traditionnelle. Elkar.
- Lafourcade, M. (2006). La société basque traditionnelle en Iparralde. *Boletín De La Real Sociedad Bascongada De Amigos Del País*, 62(2), 247-263.
- Lafourcade, M. (2010). La démocratie basque. *Jado Aldizkaria*, 8(19), 171-209.
- Lagarde, A. (2015). Parekidetasuna eta sexu-identitateen eraketa euskal artzain-nekazari jendartean. *Uztaro*, (92), 5-24.
- Larralde, X. (2023). *Euskal Herria, komunalen herria*. Kanaldude.
- Las Heras, J., & Rodríguez, L. (2021). Striking to renew: Basque unions' organizing strategies and use of the strike-fund. *British Journal of Industrial Relations*, 59(3), 669-700.
- Lekuona, I. (2019). Atsolorra, euskal jaiotza-erritua. Ereñotzun jasotako testigantzak. *Uztaro*, (109), 5-26.
- Lenin, V. I. U. (1899). Развитие капитализма в России (Razvitie kapitalizma v Rossii; The Development of Capitalism in Russia). Zhizn i Znaniye.
- Leonard, S., & Sunkara, B. (2016). *The Future We Want: Radical Ideas for the New Century*. Macmillan.
- Leoné, S. (2007). Euskal Herri imajinario baten alde. Elkar.
- Letamendia, A. (2015). La forma social de la protesta en Euskal-Herria 1980-2013. UPV/EHU.
- Lewis, N. (1951). *A Dragon Apparent: Travels in Cambodia, Laos, and Vietnam*. Jonathan Cape.
- Lloredo, L. M. (2020). Bienes comunes. *Eunomia.Revista En Cultura De La Legalidad.*, 19, 214-236. 10.20318/eunomia.2020.5709
- Luxemburg, R. (1951). *The Accumulation of Capital*. . Routledge & Kegan Paul.
- Malinowski, B. (1922). *Argonauts of the Western Pacific*. Routledge and Kegan Paul.
- Marco, J., & Yusta, M. (2019). Irregular War, Local Community and Intimate Violence in Spain (1939–1952). *European History Quarterly*, 49(2), 231-249.
- Marlowe, F. (2010). *The Hadza: hunter-gatherers of Tanzania*. University of California.
- Martín Osante, L. C., & Arrúe Mendizábal, M. (1991). Crónica de derecho civil vasco: situación actual en la perspectiva de su reforma . *Vida Jurídica*, XLIV(3), 1277-1318.
- Marx, K. (1894a). *El capital*. Siglo XXI.
- Marx, K. (1894b). *Das Kapital*
- Marx, K. (1894c). *Das Kapital: Kritik der politischen Oekonomie*. (1867) Bunch 1: Der Produktionsprozess des Kapitals. (1885) Bunch 2: Der Cirkulationsprozess des Kapitals. (1894) Bunch 3 Der Gesamtprozess der kapitalistischen Produktion. Verlag von Otto Meissner.
- Marx, K., & Engels, F. (1848). *The Communist Manifesto*. (2002nd ed.). Penguin.
- Mauss, M. (1924). *Essai sur le don. Forme et raison de l'échange dans les sociétés archaïques* (L'Année Sociologique, seconde série, tome I. ed.). Les Presses universitaires de France. 10.1522/cla.mam.ess3
- McGee, J., & Warmes, R. L. (2017). *Anthropological theory : an introductory history* . Rowman & Littlefield.
- Merkatutik Atera. (2015). Euskal Herrian Autonomia Komunala. Autonomía Comunal en Euskal Herria (Merkatutik Atera eztabaida taldea). *Nahimen, Teoria eta Estrategia II*, 9-77. <http://tinyurl.com/4vx8633m>
- Mitxelorena, J. (2011). *Auzolanaren kultura*. Txalaparta.
- Mitxelorena, J. (2013, Herritik herriarentzat (Uxua Larretxearekin elkarrizketa). *Argia*, <http://tinyurl.com/2p8tmxfd>
- Mitxelorena, J. (2023). *Auzolan, Batzarre y Bienes Comunes*. (). <https://labur.eus/ajXWd>
- Montalban, M., Frigant, V., & Jullien, B. (2019). Platform economy as a new form of capitalism: a Régulationist research programme. *Cambridge Journal of Economics*, 43(4), 805-824. 10.1093/cje/bez017
- Monteano, P. (2023). Vasconia en los siglos oscuros. De la caída de Roma al reino de Pamplona (409-905) . Mintzoa.
- Montesinos, L. (2013). Iraliku´k: La confrontación de los comunales. Etnografía e historia de las relaciones de propiedad en Goizueta (Universidad de Barcelona).

- Moyo, H. (2021). The Death of Isintu in Contemporary Technological Era: The Ethics of Sex Robots Among the Ndebele of Matabo. In B. Dedaa Okyere-Manu (Ed.), *African Values, Ethics, and Technology: Questions, Issues, and Approaches* (pp. 123-135). Palgrave.
- Mugarik Gabe. (2016). Euskal Herritik kolektibotasunean eraikiz. Mugarik Gabe.
- Murray, S. (2016). The Presence of the Past: A Historical Ecology of Basque Commons and the French State . In I. Vaccaro, & O. Beltran (Eds.), *Social and Ecological History of the Pyrenees* (pp. 15-27). Routledge.
- Murray, S. (2019). The Presence of the Past: A Historical Ecology of Basque Commons and the French State . In I. Vaccaro, & O. Beltran (Eds.), *Social and Ecological History of the Pyrenees* (pp. 25-41). Routledge.
- NA, N. A. (2016). The movements of the new left, 1950-1975: A brief history with documents. Springer.
- Nabarralde, & Martin Ttipia. (2017). *Derecho pirenaico. Zuzenbide piriniarra*. Nabarralde Fundazioa.
- Nafarroako Foru Berria. (1973). *Compilación del Derecho Civil Foral De Navarra, Ley 1/1973 de 1 de Marzo*. Nafarroako Gobernua. <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=1277>
- Nafarroako Foru Orokorra. (1237). *Nafarroako Foru Orokorra edo Foru Zaharra* . (1869) V. Cantera.
- Nafarroako Foru Orokorra. (1238). *Fuero General de Navarra* . (2016) Agencia Estatal Boletín Oficial Del Estado.
- Navarro, J. (2003). *Homenaje a Euskal Herria*. Txalaparta.
- Nazio Ikurren Lantaldea. (2023). *Nazio Ikurren gogoeta prozesua*. Biltzarre. <https://labur.eus/BvGwlNcyt>.
- Ncyt. (2023). *¿Por qué se acusaba más de brujería a mujeres que a hombres?*. <http://tinyurl.com/y3mrkaft>.
- Nikolas, J. (2019). Vasconia Emergente entre la Cristiandad y el Islam. Arabera.
- Odrozola, J. M. (2017). *Nora goaz euskalduntasun honekin?*. Elkar.
- Oartzungo Udala. (2016). Atsolorra. Euskal jaiotza erritua . <http://tinyurl.com/3wwjm8fz>
- Olariaga, A. (2020). Euskal matxinada Genealogia eta egungo eztabaidak . Txalaparta.
- Oñatiko Udala. (2023). *Atsolorra*<http://tinyurl.com/2n29b3yb>
- Ortiz-osés, A. (1996). Ama jainkosa euskal mitologiatik interpretatua. Gaiak.
- Oruetxebarria, O., & Rivas, J. (2021). Matematika eta Euskal dantzak. *Ekaia*, (39), 229-255. 10.1387/ekaia.21529
- Oteiza, J. (1963). Quousque tandem! Ensayo de interpretación estética del alma vasca, su origen en el cromlech neolítico y su restablecimiento por el arte contemporáneo. Auñamendi.
- Oteiza, J. (1995). Nociones para una filología vasca de nuestro preindoeuropeo: raíces de nuestra identidad escondidas en el euskera indoeuropeo actual. Pamiela.
- Ott, S. (1993). The circle of mountains: a Basque shepherding community. University of Nevada.
- Ott, S. (1994). Artzain-komunitate euskalduna: bortuko ingurua. Gaiak.
- Pacto Convenio, -. 1. (1991). Pacto Convenio entre Alfonso VIII de Castilla y Sancho VI el Sabio de Navarra con fecha 25 de agosto de 1176, tras someter sus diferencias territoriales al arbitraje del rey Enrique II Plantagenet de Inglaterra. In T. Urzainqui, & J. M. Olaizola (Eds.), *La Navarra marítima* (pp. 123). Pamiela.
- Pasaiaiko Udala. (2022). Atsolorra, amatasuna feminismotik hizpide. <https://www.pasaia.eus/eu/-/atsolorra>
- Pazhitnova, T. K. (1979). Natural Economy. *The Great Soviet Encyclopedia* (). The Soviet Encyclopedia.
- Pelham, B., Hardin, C., Murray, D., Shimizu, M., & Vandello, J. (2022). A truly global, non-WEIRD examination of collectivism: The global collectivism index (GCI). *Current Research in Ecological and Social Psychology*, 3, 100030. 10.1016/j.cresp.2021.100030
- Pelz, W. A. (2007). Against capitalism : the European left on the march. Peter Lang.
- Penche, J. (2010). *Republicanos en Bilbao (1868-1937)*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Perrings, C. (1985). The natural economy revisited. *Economic Development and Cultural Change*, 33(4), 829-850. 10.1086/451497
- Piotrowski, G., Fröhlich, C., & Wennerhag, M. (2018). *Radical Left Movements in Europe*. Routledge Taylor & Francis Group.
- Piquero, G. (2021). En el vientre de Mari. Las raíces preindoeuropeas de la mitología vasca. Cauac.

- Polanyi, K. (1944). *The great transformation: The political and economic origins of our time*. Beacon Press.
- Poulantzas, N. (1978). *Political power and social classes*. Verso.
- Pozo, M. (2016). *Vasconia y los vascones de la crisis del imperio romano a la llegada del islam (siglos V-VIII). Evolución sociopolítica y génesis de la gens efferata*. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). <https://addi.ehu.es/handle/10810/34611>
- REAS Euskadi. (2023). *Bazkide diren erakundeak*
- Renteria-Uriarte, X. (2006). *Maitasunaren Ekonomia: ekonomia sozialaren sakontzea*. In A. M. Errazti, & A. Mendizábal (Eds.), *Ekonomia sozialaren erronkak kapitalismo globalean* (pp. 157-185). UEU.
- Renteria-Uriarte, X. (2013). *Hacia una Economía Holográfica. Una revisión de la ciencia económica desde la ontoepistemología oriental*. Bilbao: University of the Basque Country.
- Renteria-Uriarte, X. (2015). *Ciencia Holográfica. Una invitación a la ciencia tradicional desde la felicidad, el amor y la filosofía perenne*. Unpublished manuscript. <http://ehu.academia.edu/XabierRenteria>;
- Renteria-Uriarte, X. (2021). *Abertzaletasun berriak eta euskal demokrazia komunal*. Auzonomia´ren ABKZ sistema. Paper presented at the *Demokrazia Komunala I Nazioarteko Biltzarra-Komunikazioak*. 18-20. <https://labur.eus/PZVDW>
- Renteria-Uriarte, X. (2022a). *Making worldviews work: A heuristic, a planet scan, a case and their transversal implication*. *Culture & Psychology*, 1354067X221147682.
- Renteria-Uriarte, X. (2022b). *Mariren hamaika aurpegiak... Eta (ia) guztiak biltzen dituen*. *Zainak. Cuadernos De Antropología-Etnografía*, 40, 49-68.
- Renteria-Uriarte, X. (2023). *Counteracting Epistemic Oppression Through Social Myths: The Last Indigenous Peoples of Europe*. *Social Epistemology*, 37(6), 864- 878.
- Renteria-Uriarte, X., & Las Heras, J. (2021). *Prefiguring communalism and economic democracy in the Basque Country*. *Globalizations*, 18(2), 1-18. 10.1080/14747731.2020.1863542
- Renteria-Uriarte, X., & Öner-Kula, S. (2024). *Sharing Society: The Last Lost Concept*. *At work*
- Rifkin, J. (2015). *The zero marginal cost society: the Internet of things, the collaborative commons, and the eclipse of capitalism*. Palgrave Macmillan.
- Rivera, A. (2003). *Señas de identidad: izquierda obrera y nación en el País Vasco, 1880-1923*. Valentín de Foronda.
- Robbins, R. H., & Dowty, R. (2021). *Cultural anthropology: a problem-based approach*
- Rodrigo Mora, F. (2022). *El Comunal*. Cauac.
- Rojo, J. (2013, -06-13). *Herri batzarraz*. *El Diario Vasco* <https://kritikak.armiarma.eus/?p=5869>
- Rosas, R. (2018). *Atsolorra (Dokumentala)*.
- Sahlins, M. d. (1972). *Stone age economics*. Aldine.
- Saitua, L. (2015). *Auzolan-Batzarre-Comunal*. revolucionintegral.org.
- Saitua, L., & Rodrigo Mora, F. (2018a). *Auzolan-Batzarre-Comunal. Inventario de grandes cuestiones*
- Saitua, L., & Rodrigo Mora, F. (2018b). *Euskal Sena Auzolan-Batzarre-Komunalaren ikuspegitik. Paper presented at the Euskal Sena. 1. Bilkura (Biltzarre)*, Usurbil. <https://tinyurl.com/yckq8e89>
- Salinas, F. (1998). *La costumbre en el derecho navarro La coutume dans le droit navarrais*. *Azpilcueta*, 13, 83-96.
- Sanchez, F. (2014). *Cronología de las sublevaciones carlistas*. *Haria*, (34), 7-30.
- Santamaría, L., & Ondikol, J. M. (2016,). *La tradición del auzolan sigue viva en el pueblo*. *Noticias De Navarra*
- Santos, S., & Madina, I. (2012). *Comunidades sin estado en la montaña vasca*. Sahats.
- Sassoon, D. (2013). *One hundred years of socialism: The West European left in the twentieth century*. IB Tauris.
- Sastre, P. (2013). *Batzarra, gure gobernua*. Elkar.
- Schechter, D. (2007). *The history of the left from Marx to the present: theoretical perspectives*. Continuum.
- Schuberth, M. (2015). *The challenge of community-based armed groups: Towards a conceptualization of militias, gangs, and vigilantes*. *Contemporary Security Policy*, 36(2), 296-320.
- Serrano, S. (2006). *Maquis : historia de la guerrilla antifranquista*. Temas de Hoy.

- Shaw, R. (2013). *The activist's handbook: Winning social change in the 21st century*. Univ of California Press.
- Smith, A. (1776). *An Inquiry into the Nature and Causes of the Wealth of Nations*. Strahan and Cadell.
- Sorel, G. (1908). *Réflexions sur la violence*. M. Riveère et cie.
- Soto, A., & Diaz Liseth. (2018). Hego Euskal Herriko kooperatiba ehunaren bilakaeraren lurralde analisia.15, 77-102. Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria
- Stockholm Environment Institute. (2018). *Bioeconomy trends in developing countries*. 26th European Biomass Conference and Exhibition,.
- Stoecker, R., & Tryon, E. A. (2009). *The unheard voices: Community organizations and service learning*. Temple University.
- Sunkara, B. (2019). *The Socialist Manifesto*. Basic Books.
- Thompson, H. (1997). Ignorance and ideological hegemony: A critique of neoclassical economics. *Journal of Interdisciplinary Economics*, 8(4), 291-305.
- Tolosaldeko Ataria. (2018, *Auzolan Eguna egin dute Laskorain ikastolan*. <https://tinyurl.com/y8ooaudk>
- Traverso, E. (2019). *Left-wing melancholia: Marxism, history, and memory*. Columbia University Press. 10.7312/trav17942
- Triandis, H. C. (2004). *Culture and social behavior*. McGraw-Hill.
- Tronto, J. C. (2013). *Caring Democracy: Markets, Equality, and Justice*. New York University Press.
- Ubillos, M. (2010). Atsolorra . *Ahotsak*, URN-021/036
- Ulibarrena, O. (2023). *Auzokrazia. El gobierno comunal* . Letrame.
- Ulibarrena, O. (2003). *Gizabidea: El camino vital de los Eúskaros*. Artzai.
- United Nations, (. (2014). *Social and solidarity economy and the challenge of sustainable development* . United Nations.
- Urbeltz, J. A. (1994). *Bailar el caos :la danza de la osa y el soldado cojo*. Pamiela.
- Urkizu, U. (2016,). *Umea auzoarena ere badelako*. *Berria* <https://labur.eus/VjcJO>
- Urrestarazu, E. R. (1985). La distribución de los terrenos comunales en Álava. *Lurralde: Investigación Y Espacio*, 8, 189-196.
- van de Sande, M. (2015). Fighting with tools: Prefiguration and radical politics in the twenty-first century. *Rethinking Marxism*, 27(2), 177-194.
- Vidal, J. A. (2004). *La memoria reprimida: historias orales del maquis*. Universitat de València.
- Vidal, J. A. (2016). *La España del maquis (1936-1965)*. Punto de vista.
- Weber, M. (1897). (2002) *Dos cartas sobre el Pais Vasco*. *Revista Española De Investigaciones Sociológicas*, 100, 303-314.
- Weber, M. (1904). (1949) *Objectivity in Social Science and Social Policy*. In E. A. Shils, & H. A. Finch (Eds.), *The Methodology of the Social Sciences* (pp. 49-112). Free Press. 10.4324/9781315124445-2
- Weber, M. (1906). *Die protestantische Ethik und der Geist des Kapitalismus*. (Erster Teil: Die evangelische Ethik und der Geist des Kapitalismus). (Zweiter Teil: Die römische Kirche und das Wirtschaftsleben). . *Archiv für Sozialwissenschaft und Sozialpolitik*.
- Weiner, A. B. (1992). *Inalienable possessions: the paradox of keeping-while-giving*. University of California.
- Welch-Devine, M. (2016). *Local places, global influences: Pastoralism in Xiberoa and EU regulation*. In I. Vaccaro, & O. Beltran (Eds.), *Social and Ecological History of the Pyrenees* (pp. 43-57). Routledge.
- White, L. (1967). The historical roots of our ecologic crisis. *Science*, 0(10), 1203-1207.
- Wolff, R. D. (2012). *Democracy at work: A cure for capitalism*. Haymarket.
- Young, J. (1997). *The natural economy*. Shepheard-Walwyn.
- Zabalo, J., Larrinaga, A., Iraola, I., Saratxo, M., Amurrio, M., Mateos, T., Fullaondo, A., & Anduaga, U. (2016). *Euskal estatua irudikatzen : euskal estatuaaren aurreko iritziak eta jarrerak Euskal Herrian : azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa*. Ipar Hegoa eta Parte Hartuz.
- Zabalo, J. (2004). *Xaho. El genio de Zuberoa* . Txalaparta.
- Zabalo, J., & Odriozola, O. (2017). The importance of historical context: A new discourse on the nation in Basque nationalism? *Nationalism and Ethnic Politics*, 23(2), 134-154.

- Zaldua, L. M. (2006). *Saroiak eta kortak*. LM Zaldua.
- Zarate, M. (1977). Elkarrizketa Derion Roslyn Frankekin. Ahotsak.
- Zarrabeitia, J. J. (1837). *En defensa de los fueros de Vizcaya*. Nicolás Delmas.
- Zarrabeitia, P. (2011). Estelas discoidales de Euskal Herria. Pamiela.
- Zubiaga, M. (2002). Gizarte Zibilaren ahotsa eta bere ezaugarriak. Eusko Ikaskuntza.
- Zubiaga, M. (2014). Dinàmica i poder de l'Esquerra Abertzale. El cicle de protesta a Euskal Herria: hegemonía i radicalització democrática. In R. Vilaregut, D. Gómez, M. Zubiaga & P. Ibarra (Eds.), *La rebel·lió basca: una història de l'Esquerra Abertzale* (pp. 276-314). Icaria.
- Zumalde, X. (2004). Es un peligro por lo que sabe y calla. *Crónica*, 445 <https://labur.eus/fLgiW>

Hiztegi Laburra

Banatze: Gizateriaren historian eta gizarte mota gehienetan ohikoena izan den praktika ekonomikoa da, hots, natura baliabideak lortu eta komunitatean banatzearena, partitzearena, partekatzearena. Hitz batean, komuntzearena. ‘Elkarrekikotasuna’ren eta ‘oparia’ren ekonomia deitu izan dute adituek (Mauss, Sahlins...).

Komuna: Banatzearen bidez lortzen den ekonomiaren oinarri fisikoa, alegia, baliabide komunak. Ekintzaile garaikideek, XX. mendeko 60. hamarkadatik eta aurretik ere, oinarri fisiko horien gaineko ekonomiaren antolaketa orokorra deitzeko erabiltzen dute ere.

Komunal: Baliabide komunei deitzeko erabiltzen da, esanahi fokatuagoan. Adibidez, lur komunalak edo herri jabegoak.

Komunalista: Jendarte eta ekonomia mota honen alde egiten duten ekintzaileak, eta beren pentsamolde eta praktikak.

Komuntze: ikus Banatze.

Partekatze: ikus Banatze.

Zenbait artxibo grafiko

Batzarre dokumentala <https://www.argia.eus/multimedia/dokumentalak/batzarre>

Xabier Renteria-Uriarte Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktorea da, eta Munduko Ekonomia eta Kudeaketan irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU).

Ikerketa lerroetan mundu-ikuskerak euskalduna eta indigenistak, komunitate eta partekatze ekonomia, zientzia ekonomiko kontzeptualak eta holografikoa, eta euskal gizarte mugimenduak ditu. Aldizkari zientifikoetan argitaratu ohi ditu.

Bilboko Enpresa Ikasketen Eskolako zuzendaria izan zen (2009-2012, aurretik zuzendariordea izanik 1998-2009).

Bi militantzia mota jorratu ditu bizitzan: soziopolitikoak (Askapena, Biltzarre, Euskal Sena Taldea, Bat Gara prozesua...) eta bost seme-alaba.